goienakluba“

# PUNTUA

GOIENAREN ALDIZKARI BERRIA 4.050 ETXETAN JASOTZEN DUTE DAGOENEKO.
JASO ZUK ERE ASTERO, URTEAN 55 EURO ORDAINDUTA*:
***943 25 05 05*** *edo* ***Puntua.eus*** *edo Whatsapp:* ***688 69 00 17***




goienakluba“
Euskara irabazle, denok irabazle!

*GOIENA KLUBEKO BAZKIDEOK EZ DAUKAZUE ESKATU BEHARRIK.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO AUDITIVO – FONALIA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

**AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

**MARIA VICTORIA ANITUA**
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
**PSIKOLOGO KLINIKOA - PSIKOTERAPEUTA**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86 / 669 10 13 93

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

**VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

**IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)**
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2015-03-13
EGUBAKOITZA
632. ZENBAKIA
15. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM



# "Gauden egoera aldatzeko une kritikoa da bizi duguna"

**Mila Elortza** | Eskubide Sozialen Kartaren lantaldeko kidea | 4

Korta bat natura ondarearen gotorleku izango da Oñatin | 8



Korrika Kulturalarekin lotutako ekimen ugari | ikus. 'Herriak' saila



Bi aramaioar Arabako Bertsolari Txapelketako finalean izango dira | 30

# Duatloi ikusgarriagoa

Probaren 24. aldia berritasun handiekin jokatuko da bihar, zapatua, Oñatin | 27



**Mikel Ruiz, Iñigo Regueiro, Jose Ramon Viana eta Miguel Angel Igartua, Oñati Triatloi Taldeko kideak.**

JAGOBA DOMINGO

# Sarrerak ia agortuta dator 'Mozkorra parregarri' oraingo aste bukaeran

- Lau emanaldi egingo dituzte, bihar eta etzi
- Bergarako udaletxeko osoko bilkuren aretoan da | 18

## Bi oñatiar Alpeetan dira, eskiatzaileen "tourrean"



Otxoa eta Galdos. AITOR OTXOA

## SINADURAK



**'Europartze' prozesua?** | 6
JON ETXEBERRIA

10 | **Garizuma**
HORAZIO ARGARATE





**Ura bizi-iturri, tarteka itogarri** | 15
MIEL GURIDI

19 | **Ondarearekin bueltaka**
KARLOS ETXANIZ





**Sexurik gabea al da aurrekontu politika?** | 21
MAIDER OTAMENDI

40 | **Kateak**
IDOIA ETXEBERRIA



DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 | HERRIAK 8 | KIROLA 27 | KULTURA 30 | GAZTEAK 33 | ZORION AGURRAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | | EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38




Guardia Zibila, Plazaolaren etxe inguruan, martitzenean. | TXOMIN MADINA

# Plazaola bilatzeko eta atxilotzeko agindupean dago, desagertuta

## Eztabaida eragin dute atxilotzera joan eta etxean aurkitu ez izanaren gaineko gertakariek

**UBANE MADERA** | OÑATI

Aste osoan zeresana eman du Alberto Plazaola *Aitto* oñatiarraren bueltan gertatutakoak.

Hura atzera ere espetxeratzea agintzen duen sententzia atera izana izan zen abiapuntua –martitzen eguerdia–, baina, batez ere, polizia atxilotzera joan zenean bere etxean aurkitu ez izanak eragin du gaiaren soka luzatzea; martitzenean 23:00 aldera joan ziren haren bila.

Hain justu, atzo, eguena, eztabaida bolo-bolo zebilen komunikabideetan, Plazaolaren desagertzearen arrazoia Auzitegi Gorenaren sententzia bizkorregi filtratu izanagatik gertatu zen iritzia zabaldu delako. Hain justu, Espainiako Barne Sailak Espainiako Auzitegi Gorenari egotzi zion Plazaolak auzitegiaren erabakia jakitetik polizia bere bila joan zenerako lau ordu eta erdiko marjina ematea Plazaolari. Are gehiago, Jorge Fernandezek, Barne ministroak, azpimarratu zuen Auzitegi Gorenaren aginduz utzi zutela libre Plazaola, kautelazko neurri barik, eta horrek eragotzi egin duela oñatiarra zaintzapean eduki ahal izatea atxilotu artean.

**Herritarren babesa**

Martitzenean 23:00 aldera Plazaolaren bila joan zenean polizia, etxean ez zuten topatu preso izandakoa. Haren etxe ondoan hainbat herritar izan ziren "utzi bakean, alde hemendik" oihu egiten guardia zibilei. Era berean, *Alberto Plazaola maite zaitugu* zioen pankarta eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzeko beste hainbat ere bazeuden.

Alberto Plazaolari eta Santiago Arrospideri Frantziako Estatuko espetxeetan egindako urteak Espainiako Justiziak ezarritako zigorretatik ez kentzea erabaki zuen martitzenean Auzitegi Gorenak, eta atzera bota zuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko Lehen Salako epaileek joan den abenduan harturiko erabakia; orduan, aske utzi zituzten bi euskal preso ohiak. Martitzenean bertan manifestazio jendetsua egin zuten Oñatin.

Une honetan, bilatzeko eta atxilotzeko agindua dago Plazaolaren kontra.

## Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Eskoriatzan aurkeztuko da Irabazi koalizioa

**L.K.** | DEBAGOIENA

Maiatzaren 24ko udal hauteskundeetarako alkategaiak gertu ditu Irabazi koalizioak. Segurua da Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Eskoriatzan aurkeztuko direla. Hain justu, apirilaren 8an aurkeztuko dituzte publikoki alkategaiak, Juan Luis Merino kideak jakinarazi duenez. Egunotan, zerrendei azken ukituak ematen dabiltza.

**Aniztasun handia**

Aurreratutakoaren arabera, denetik dago zerrendetan: erakundeetan ibilitakoak, politikan hasiberriak, gazteak, nagusiak… Tartean, baita Podemos-Ahal Dugu-ko kide batzuk ere.

## EH Bilduren programa osatzeko saioa bihar Bergaran

Bihar, zapatua, Bergarako Irizar jauregian (10:00-12:00), tokiko garapenaren, industriaren eta energia burujabetzaren gaiak landuko dituzte, bereziki. Besteak beste, ahaldun nagusi izateko hautagai Xabier Olano izango da bertan. Eta debagoiendar guztiek izango dituzte ateak zabalik.

## Enpresa eredugarria da Lazpiur, liburu baten arabera

**L.K.** | BERGARA

*Lazpiur. El modelo de una pyme ejemplar* delako liburua aurkeztu zuten eguaztenean Deustuko Unibertsitatean Pedro Gomez Danborenea kazetariak (egilea), Miguel Lazpiur enpresaburuak eta Confebaskeko idazkari orokor ohi Jose Guillermo Zubiak, hitzaurrearen egileak. Berriketaldia egin zuten, eta Gomez Danboreneak Lazpiur enpresa "praktika onen" eredu gisa ipini zuen, ez bakarrik Euskadirendako, baita Espainiarendako ere, batez ere krisi garai honetan.

Gomez Danborenearen esanetan, Miguel Lazpiur "Errenazimenduko gizona" da eta izaera "magnetikoa" du.

Miguel Lazpiurrek bere enpresaren arrakasta laburtu zuen. Pertsonekiko tratua da enpresaren izaera-zeinuetako bat: "Pertsonekin lan egiten dugu. Egunero ikusten dugu elkar eta elkarrekin saiatzen gara proiektua aurrera ateratzen".

Lazpiurrek azaldu zuen enpresak "bi planotan" egiten duela lan; batetik, "egunerokotasunari arreta", eta bestetik, era berean, "bihar egin behar dugun guztia merkatuan jarraitzeko eta arrakasta izateko. Begi bistan izan behar dugu beti etor daitekeena".




Lazpiurren gaineko liburuaren aurkezpena. | GABINETESEIS



Mila Elortza ekimena aurkezten Miguel Altuna Institutuan. | JAGOBA DOMINGO

**Mila Elortza** | Eskubide Sozialen Kartaren lantaldeko kidea

# "Kale-agerraldi ezohiko eta koloretsua izango da zapatukoa"

## Eskubide Sozialen Kartaren alde mobilizatzera deitzen dute Debagoieneko eragileek

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

Bihar, zapatua, Eskubide Sozialen Karta aldarrikatzeko kale agerraldia egingo dute. Debagoieneko batzar gehienak Bergaran izan dira, eta Mila Elortza da lantaldeko kide bat.

**Ze fasetan dago orain Kartaren lanketa?**

Lehenengo fasea izan zen Karta idaztea. Diagnostikoa egin zen: larrialdi sozial eta nazional egoera. Horren aurrean, denok batuko gintuen beheko orube bat jarri behar zen, eta bi urteko eztabaidak egin dira. Haien ekarpenak ere aztertu dira. Fase hori urtarrilean amaitutzat eman zen. Karta idaztearekin batera, eskubideak lortzeko tresnen gaineko hausnarketak jaso ziren. Orain hasi gara horiek astintzen. Aurtengo ikasturterako kanpaina horixe da: Kartatik atera den programa sozial hori sozializatu.

**Laburtuaz, zeintzuk dira zuen eskaera inportanteenak?**

Beste eredu sozial baten alde gaude. Eredu sozial hori aldatzen hasteko gizartea aktibatu nahi dugu. Lanketa txiki bat egin da ingurumen eta lan arloko taldeetatik. Gai horiekin biekin dago gehien garatuta kaleratze edo gizarteratze hori, baina orain lantegietan lan munduko gaiak jorratuko dituzte; ikastetxeetan, hezkuntza arlokoak, LOMCEren gainekoak, etorkizuneko hezkuntza eredu hori lantzen hasteko; erretiratuen arloan, jende nagusia dagoen prekarietate egoerari buelta nola eman landuko da eurekin…

**Krisian gaudenetik hainbat mugimendu sortu dira, egoerari buelta emateko. Zer du honek berezirik jendea erakartzeko?**

Momentuak daukan larritasuna. Denok onartuta daukagu krisi sistemiko global baten gaudela. Gaur egun, bankuek eta finantza sistemek agintzen digute, eta politikariak ere ez daude gure etorkizunarekin pentsatzen. Horri derrigor buelta eman behar diogu, Erdi Aroko eskubideekin geratzen gabiltzalako. Momentuak esaten du orain arte egin diren ahaleginak bidean geratu direla, eta une hau kritikoa da.

**Bihar, zapatua, kale agerraldia egingo duzue.**

Bai, eta ezohikoa izan dadin nahi dugu. Koloreak erabiliko ditugu: kolore bakoitzak sektore bat identifikatuko du, egoera bat, eta pankartak-eta izango dira sektore eta egoera guztietarako. Nahi da zerbait koloretsua egin, etorkizuna koloreekin pintatzen hasteko garaia delako. Jendea animatu nahi dut kale agerraldian parte hartzeko; benetan sinisten badugu etorkizuna gure esku dagoela, kalera irten beharra daukagu. Autobusak egongo dira eta bailarako ibilbidea ere egingo du. Ohiko lekuetan eman daiteke izena.

**Hauteskundeak datoz; uste duzu alderdiren batek jasoko duela zuen aldarrikapena?**

Asmoa hori da, eurak dira hau aurrera eramateko lehenengo arduradunak, eta benetan ez badute ardura hori hartzen herritarrek beste eredu baten aldeko borroka lideratzeko unea izango da. Bilera batzuk egin dira, eta asmoa da denekin batzartzea, honakoa herri hausnarketa baten ondorioa dela esatea eta hemendik aurrera nola jokatu nahi dugun azaltzea.

**"Gauden egoera aldatzeko une kritikoa da bizi duguna"**

# Eusko labeldun txerriarekin osatutako menuak, gaurtik

U.M. | DEBAGOIENA

Gertu dauka Debagoieneko Mankomunitateak eskualdeko Jardunaldi Gastronomikoetako eskaintza berria, gaurtik hasita.

Halakoetan ohi denez, Debagoiena bera eta bertako jakiak ezagutzera emango dituzte jatetxeetan; oraingoan, apirilaren 26ra bitartean. Bildotsekin, ardi esnekiekin eta pellekin osatutako menuak izango dituzte oinarri, orokorrean. Eta, hain justu, Etxe Aundi (Oñati), Goiko Benta (Oñati), Torrezumeltzegi (Oñati) Hilarion (Arrasate), Lasa (Bergara), Maialde (Elgeta) eta Santa Ana (Arrasate) jatetxeetan eskainiko dituzte menu berezi horiek.

Gainera, gaurtik, egubakoitza, domekara arte, martxoak 15, eusko labela duen baserriko txerriarekin osatutako menu bereziak eskainiko dituzte.

Horren guztiaren osagarri, berriz, ekintzak eta irteerak ere eskaintzen dituzte: mendi ibilaldiak, museoetara bisitak, kobetara… Informazio osoa, *ttiki.com/337677* helbidean.

# Kilometro guztiak aspaldi daude eskuratuta eskualdean

Maite Ilarduia, Debagoieneko arduraduna: "Jendeak asko maite du Korrika"

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Hamar egun barru, martxoaren 23an iritsiko da Korrika Debagoienera, eta 70 kilometro pasa egingo ditu eskualdean.

Bada, Debagoieneko kilometro guztiak adjudikatuta ditu AEK-k, aspaldi, gainera, baina azken ordukorik balego lekua egingo diote, "arazorik gabe. Betiere, jakin behar da eskualde honetan horrenbeste elkartek-eragilek-enpresak… eskuratzen dituztenez kilometroak, lekuko aldaketa sarriago egin behar izaten dela", jakinarazi du Maite Ilarduiak, Korrikako Debagoieneko arduradunak.

Edozein modutan, hortik ondorioztatzen da Korrikari dagokionez, "bailara honetan dezente partaidetza handia" dagoela eta jendeak Korrika "asko" maite duela, azpimarratu du Ilarduiak.

### Aldaketak Arrasaten

Bestalde, azken orduko aldaketa baten berri eman du hark, Arrasateko ibilbideari dagokiona: "Obrak hasi dituzte Arrasate pasealekuan, eta, horren eraginez, Garagartzatik Uribera sartzean, bertatik segituko du, ibilbide honekin: Eguzki dorrea-Loramendi kalea-unibertsitate atzea-biribilgunea. Hortik aurrera, Arrasate pasealekuaren goiko partetik joko du, alde zaharrera iritsi arte, eta gero honako ibilbide hau egingo du Arrasaten: Erdiko kalea-Portaloia-Biteri-Monte-Maala-AEK-ko biribilgunea eta Musakola. Bergararako bidea hartuko du segidan".

### Bergararra, furgonetan

Horrekin batera, Korrikaren gaineko berritasun biren berri ere eman du Ilarduiak, Debagoienarekin lotura dutenak: batetik, Korrikak erabiliko dituen bi furgonetak –Korrikaren aurrean eta atzean– Eskoriatzako Ansareo enpresak utziko ditu.

Eta bestetik, Debagoieneko koordinatzaile Maite Ilarduia bergararra bera izango da furgonetan hamar egunak pasatuko dituen zortzi lagunetako bat: "Irungo beste kide bat eta neu izango gara berriak Gipuzkoan".

Lan gogorra –14 orduko txandak dira– baina, aldi berean, zirraragarria izango dela argi du Ilarduiak. "Egia esan, dagoeneko zirrara handia sentitzen dut", dio, eta "bizi osorako" oroitzapena emango diona.

### Loaldiak herritarren etxeetan

Egitekoari dagokionez, "nork bere zeregina du, nahiz eta talde moduan guztiok izan funtzio berberak: ibilbidearen norabidea markatu, korrikalarien segurtasuna bermatu, lekukoaren irudia gorde, animatu, argazkiak atera, prentsakoei lekua egin…", esan du Ilarduiak.

Lan-jardunak luzeak izateaz gainera, ezohikoak ere izango dira: "Leku baten hasiko gara, eta bukatzen dugun tokian herritarren etxeetan lo egingo dugu, euren eskuzabaltasunaz gozatuta", nabarmendu du.

### Korrika Kulturalak

Hori guztia, baina, hamar egun barru izango da; horren aurretik, Korrika Kulturalari dagozkion azken ekitaldiak izango dira oraingo asteburu honetan (ikus *Herriak* saila).

**ARACELI HERMOSA**
GASTEIZ



"Gazteago nintzenean parte hartzen nuen; orain, korrika egiten, gutxiago, baina bestela laguntzen dut, eta alabak ere bai".

**IBAN ARANGUREN**
ARRASATE



"Normalean parte hartzen dut eta kilometro batzuk egiten ditut. Bi seme-alaba ditut, eta animatzen dira eurak ere".

**JOKIN DOLARA**
ARRASATE



"Euskararen aldeko ekitaldi garrantzitsua da. Parte hartzen dut bertan. Orain bi urte izan nintzen, eta aurten ere badut asmoa".

**XABIER ADARRAGA**
DONOSTIA



"Txikitan asko joaten ginen familiarekin eta ikastolarekin. Nagusi egitean, gutxiagotan. Baina euskara guk bultzatu behar dugu".



Gartzia, Egiguren, Carrasco, Arriola, Romero, Mendia eta Segade. | PSE-EE

# Terrorismoaren biktimen memoria aldarrikatu zuen Mendiak Arrasaten

U.M. | ARRASATE

"Ez ditugu ahaztuko alkate andre baten isiltasuna, geldi bere udaletxe aurrean gertatutako hilketa baten aurrean. Ez dugu ahaztuko hemen Isaiasen hilketa salatzeari uko egin zion Udal Gobernu bat egon zela, aldi berean herriko terroristak heroiak balira omentzea baimentzen zuen bitartean".

Berba horiek izan zituen, besteak beste, Idoia Mendiak Euskadiko Alderdi Sozialistako idazkari nagusiak joan den zapatuan, Isaias Carrascoren hilketaren zazpigarren urteurreneko ekitaldian. Orain zazpi urteko Arrasateko Udal Gobernuari erreferentzia eginez esan zituen berba horiek, hain justu.

### Bake Plana ezin onartu

Ildo beretik eta Urkulluren gobernuari erreferentzia eginez, berriz, Euskadin memorian oinarritutako etorkizun bat nahi dutela adierazi zuen. "Horregatik ezin dugu terrorismoaren biktimak ahazten dituzten diskurtsoak onartu. Ezin dugu Gobernuak aurkeztu duen Bake Plana onartu. Hainbeste sufrimendu saihesten duen plana. Euskal gizartean elkarbizitza sendotzeko momentua hau da. Euskadin garai berri bat hasteko momentua hau da. Ezin dugu aukera galdu".

Ekitaldian izan ziren, baita ere, Carrascoren alarguna eta seme-alabak, eta Jesus Egiguren, Iñaki Arriola, Denis Itxaso eta Paco Gartzia sozialistak.

## Pentsioak eta diru sarrerak bermatzeko errentak hizpide

Aretxabaletako EAJk gonbidatuta, Adolfo Alustiza Lanbideko zuzendariak diru sarrerak bermatzeko errenten gainean berba egingo du gaur, egubakoitza, 17.30ean, Basotxo elkartean. Eta Eskoriatzako EAJk gonbidatuta, Emilio Olabarriak pentsioez berba egingo du martitzenean, 19:00etan, batzokian.

## Autodrainatze linfatikoa lantzeko tailerra Bergaran astelehenetik aurrera

Martxoaren 16an, 23an eta 30ean –astelehenak– autodrainatze linfatikoaren gaineko tailerra egingo dute Bergaran, Osakidetzaren eta Katxalin elkartearen eskutik. Bularreko edo ginekologia minbizia duten emakumeei zuzenduta dago ekimena. Interesa dutenek telefono honetan eman behar dute izena: 669 66 47 12.

## Arizmendiarrietaren kanonizazioaren berri eman diote Urkulluri

Jose Maria Arizmendiarrieta kanonizatzeko prozesua sustatzen dabilen batzordea Lehendakaritzan izan zen eguaztenean prozesuaren berri ematen. Txomin Gartzia –Laboral Kutxako eta batzordearen presidentea–, Juan Manuel Sinde eta Javier Retegi egon ziren Iñigo Urkullurekin.

TXALOAK ETA TXISTUAK

# Errepidearen hainbat tramutan marrarik ez

Irakurle batek jakinarazi du nekeza egiten zaiola gauez edo prezipitazioren bat denean –euria, elurra edo txingorra– Debagoieneko errepideetako hainbat tramutan gidatzea. Arrazoia da, ondoko argazkiak erakusten duen moduan, zenbait puntutan borratuta dagoela bi erreiak bereizten dituen marra.



ANE LADERAS

## ZABALIK

**JON ETXEBERRIA**
goiena.eus/
komunitatea/



# 'Europartze' prozesua?

Laster beteko dira 30 urte Europako Batasunean (EB) sartu ginela, eta *Europartze* prozesu etengabea bizi dugu. Nabarmena da esparru ekonomikoan, irakaskuntzan eta mugikortasunean izan den eboluzioa. Arlo ekonomikoan, txanpon bateratura, Euriborrera eta halako adierazle ekonomikoetara eta Banku Zentralaren erabakietara ohitu gara. Gure enpresendako garrantzitsu bihurtu dira EBra egindako esportazioak eta gero eta murgilduagoak daude berrikuntzazko proiektu europarretan. Irakaskuntzan ere Bolognako prozesuak goi mailako irakaskuntzaren eremu europarra ekarri digu, eta gradu eta masterrak. Erasmus-i esker, ikasle ugari joaten da Europako punta guztietara –Eskola Politeknikoa aitzindari izan zen GOIER bekei esker–. Mugikortasunari lotuta, Europa barneko mugak desagertu ziren –eta pasaporteak erabili beharra– eta hizkuntza trebatzeko udako egonaldiak ugaritu dira, baita gazteen oporretako bidaiak; zelako oroitzapen ederrak ekarriko dizkion bati baino gehiagori *InterRail* hitzak!

Baina badirudi gure zenbait ohitura ere aldatzen ari direla; horrela uste du zenbaitek. Egunkari baten irakurri nuen azken urteetan Donostiako gau giroa asko jaitsi dela. Ostalariek krisiari egozten zioten errua, baina orain, ohitura aldaketa sakon bat ote dagoen beldur dira, eta *Europartzen* ari garela aipatzen zen artikuluan. Gau giroaren jaitsieraren inguruko komentarioak eta iritziak ez dira Donostiara bakarrik mugatzen, gure herrietan ere ohikoak dira. Aldaketa horren arrazoia kanpoko kulturen eragina ote den edo sosen gabezia ez da gai erraza, eta mundua konpontzen saiatzen garen parranda gau horietako baterako gai bikaina izan daiteke.

## MARRAZKIZ

**UNAI BUSTURIA** | goiena.eus/komunitatea/



## GUTUNAK

### Argazki desenfokatuak enfokatuz

**Ibai Redondo**
(Debagoieneko EH Bildu)
Debagoiena

Milaka haur pobrezia egoera larrian; gazteen %50 baino gehiago langabezian; 130.000 herritar iraupen luzeko langabezian; lan baldintzen kaxkartzea eta soldata prekarioak; emakumeek gizonek baino %33 gutxiago irabazten dute; lurraren okupazioa eta ingurumenaren kutsadura maila altuak;… Txina? Peru? Grezia? Ez. Euskal Herria da. Hori da desenfokatu nahi duten argazki soziala.

Badago alternatibarik? Inor badago alternatibak lantzen? Bai, noski. Dozenaka eragile sozialek eta milaka herritarrek parte hartu dute auzolanean Eskubide Sozialen Kartaren eraikuntzan. Krisi sistemikoa gainditzeko alternatiba erreala osatu dute. Pertsona, eragile, alderdi politiko edota instituzio gisa enbidoa bota digute Kartaren egileek: eskubide sozial guztiak bermatzeko hamaika egiteko ditugula eta larunbatean Bilboko kaleak jendez betetzeko.

Asko dugu egiteko eta oztopo handiak ditu justizia sozialak Euskal Herrian: banketxe eta multinazionalak; haien zerbitzura lan egiten duten instituzioak; Adegi bezalako patronalak eta estatu espainolaren eta frantsesaren inposizioak. Munduko herritarrak botere ekonomikoen menpe bizi gara; euskaldunak, gainera, estatuek ere zapaltzen gaituzte, ezin ditugu arlo ekonomiko eta sozialean gure erabakiak hartu. Baina haiek baino askoz gehiago gara justizia sozialarekin irabazten ateratzen garen herritarrak, bakoitza berean eta denok batera ekiteko garaia da, botere ekonomiko eta estatuen aurrean burujabetza eta eskubide sozialak lortu behar ditugu.

EH Bildu ere borroka horretan ari da buru-belarri, hanka bat instituzioetan –proiektu eraldatzaileak parte hartze bidez garatuz– eta beste bat kalean –herri mugimenduekin mobilizatuz–. Kalean lortzen ez duguna instituzioetan lortzea ezinezkoa delako, kalean mobilizatu eta borroka egitea ezinbestekoa da.

Larunbatean Bilbon izango gara, Euskal Bidea justizia sozialerako bidea ere badelako. Guztia erabaki nahi dugu Euskal Estatua eraiki eta guztia aldatzeko. Mundua aldatzen, gure buruetatik, gure etxetik, gure herritik hasi behar dugu.

### Oñati 2050

**Iñaki Idigoras**
Oñati

Oñatiko Natur Eskolia egitten dozueinoi milla esker.

Milla esker egitarau eta hizlarixen aukeraketa eta integraziñuagatik. A zelako jardunaldixak izan dittugun kultur etxian. Borobila. Egon naizen bostek emozionau egin naue. Mezu berak, oinarrixan: antropozentrismua eta administraziñotan erabagixak hartzen dittuzten politikuekiko desesperaziñua, nekia. Baitta inflexiño puntu batian gauzen sentsaziño garbixa be.

Auzoko Kikokin hasi, "gure pandak" desagertze arriskuan dauzen etxeko espezieekin, eta ondoren trilogia ezin interesgarrixagua, tartian Sebastiao Salgadoren biografia jasoten dauen *Lurraren gatza* dokumentalarekin. Desagertze arriskuan gu geu gauz.

Trilogia:

(1) Gure Aimarrek energia eta gizatasuna lotu zittuan: nola ordena, klase sozialak be, energia bidez mantentzen dan.

(2) Roberto Bermejok natur ekosistemak gure biziraupenerako inspirazio iturri bakar bezala erakutsi doskun, horretarako pentsalari eta zientifiko puntakuenen teorixak integratuaz.

(3) Iñaki Antiguedadek, behingoz ura aparkatuta, hitzen esanahixetatik haratago, definiziñuan konkretaitteko eskatu dosku. Txantxikuarroi gaixa mahai gaiñian ifiñi be bai: Oñati 2050, atzekoz aurrera (bertsoeran). Gomendixo batekin, gainera: bi fokotako betaurrekoz begiratuta egitteko: 2050ean zer, bihar zer.

Hel*burua*, hel*bidea*.

Elkarlanian bertso hau osaketako desiaitten nau ni. Batzerik gura dozu? Eta gainerako debagoiendarrok, fraktal eran? Gazteak baleki, zaharrak baleza. Aniztasun biharra daku, ezker eskuin be.

Eskerrak kontzientzia zabalketan laguntziagatik. Natur Eskolakuok, biba zuek! #KontzientziaAlaInfernua, Latzen.

### Goizeko 6etan ez!

**Larraitz Vazquez**
Arrasate

Musakolan dagoen Legarra plazako bizilagun bat naiz.

Auzo horretan bizi garenok egoera jasangaitza sufritzen ari gara: egunero goizeko 6etan etxe aurretik kaleak garbitzen dituen ibilgailu bat pasatzen da, izugarrizko zarata ateraez.

Horrela ezin gara bizi! Etxeko guztiak esnatzen gaitu, 2 urteko alaba beldurrez esnatzen da. Bada denbora bat Udalaren webgunean kexa bat idatzi nuela, eta berdin jarraitzen dugu. Zer egin behar dugu honek horrela jarraitu ez dezan?

Nahikoa da, goizeko seiak lo egiteko ordua da!

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Ezingo dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun, gutun bakarrarekin baizik.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria




**PUNTUA**

GOIENAREN ALDIZKARI BERRIA 4.050 ETXETAN JASOTZEN DUTE DAGOENEKO.
JASO ZUK ERE ASTERO, URTEAN 55 EURO ORDAINDUTA*:
***943 25 05 05** edo **Puntua.eus** edo Whatsapp: **688 69 00 17***




goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

*GOIENA KLUBEKO BAZKIDEOK EZ DAUKAZUE ESKATU BEHARRIK.

# HERRIAK




Arrionako, Arenarritzako eta Elorrolako kortak Iturrigorriko basoaren barruan. | OÑATIKO UDALA



GOIENA

**OKIL BELTZA** Europako okiletan handiena da eta Euskal Herrian aurki daitezkeen gainerako okilen tamainaren bikoitza du. Lumaje guztiz beltza du, burugain gorriarekin. Zuhaitz handi eta zahardun basoei loturiko espeziea da, eta Euskal Herrian du bere hegoaldeko muga, espezie kontinentala baita.

OÑATI

# Elorrolako korta, natura ondarearen gotorleku

- Iturrigorrin dagoen lur eremua erosi du Oñatiko Udalak, hura babesteko
- Artzaintzarako erabiltzen ziren gune zirkularrak dira horiek

**MIREN ARREGI** | OÑATI

Iturrigorrin dagoen Elorrolako korta erosi du Oñatiko Udalak. Urtarrileko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak aho batez korta erostea, eta halaxe egin du: 30.000 euroko kostua izan du erosketak, eta, Udalaren izenean gauzatu bada ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak ahalbidetu du diru hori. Hain zuen ere, Aldundiak, korta eskuratzearen garrantziaz jabeturik, horretarako baliabideak eskaini dizkio Udalari.

Iturrigorriko Elorrolako korta Herri Onurako Mendiaren eremuan dago. Hain zuzen ere, Iturrigorriko basoa bere hedadura osoan dago Kontserbazio Aktiboko Eremu izendatuta. Gune horiek aktibitate eta interes kultural zein natural handiko eremuak dira eta bitxitasun botaniko eta geomorfologiko ugari dituzte eta ekologikoki oso hauskorrak dira; horrenbestez, babes maila handia behar dute. Hala, Elorrolako kortaren balioaren jakitun, esandako moduan, Oñatiko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin egin du erosketa.



Elorrola, Iturrigorriko eremuan. | OÑATIKO UDALA

## Korta, egoera desegokian

Sarbide txarra du Elorrolako kortak. Larizio pinuak landatu zirenetik mantentze-lanak apenas egin dira, eta, hori dela eta, basoaren ustiaketaren ikuspegitik zuhaitzen egoera desegokia da: elurragatik zuhaitzak kaltetuta daude, hildako zuhaitz asko dago... Eta, hain zuzen ere, horrek, baso ustiaketarako desegokia den egoera horrek, baldintza egokiak sortzen ditu hainbat ornodunendako. Ornodunendako ez ezik, hegaztiendako ere bai; izan ere, okil beltza ikusi dute bertan.

Hortaz, biodibertsitatearen kontserbazioaren ikuspuntutik eta arriskuan dauden espezieen kontserbazioaren ikuspuntutik interes handia du egun Elorrolan dauden pinu landaketak daudenetan uzteak. Modu horretan, zuhaitzak botatzeak ekarriko lukeen kaltea bertan behera geldituko litzateke, eta habitat egokia izateko aukerak handitu. Esandako moduan, Elorrolako korta erosita, aurreikusitako baso ustiaketa bertan behera utziko du Oñatiko Udalak; helburua da, gerora, bertan dauden espezieen kontserbaziorako ekintzak egin ahal izatea.

Izan ere, Elorrolako korta oraindik sakontasunez ikertu barik dago; edozelan ere, esandako moduan, interesekoa da biodibertsitatea babesteko ikuspuntutik.

## Beste bi korta

Carlos Martinez de Irujoren jabetzapean egon da Udalak erosi duenera arte Elorrolako korta. Iturrigorriko basoak hiru korta ditu: Elorrolakoa eta Carlos Martinez de Irujorenak diren beste bi, Arrionako eta Arenarritzako kortak, hain zuzen ere. Urtarrileko osoko bilkuran, Elorrolako korta erostea onartu zenean, EAJk proposatu zuen beste korta bat eskuratzeko negoziazioei ekitea. Hala egitea onartu zuen udalbatzak.

## Korten ezaugarriak

Korten lehen erreferentziak XII. mendekoak dira. Artzaintzarako erabiltzen ziren gune zirkularrak ziren kortak. Erdigunean mugarri bat izaten zuten eta lurralde antolaketaren oinarria izan ziren. Normalean, herri-lur izan ohi ziren, baina XIV. mendean, esaterako, baziren jabetza pribatukoak ziren kortak ere. XV. mendean horietako asko baserri izatera pasatu ziren.

Artzaintzarako erabiltzen ziren lursailak izanik, kortek beharrezko izaten zituzten, batetik, bazkarako larreak, animaliek edateko ura, bestetik, eta zuhaitzak, azkenik, animaliak babestu zitezen.

# Barrutik zein kanpotik, hobera egin du nabarmen Makatzenak

## Hezetasun eta isolamendu arazoak konpondu dituzte, eta auzoa irisgarriagoa da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Obrak egin osteko lehen negua igaro dugu eta hobekuntza nabarmena da. Lehen etxe barruko berotasuna izugarri galtzen zen eta orain ez daukagu galerarik. Energia kalifikazio askoz hobea lortu dugu eta kanpoko itxurari dagokionez ikustea besterik ez dago lehengo eta oraingo itxura. Irisgarritasun aldetik ere asko irabazi du auzoak". Makatzena auzoko bizilagunen komisioko kide Aritz Muruaren hitzak dira, auzoan 2013ko abenduan hasitako eraberritze lanak eragindako aldaketaren gainean berbetan.

**Aurrekari gabeko laguntza**

Eusko Jaurlaritzaren Revive planari esker egin dira lanak auzoan dauden 17 eraikinetatik zortzitan –beranduago beste bi eraikin ere sartu dira; horietan lanean dihardute orain. Suradesak eskatuta, Jaurlaritzak aurrekari gabeko laguntza ekonomikoa eskaini zuen Revive plan horren bidez, 1,8 milioi euro pasatxokoa –gehienez 15.000 euroko laguntza etxebizitzako, lanen %50. Hori ezinbesteko laguntza izan zen bizilagunei proiektu osoaren kostua, ia 3,6 milioi eurokoa, gainditzeko. Etxeen hezetasun eta isolamendu arazoak konpondu dira, kontsumo maila txikiak ematen dituen C energia kalifikazioa lortu da, hainbat oztopo arkitektoniko kenduz irisgarritasuna nabarmen hobetu da eta etxeetako auto-aireztapena bermatu da, besteak beste.

Era berean, gas propanotik gas naturalerako aldaketa ere egin dute: "Gas Naturalek esan zigun obra eurek ordainduko zutela, bizilagunen gehiengoak babestu ostean eta gutxienez urtebetez zerbitzua ematearen truke. Zenbakiak ikusi eta asko aurrezten genuela ikusita, ia guztiek onartu zuten aldaketa; bada, aurrera. Obra nagusiarekin batera egin da gas naturalaren instalazioa, modu koordinatu baten", gogoratzen du Muruak. Bestalde, proiektuan sartu ez direnen auzia ere azaldu du Muruak: "Jaurlaritzaren irizpidea izan zen. Etxadi osoak izan behar ziren obran sartzen zirenak; sartu ez zirenetako bi dira orain obretan daudenak beste laguntza bati esker".

**Udalaren laguntza eta babesa**

Lan batzuk egiteke daude, azken ukituez gain: *2 bis* eraikineko igogailua, auzo barruan dagoen arrapala berezia eta Makatzena kalearen atzealdeko errepidea. Azken lan horretarako, hasieratik egin moduan, Udalak laguntzen jarraituko du ahal duen heinean. Aurtengo udal aurrekontuetatik 73.000 euro bideratuko dira errepide zati horretako arazoa konpontzeko. Auzoko obra osoa amaitu behar da lehenago eta udazkenean hasiko dira errepideko lanak.

Muruak Jaurlaritzaren zein Udalaren laguntza eskertu du: "Ahalegin garrantzitsuak egin dituzte obra errealitate bihur dadin. Oraindik badago zer egin, baina ziur dena ondo irtengo dela". Esaterako, proiektu bat badago Hondarribia kaletik Makatzena auzoa igogailu publiko batekin lotzeko.



Aritz Murua, eraberritu den eraikinetako bat atzean duela. | JOKIN BEREZIARTUA



Gas propanoaren depositua; naturala jarri denez, laster kenduko dituzte. | J.B.

ESANAK

**"Obren osteko lehen negua igarota, itzela izan da hobekuntza; irisgarritasuna eta itxura ere, hobera"**

ARITZ MURUA | BIZILAGUNEN KOMISIOA

# Eneko Barberena izango da EH Bilduren alkategaia

## Herri programa eta zerrenda osatzen dihardute; martxo amaieran edo apirilean jakinaraziko dituzte

T.M. /J.B. | ARRASATE

Eneko Barberena (Arrasate, 1983) izango da EH Bildu koalizioak maiatzeko udal hauteskundeetan aurkeztuko duen zerrendaburua. Zuzenbidean lizentziaduna, egun, Txatxilipurdiko zuzendaria da Barberena. Koalizioaren alkategaiak pozik hartu du bere hitzetan "ohorea eta erantzukizuna" esan gura duen izendapena. Pozik, baina baita errespetuz eta zuhurtziaz ere. Lanerako grina eta gogoa agindu ditu Barberenak, eta herriko egoeraz galdetuta, dio indarguneak zein ahulguneak dituela: "Arlo batzuetan ondo egin da lan eta ildo horretatik jarraituko dugu. Beste batzuetan, berriz, kezka badugu. Adibidez, langabezia tasa altuan; Euskal Herri osoko egoera izan arren, Arrasaten tokatuko zaigu horretan ere lan egitea".

**Programa eta zerrendak lantzen**

Asteleheneko herri batzarrean berretsi zuen EH Bilduk alkategaia, baina koalizioak herri-programa lantaldetan lantzen eta gainerako zerrenda osatuko duten izenak zehazten jarraitzen du oraindik. Barberenaren arabera, espero dute martxo amaieran edo apirilean ematea horien berri. Udal hauteskundeetara begira, alkategaiak dio azken lau urteetan "lan ona" egin dela eta egindakoaz "harro" daudela, eta gaineratu du koalizioa itxaropentsu dagoela: "Proposamen interesgarriak eta zehatzak aurkeztuko ditugu, ez soilik kontsigna multzo bat. Ilusioz eta itxaropenez aurkeztuko gara, zalantza barik".



Eneko Barberena, Txatxilipurdiren egoitzaren atarian, martitzenean. | TXOMIN MADINA

# 'Musatxotx'-a, arrakastatsua

Musakolako jai batzordeak antolatuta, 170 lagun elkartu ziren hilaren 7an Urnietako Oianume sagardotegira joateko. Eguraldia lagun, Donostian goiza igaro eta gero Urnietarantz joan ziren bapo bazkaltzera. Urteroko hitzordua da *Musatxotx*–a dagoeneko; horren proba da hiru egunean amaitu zirela salgai jarritako txartel guztiak.



MUSAKOLAKO JAI BATZORDEA

## Osasun zerbitzua euskaratzeko, 'kexa poteoa' gaur Jai Zalen

Osasun arloan hizkuntza eskubideak errespeta daitezela eskatu eta osasun arreta euskaraz lortu ahal izateko, *kexa poteoa* antolatu dute Aitor Montes medikuaren eta Garazi Sagasta erizainaren ekimenez gaurko, hilak 13, Jai Zale tabernan. *Arrasaten guk euskaraz, ospitalean zergatik ez?* eta *Euskaraz sendatu nahi dut* aukeratu dituzte lelo moduan. Jai Zalen elkartuko dira, 14:00etatik 19:30era: "Norbera gura duenean etor dadila", esan dute antolatzaileek.

## Olagarroaz gozatzeko aukera domekan Musakola auzoan

Musakolako jai batzordearen eskutik, olagarroa dastatzeko aukera egongo da domekan erretiratuen plazatxoan, San Isidro elizaren ondoan. Goizetik hasi eta eguerdira arte, bost eurotan jarriko dituzte salgai olagarro platertxoak eta euro baten, berriz, ardo kopak; musikarik ez da faltako. Era berean, jai batzordeak aditzera eman du San Isidro jaietarako kamiseta berriak bertan jarriko direla salgai, 12 eurotan: "Adi ibili, kamisetak laster agortuko dira-eta", diote.

# Hiri autobusaren lehen araudi propioak irisgarritasuna bermatzea du lehentasun

Erregelamendua bihar jarriko da indarrean; esaterako, mugikortasun murriztua dutenei erreserbatutako plazak erabiltzen ez uztea arau-haustea izango da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Autobus urbanoak ez du erregelamendu propiorik izan orain arte, baina Udala Gipuzkoako Garraio Agintaritzan sartu zenean konpromisoa hartu zuen garraio publikoko zerbitzuaren araudia harmonizatzeko egokiak diren jarduerak hasteko. Hortik dator, hain justu, bihar indarrean jarriko den araudia sortzearena. Udalaren arabera, erregelamendu hori idazteko orduan, zuzenean eragiten dien taldeek parte hartu dute; besteak beste, ezinduek, txirrindulariek eta familia ugariek. Araudia idazterakoan bereziki hartu dira kontuan irisgarritasuna bermatzea eta mugikortasun murriztua duten pertsonak.

Horrekin lotuta, esaterako, mugikortasun murriztua dutenei erreserbatutako plazak okupatzen ez uztea erabiltzaileen zein gidarien arau-hauste bezala tipifikatuko da. Bestalde, bizikletak sartzeko aukera dago, azoka egunetan izan ezik –eguaztenean eta egubakoitzean, 09:00etatik 13:00etara– eta bizikletak uzteko lekua egonez gero; tolestutakoak eskuko ekipajetzat hartuko dira. Txakurrek jabearen ondoan, lotuta eta bozalarekin –txakur arriskutsurik ez– joan beharko dute. Agindu orokor moduan, Udalak jakinarazi du autobusean sortzen den edozein zalantza edo eztabaidaren gainean gidariaren irizpidea nagusituko dela.



Hiri autobusa Otalora kalean, ume-kotxe batendako plataforma jaitsita. | J.B.

# Arrasate Ahal Dugu-ren saioa bihar goizean Kulturaten

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Ahal Dugu-Podemos taldeak biltzar konstituziogilea egingo du bihar goizean Kulturateko Loramendi gelan, 10:30etik 13:00etara. Biltzar eratzaile horretan parte hartzeko deia luzatu diete arrasatearrei: "Proiektuarekin hasten ari gara, eta herriarekin konprometitutako pertsonak behar ditugu, ekiteko gogoa eta proposamenak dituztenak. Gure herria aldatzeko mugimendu bat izan gura dugu, non guztiek parte hartu ahal izango duten, iritzia emanez. Gure helburua da Arrasateko egoera hobetzeko ahalmena arrasatearren erabakien eskutan jartzea". Otsail hasieran hasi zuten ibilbidea, pentsatuta Arrasaten badagoela Ahal Dugu-Podemos moduko talde bat sortzeko "beharra".

# Kroseko saria, Emakumeen Egunean

**Santamasetako krosean azkarrena izan zen emakume kuadrilla Emakumeen Egunaren bueltan elkartu zen irabazitako bildotsaz gozatzeko. Herriko elkarte gastronomiko baten bazkaldu zuten: "Aurten berriro!", diote.**



GOIENA

## 'Erizaintza laguntzaileak gaur' jardunaldiak hilaren 24an egingo dira, zazpigarren urtez

KOMUNITATEA GOIENA
ARIZMENDI IKASTOLA | ARRASATE

Zazpigarrenez antolatuko ditugu Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketatik *Erizaintza laguntzaileak, gaur* izeneko jardunaldiak. Aurten, *Garuneko kalte hartua, bizimodu berri baten hasiera* gaia jorratuko dugu; martxoaren 24rako antolatu ditugu jardunaldiok, ohi moduan, Kulturaten. Bertan zazpi hizlari izango dira, askotariko gaietan adituak direnak: errehabilitazio medikuak, logopedak, neuropsikologoak…

Aurreko urteetan bezala, bi atal izango ditu jardunaldiak: goizean hitzaldien eta, beraz, arlo teorikoaren txanda izango da. 09:00etatik 13:45era iraungo du arlo teorikoak. Arratsaldean, 16:00etatik 18:00etara, tailerrak egingo dira, goizean zehar ikasitakoa praktikan jartzeko.

**Izen-ematea, hilaren 20ra arte**
Izena emateko epea martxoaren 20ra artekoa da, datorren egubakoitza. Izena eman eta parte hartzeko interesa duenak Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketaren webgunean egin dezake *(www.arizmendipro.eu)* edo posta elektroniko bat idatz dezake honako helbide eletroniko honetara: *lanbide@arizmendi.ikastola.net*.

Telefonoz ere eman daiteke izena: 943 77 20 25 zenbakira deitu beharko da.

## AGAKOk gaztetxea sagardotegi bihurtuko du, egun batez, bihar

Sagardotegia ekarriko du gaztetxera bihar Arrasateko Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatuak (AGAKO). Sagardo-kupel bat ekartzeaz gain, sagardotegietan ohikoa den menua eskainiko dute. Sarrerak eguaztenera arte egon ziren salgai, 25 eurotan; hainbat lagun elkartzea espero dute.

## Bastida akademian %100 lagundutako hainbat ikastaro

Lanbidek diruz lagundutako hainbat ikastaro eskaintzen ditu Bastida akademiak langile zein langabeendako. Askotariko ikastaroak daude eta eskola guztiak astelehenetik egubakoitzera izango dira. Ikastaroen gaineko informazio gehiagorako edota izena emateko: 943 79 35 33.

NIRE USTEZ



HORAZIO ARGARATE

## Garizuma

Azkenaldi honetan, Estatu Islamiarrak sortutako Kalifatoa erlijioek aurkeztu dezaketen aurpegirik itsusi eta gorrotagarriena azaltzen ari da: bortxaketak, bahiketak, gerratea, suntsiketak, eta abar. Hitz batean esanda: fanatismoa. Beste behin, askatasun erlijiosoaren eskubideak bere baitan daraman gatazka agerian jartzen du: erlijioaren gaian eremu publikoaren eta pribatuaren arteko mugak ezartzeak etengabeko sesioa dakarrela gizartean, nahiz eta sesio hori bera gizartearen osaketan onuragarria izan.

Buruketa hau irakurtzen duzuen askok, aspaldiko gauza badirudi ere, ondo dakizue horrenbeste urte ez direla pasatu lehenengo garizuma eta Aste Santua ezagutu zenutenetik.

Gizartearen bizitza osoa kristau sinesmenaz kutsatuta baldin bazegoen, aipatutako urteko sasoi horretan dena erlijioaren arauaren barruan kokatzen zen. Erlijioa eremu publikoaren jabe bihurtzen zen.

Gaur egun, fededun garenok garizuma aldiari garrantzia ematen jarraitzen dugu, eta kulturaren jariotik kontra egin behar badugu ere, Jesusen ebanjelioa nahiz etxe barruan nahiz kalean, koherentziaz bizitzen saiatzen gara.

Kristau bakoitzak duen jokaerak aldatuko du fedea gizartera. Denon askatasuna lorpen handia da. Begi bistan da garizuma ramadana ez dela.

**"Kristau bakoitzak duen jokaerak aldatuko du fedea gizartera"**

arbolapeta
arrasate
beinke

Sili Sili
Martxa eta estilo handiko arropa
Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Lore
LURRINDEGIA
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Isasiren mutilak Mojategin. | IMANOL SORIANO

# Errugbizaleek Mojategi betetzeko ordua

## Bigarren sailkatuaren aurka jokatuko dute Isasiren mutilek

J.D./M.B. | ARRASATE

Denboraldia borobiltzeko eta lehen postua ziurtatzeko berebiziko garrantzia izango dute hurrengo bi partiduak Igor Isasiren mutilentzat. Datozen bi jardunaldietan bigarren eta hirugarren sailkatuen aurka jokatuko dute, eta, lidergoa mantentzeaz gain, liga ia erabakita uzteko aukera izango dute arrasatearrek.

Bihar, zapatuan, 16:00etan, bigarren sailkatuaren aurka neurtuko ditu indarrak Kanpanzar ARTk, eta arrasatear errugbizaleei Mojategi betetzeko dei egin diete. Uribealdea taldearekin hamar puntuko aldea dute etxekoek, eta, zapatuko partidua irabaziz gero, alde nabarmena lortuko dute, azken lau partiduak konfiantza eta lasaitasun handiagoarekin jokatzeko.

**Garagardoa zaleendako**

Lehen postua ziurtatzea baino gehiago egongo da jokoan, baina; Isasiren mutilek galdu duten partidu bakarra Uribealdearen aurka izan zen lehenengo itzulian, eta 50-5eko emaitzak "min handia" egin zien arrasatearrei. Beraz, Mojategiko norgehiagokak errebantxa kutsua izango du eta jokalariak "oso motibatuta" daudela esan du Isasik.

Jokalariei harmailatik bultzada emateko deia zabaldu dute taldekoek, eta jokalariek garagardoa erosiko dute Mojategira doazen zaleentzako.

ESANAK

**"Ligan partidu bakarra galdu dugu eta euren aurka izan da; errebantxa gogoa dute jokalariek"**

IGOR ISASI | ENTRENATZAILEA

## ZALDIBAR

**SAILKAPENA**

| TALDEA | P | J |
|---|---|---|
| **1.** Dribling 2.0 | **34** | **13** |
| **2.** Aldatz | **30** | **13** |
| **3.** Sonografos | **27** | **13** |
| **4.** Abokajarro | **27** | **13** |
| **5.** Jibaros F. C. | **24** | **13** |
| **6.** Alytis 2.0 | **23** | **13** |
| **7.** Lasagabaster | **22** | **13** |
| **8.** Haizea's weah | **17** | **13** |
| **9.** Betrayer | **17** | **13** |
| **10.** Ostantz | **16** | **13** |
| **11.** Drink Team | **8** | **13** |
| **12.** Arrasate Taberna | **7** | **13** |
| **13.** Kantzerlauten | **5** | **13** |
| **14.** Iluntz | **0** | **13** |

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Sonografos - Kantzerlauten | **5-4** |
| Arrasate Taberna - Aldatz | **1-6** |
| Abokajarro - Haizea's Weah | **3-4** |
| Ostantz - Jibaros F.C. | **2-5** |
| Alytis FK 2.0 - Drink Team | **4-2** |
| Betrayer - Alytis FK 2.0 | **6-4** |
| Lasagabaster - Jibaros F.C. | **7-3** |
| Haizea's Weah - Sonografos | **3-9** |
| Dribling 2.0 - Aldatz | **3-3** |

**PARTIDUAK (KOPA)**

MARTXOAK 14, ZAPATUA

**11:00** (1) Betrayer - Sonografos / **Antolakuntza**
**12:00** (2) Lasagabaster - Dribling / **Antolakuntza**
**17:00** (3) 1-ko irabazlea- 2-ko irabazlea / **Antolakuntza**

## Zazpigarren garaipena jarraian lortzera doaz Mondrakoak Zestoara

J.D. | ARRASATE

Entrenatzailea aldatzearekin batera Mondrako jokalarien errendimenduak nabarmen egin du gora, eta, jadanik sei garaipen jarraian lortu ostean, asteburuan bolada onari eutsi nahi diote Zubiaren mutilek.

Zestoara joango dira arrasatearrak, sailkapeneko alde erosoan dagoen aurkariaren etxera. Arrasatearrak hirugarren postuan daude, 42 punturekin, eta, lehen postua urrun badute ere –Getariakok 56 puntu ditu–, bigarren sailkatua –Mutriku– garaipen bakarrera dute eta aukera aprobetxatzera doaz.

**Denboraldiari buelta**

Mondrako jokalariek denboraldia kaxkar samar hasi bazuten ere, buelta ematea lortu dute eta liga amaitzeko falta diren zortzi partiduak finalak izango dira Zubiaren mutilentzako. Bolada onean dago taldea, eta, horrek puntuak lortzeko indarra emango dien arren, oraindik ere gogor jokatu beharko dute.

Jokalarien lan eta jarrerarekin "oso pozik" dago entrenatzaile berria eta partiduak irabazten jarraitzeko gakoa "intentsitatean" egongo dela azpimarratu du. Orain, horrela jarraitu beharko dute.

## Santurtzira doaz Larreategiren mutilak bi puntuak eskuratzera

Azkenengo partidua liderraren aurka etxean galdu ostean, Santurtzira joango dira Larreategiren mutilak beste garaipen baten bila. Arrasatearrak sailkapeneko hirugarren postuan daude, 10-8ko balantzearekin, eta Santurtzikoak zortzigarren, 9-9ko balantzearekin; beraz, oso partidu gogorra izango da. Bi taldeak azken norgehiagoka galtzetik datoz eta gogor kantxaratuko dira, gakoa defentsako lanean egongo dela jakinda. Denboraldia amaitzeko zortzi partiduren faltan, hasierako helburua lortzear daude arrasatearrak: datorren urtean ere EBA mailan lehiatzea.




## Kontxi Tamayo

Dermatologoa eta Espainiako Dermatologia eta Benereologia Akademiako kidea

### "Aknea tratatzeko alternatiba eraginkorra eta segurua da Ellipse"

Aknearen zergatiaren gainean hainbat mito daude. Batzuen arabera, txokolatea edo frijituak janez gero, akne intzidentzia handiagoa da; beste batzuen arabera, higiene txarra da aknearen eragile zuzena. Biak ala biak oker daude. Gure gorputzak hormona androgeno bat sortzen du, horrek sebo-guruina estimulatzen du eta sebo bezala ezagutzen dugun substantzia sortzen du. Sebo gain-ekoizpenak poro buxadura sortzen du eta horrek P.acnes bakterioaren hedapena laguntzen du. Faktore horien guztien ondorioz sortzen dira grano mota ezberdinak eta puntu beltzak.

AKNEAREN TRATAMENTUA



LEHEN | ORAIN

**Nolakoa da tratamenduaren funtzionamendua?**

Ellipse (I2PL & Laser) sistema aknea murrizteko beharrezkoa den argi aproposa erabiltzen duela ziurtatzen duen sistema bakarra da. Horrela, azaleko ondorio kaltegarriak saihesten dira.

**Nori dago zuzenduta?**

Hanturazko aknea dutenak dira paziente aproposenak; grano gorri eta mardulak dituzten pazienteak, hain zuzen.

**Zeintzuk izango dira pazienteak espero beharreko emaitzak?**

Ikerketen arabera, Ellipse sistemarekin tratatutako pazienteek krema edo gel antibiotikoekin bakarrik tratatutako pazienteek baino hobekuntza dezente handiagoa dute epe motzagoan. Antibiotikorik hartu ezin duten edo hartu nahi ez duten pazienteentzat aproposa da.

"Aknea tratatzeko antibiotikorik hartu ezin duten pazienteentzat alternatiba da Ellipse (I2PL & Laser) sistema"

"Azaleko ondorio kaltegarriak saihesten dira Ellipse sistemarekin"

**Mingarria da?**

Paziente gehienen arabera, sentsazioa hondartzan eguzkia hartzen egun bat eman ostean sentitzen den beroaren antzekoa da. Ez da anestesiarik behar.

**Zenbat irauten du, normalean, tratamendu batek?**

Saioen iraupena 5 eta 20 minutu artekoa da, tratatu beharreko zonaren araberakoa. Akne tratamendu ohiko batek 2tik 5 saiora behar ditu, hiru astean behin.

**Kontxi Tamayo dermatologoa**

**ZUATZU klinika**
(egungo EDERSALUD klinika)
**Nafarroa etorbidea 4, behea**
(anbulatorioko biribilgunean)
**ARRASATE**
**Tel.: 943 79 20 18 // 620 12 48 43**

- **Azaleko minbiziaren diagnostiko goiztiarra eta lunarren kontrol digitaleko unitatea**
- **Kirurgia dermatologikoa**
- **Laser tratamenduko unitatea: eguzkiak eta adinak eragindako azalaren orbanak eta gorriuneak ezabatzea, azazkaletan ondoak... laser depilazioa**
- **Estetika dermatologikoko unitatea: azal edo zimurren betetzeak azido hialuronikoarekin, botoxa...**


Kulturateko aretoa lepo bete zen film laburren emanaldiak ikusteko. | IMANO GALLEGO

# Korrika Kulturala abian

Olinpiadak eta bazkaria egingo dituzte bihar, zapatua, Biteri plazan

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE
Martxoaren 23an helduko da Korrika Arrasatera, baina dagoeneko hasi dira motorrak berotzen herrian. Atzo, eguena, film laburren emanaldia egin zuten Kulturaten. Euskaltzaleen Topaguneak prestatzen duen film laburren zirkuituaren barruan zortzi labur eman zituzten; tartean, Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen*, Kepa Errastiren *Aitona Mantangorria* eta Asier Altunaren *Zela Trovke*. Kulturateko aretoa lepo bete zen film laburrak ikusteko.

**Biteriko horma margotuko dute**
*Mondrahaldun!* olinpiadak izango da hurrengo ekintza. Bihar, zapatua, egingo dituzte, Biteri plazan, 12:00etan. " Korrika girotzeko eta euskara gure hizkuntza dela ospatzeko olinpiadak egingo ditugu. Adin tarte barik, gura duten guztiek parte har dezakete", esan du Debagoieneko Korrikako arduradun Maite Ilarduiak. Askotariko probak egingo dituzte: artaburu proba, sokasaltoa, zaku lasterketa eta arrautza eta koilararena, besteak beste. Seiko taldeek parte hartuko dute. Ahal dela, talde parekideak izan daitezela eskatu dute. Interesatuek olinpiada hasi arte eman ahal izango dute izena.

Biteri ingurua girotzeko, txalapartariak, trikitilariak, konpartsa eta erraldoiak eta batukada egongo dira. Olinpiadak jokatzen diren bitartean, horma-irudia egingo dute Biteriko paretan.

Goizeko festaren ostean, bazkaria egingo dute guztiek Jai Zale tabernan. Txartelak tabernan erosi behar dira.

**Korrika Txikia**
Martxoaren 23an, 15:00etan, egingo dute Korrika Txikia Arrasaten. San Isidro ermitatik irtenda, kalerik kale ibiliko dira neska-mutikoak euskararen aldeko aldarriak egiten. Ekitaldia bukatzeko, Pirritx eta Porrotxen *Korrika* kanta ipiniko dute Herriko Plazan. Horren ostean, txokolate-jana eta jolasak egongo dira guztiendako.

## Korrika bertsotan

Korrika Kulturalean bertsolaritzak ere lekua izango du. Aste bukaera honetan, *bertso-korrika* saioa egingo dute: bihar, zapatua, 19:30ean, Jai Zale tabernan.

28. Korrika aitzakia hartuta bertsotan ibiliko dira Ane Zuazubiskar, Martin Berrizbeitia, Xabi Igoa eta Maddi Sarasua. Askotariko doinuekin, Korrika izango dute hizpide nagusi bertso saioan.

# Amaren herentzia erdi bana modu egokian eta umorez zelan banatu

Iker Galartza eta Jose Ramon Soroiz dira 'Erdibana' antzezlanaren protagonistak

M.B. | ARRASATE
Urteetan aurrera doan ama bat, gripearekin eta enbolia batekin, baina hiltzeko gogo handi barik. Seme bat du, 45 urtekoa eta hondoratzen ari den enpresa bateko jabea. Amak 38 urteko beste seme bat zaintzen du, egunero bainatzen du.

Hori da Txalo taldearen *Erdibana* antzezlanaren ildo nagusia (domekan, 19:30ean, Amaia antzokian). 45 urteko semea Iker Galartza da eta 38 urtekoa Jose Ramon Soroiz. Bien artean banatu beharko dute amaren herentzia. "Gure asmoa erdi bana banatzea da. Baina banaketa egiteko orduan desadostasun handiak sortuko dira", esan du Iker Galartzak, barrez.

**Umorea nagusi**
Ama zaintzen egon den semeak eskubide handiagoa du? Amaren etxearekin geratu gura duenak anaiari erosi beharko dio haren zatia? Zenbat diru dauka amak eta non dago haren kartilla?

Galdera horiek guztiak ipiniko dituzte mahai gainean bi anaiek. "Herentzia banaketa guztietan sortzen diren egoerak dira horiek. Baina gu harago joan gara: askotan drama hutsa izan daitekeen herentzia banaketa umorez jantzi dugu", dio Galartzak. Eta egunerokotasunean sortzen den egoera horrekin identifikatu egiten dira ikusleak. "Askok esan digute eurek ere bizi izan dutela egoera hori", dio aktoreak.

Bestalde, fisikoki ez agertu arren, presentzia handia izango dute amak eta anaietako baten emazteak oholtzan.

**Jose Ramon Soroizekin**
Jose Ramon Soroiz egongo da oholtza gainean Galartzarekin. Eskarmentu handiko bi aktore. "Jose Ramonekin lan egitea ikastaro trinkoa egitea bezala izan da. Oso diziplinatua da. Asko ikasi dut harekin. Ondo moldatu gara eta agertokian antzeman egiten da", esan du Galartzak.


Iker Galartza eta Jose Ramon Soroiz, taula gainean. | GOIENA

# Bihar bukatzen da Arrasate Literatur Lehiaketara lanak aurkezteko epea

M.B. | ARRASATE
Bihar, zapatua, bukatzen da Arrasate Literatur Lehiaketara lanak aurkezteko epea. AEDk Pablo Uranga kalean duen egoitzan entregatu edo *aed@aedelkartea.com* helbidera bidali behar dituzte lanak interesatuek.

Deialdia urtarrilean egin bazuten ere, azken egunetan hasi dira lan gehienak heltzen AEDra. "Ikastetxeetako lanak batera ekartzen dituzte. Nagusiagoak direnek posta elektronikoz bidali dituzte lanak. Baina gehienak azken egunetan helduko dira", esan du AED elkarteko Itxaro Artolak.

**Sari banaketa maiatzean**
28. Arrasate Literatur Lehiaketan, Debagoienean bizi, lan egin edo ikasten duen edonork parte har dezake. Adinaren eta lanaren luzeraren arabera hainbat maila zehaztu dituzte, hiru modalitatetan: ipuina, poesia eta bertsolaritza, hain zuzen.

Jasotako lanak mailaka banatu ostean, epaimahaia bildu eta saridunak aukeratuko ditu. Sari guztiak ematen badira, 1.725 euro banatuko dituzte, maiatzaren 13ko ekitaldian. Sariak banatzeko eta idazle gazteekin solasaldia egiteko idazle ezagun bat gonbidatuko dute.


Ixa Sarasua bertsotan. | GOIENA

## Sonic Angels frantziarrek kontzertua egingo dute Iluntz tabernan gaur, egubakoitza, 23:00etan

Sonic Angels hirukoteak zuzenekoa egingo du Iluntz tabernan gaur, egubakoitza, 23:00etan. Montpellierko (Frantzia) taldeak garage, punk-rock eta rock-and-rol doinuak lantzen ditu eta horiek izan dira haren diskoetako oinarriak. Azkena, aurten, otsailean grabatu zuten Algo Records diskoetxearekin: *Haunter winter* delakoa. Jill Diamondek ekoiztutako lana erakusten dihardute Europan zehar. Zortzi urteko ibilbidea du taldeak eta zuzeneko indartsua ere bai.

## Marseillako balletak Kursaalen egingo duen ikuskizunerako autobusa irtengo da Arrasatetik

Marseillako balletak emanaldia egingo du apirilaren 20an Kursaalen. Arrasateko Udalak eta Kursaalek sinatutako hitzarmenari esker, autobusak irtengo dira Arrasatetik. Interesatuek 943-20 00 00 telefonoan egin behar dute eskaera, apirilaren 15a baino lehen. Autobusa herritik irten arren, sarrerak norberak erosi beharko ditu *Sarrerak.kursaal.org* helbidean. Txartelak erosi ostean, autobuseko lekua erreserbatu beharko da. Arrasateko autobusa Garibai kaletik irtengo da, 18:20an.




Koldo Unanue.
Euskalteleko marketing zuzendaria.

# “Euskaltel proba pilotu bat egiten ari da WiFi-a doan eskainiz Arrasateko kaleetan”.

**Zer da Euskaltel WiFi?**
WiFi sare berri bat da, aukera ematen duena Internetera doan konektatzeko kalean. Euskaltel WiFi sarearen 1.400 puntu jarri ditugu martxan, era esklusiboan, Arrasateko kaleetan, eta Euskadi osora zabalduko dugu laster sarea. Sare horri esker, gure bezeroak doan konekta daitezke Internetera, denbora-mugarik gabe eta deskargatzeko mega-kopuruaren mugarik gabe. Hau da, hemendik aurrera, Euskaltelen mugikor bat duten gure bezero guztiek WiFi-a doan izango dute kalean.

**Nola sortu da proiektu hau?**
Etxean gaudenean, guztiz normala iruditzen zaigu WiFi sare bat izatea gure mugikorra, tableta eta ordenagailua konektatzeko. Kalean, ordea, ez da ohikoa, leku jakin batzuetan bakarrik baitaude WiFi puntuak. Baina kalean ere bizi gara, noski, eta gure smartphone kuttuna aldean hartuta, gero eta maizago. Hori kontuan harturik, pentsatu genuen ea zer egin genezakeen Euskaltelen WiFi konexioa eskaintzeko kalean; hala, proiektu hau martxan jartzea erabaki genuen.

**Zer da?**
Beste edozein WiFi sarek bezala funtzionatzen du. Baina alde handi bat du: Euskadiko kaleetan banatutako milaka WiFi puntuei esker, Euskaltelen mugikorra duten bezeroak doan konektatuko dira Internetera.

Lehen aldiz konektatzeko, pauso erraz hauei jarraitu behar zaie. Lehenengo, “Euskaltel Wifi” doako aplikazioa deskargatu behar da (Android eta Apple telefonoetarako balio du). Aplikazio horretan, Euskaltelen mugikorraren telefono-zenbakia sartu behar da, eta, hori egin ondoren, sarbide-kodea jasoko du bezeroak SMS batean. Lau digituko kode bat da. Android telefonoetan, aplikazioak berak sartzen du, automatikoki, sarbide-kodea. Kito! Une horretatik aurrera, WiFi puntu batera hurbiltzen zaren bakoitzean, bakar-bakarrik konektatuko da telefonoa.

Jakina, smartphonearen WiFi zerbitzuak aktibatua egon behar du horretarako.

**Non daude Euskaltelen WiFi puntuak?**
“Euskaltel Wifi” aplikazioan bertan, Euskaltelen WiFi puntuak dauden udalerri guztien mapa bat erantsi dugu. Hala, aurrez jakingo duzu non izango duzun konektatzeko aukera Euskaletelen zure mugikorrarekin. Webgune honetan ere kontsultatu daiteke mapa: www.euskaltelwifi.com.

**Esan duzu sarea Euskaltelen mugikorra duten bezeroentzat soilik dela. Baina tabletak ere konekta daitezke sare horretara?**
Bai, Euskaltelen mugikorreko linea bat duen erabiltzaile bakoitzak sarbide-kode bat jasoko du SMS bidez. Sarbide-kode hori tabletan ere sar daiteke, eta bezeroak, hala, aukera izango du mugikorretik eta tabletatik batera konektatzeko ere informazio guztia.

> *“Euskaltelen mugikor bat duten gure bezero guztiek WiFi-a doan izango dute kalean.”*

**Zergatik jarri duzue martxan sarea Arrasaten lehenengo?**
Herri horretako kale eta eraikin-egitura askotarikoak aukera ematen digulako zerbitzuaren alderdi teknikoak ingurune desberdinetan probatzeko. Gainera, udalerri horretan oso handia da Euskaltelen bezero-kopurua, eta, beraz, bezero horiek gugan jarritako konfiantza itzuli nahi izan diegu, zerbitzua han hasiz.

Ez dugu zalantzarik. Arrasatearrek asko erabiliko dute Euskaltel WiFi sarea udalerriotako kaleetan, paseoan, erosketak egiten, lanean edo dibertitzen ari direnean. Eta, laster, Euskadi osoan izango da sarea.

BIZITZA KALEAN GERTATZEN DELAKO
1.400 WIFI PUNTU
DOAN ARRASATEKO KALEETAN
Deskargatu "Euskaltel WiFi" aplikazioa App Store-n edo hemen: euskaltelwifi.com.
euskaltel

## Maliren alde produktuak batzen jarraituko dute

**O.E.** | OÑATI

Maliren aldeko produktuak jasotzeko kanpaina martxa onean doala esan du Hermansaloña elkarteko kide Jose Antonio Urteagak. Produktuak batzeko toki gehiago daude, gainera. Hala, hiru ikastetxeetan ez ezik, herriko denda hauetan batuko dituzte Malira bidaltzeko elikagaiak –pasta– eta eskolarako materiala –boligrafoak, koadernoak...–: San Miguel kooperatiba, Eroski, Super BM, Dia, Iñigo supermerkatua, Irizar estankoa, Altuna estankoa, Urtzelai estankoa, Hirukar, Haritza, Urzai eta Eurodenda.

**Togoko eskolarako**

Oñatiko Misio Taldeak eta Josean Larrañaga parrokoak kudeatzen duten Malirekin Elkartasuna elkarteak antolatu du bilketa, Hermansaloña elkartearen laguntzarekin. Martxoaren 28ra arte izango da, eta asmoa da Togo izena duen herriko eskola batera bidaltzeko edukiontzi bat betetzea. 600 ikasle ditu eskola horrek eta asko barnetegian bizi dira, urrutikoak direlako.



Mikel Martinez, Joseba Apaolatza eta Patxo Telleria dira antzezleak. | DONOSTIAEUSKARAZ.EUS

# Korrikarekin batera dator 'Pankreas' antzezlana

### Batxilergo mailako ikasleek suizidioaren gaia jorratu dute lan horren bitartez

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

*Pankreas* antzezlana antzeztuko dute Santa Ana aretoan gaur, egubakoitza, 22:30ean. Patxo Telleriak sortutako endredozko tragikomedia da, bertsotan idatzia, eta bizi nahia eta suizidioa da gaia. Jabilo oso gaixo dago, pankreas baten transplantea behar du; azkar, gainera. Bestela, hil egingo da. Afari batean, Jonanek bizitzaz nazkatuta dagoen Pauli proposatuko dio suizidatu eta bere pankreasa bizitzen jarraitzeko egarriz dagoen Jabilori eman diezaiola.

Patxo Telleria bera, Joseba Apaolatza eta Mikel Martinez dira antzezlanaren hiru aktoreak eta Korrika Kulturalaren barruan ekarri duten antzezlana da.

**Hausnarketa**

Antzezlanak, baina, badu suizidioa lantzeko propio prestatu duten material didaktikoa, eta horixe lantzen ibili dira, hain zuzen, modu batera eta bestera, herriko batxilergo mailako ikasleak.

Suizidioaren gaiaz hausnarketa egitea ez ezik, antzerkigintzarako zaletasuna sortzea ere bada ekimen horren helburua. Udaleko Kultura eta Hezkuntza sailek eta herriko ikastetxeek elkarlanean gauzatutako egitasmoa da antzerkigintzaren lanketa didaktikoa. Joan den urtean, adibidez, *Kibubu* antzezlanarekin animalienganako tratu onaren gaia landu zuten Lehen Hezkuntzako ikasleek.

**Materiala eta txartelak salgai**

Korrikari lotuta, ekimen horren aldeko materiala saltzen ibiliko dira bihar, zapatua, goizean, Foruen plazan, herriko Korrika batzordeko kideak. Gainera, joan den astean egindako enkarguak banatzen ere ibiliko dira.

Bestalde, martxoaren 21ean, Korrikaren aldeko bazkaria egingo dute Antixena gaztetxean. Ehun lagunendako prestatuko dute eta txartelak salgai jarriko dituzte.

Korrika martxoaren 23an helduko da, Udanan behera, 07:00etan, Foruen plazara. Korrika Txikia, berriz, 14:30ean egingo dute, Foruen plazan.



Miren Elgarresta, eguaztenean emandako prentsaurrekoan. | J.I.

## Herritarren ekarpenak jaso gura ditu EAJk hauteskundeetarako

**JULEN IRIONDO** | OÑATI

EAJk Oñatin ere iragarri du udal hauteskundeei begira herritarren ekarpenak jaso eta horiek programan txertatzeko parte-hartze ekimena. Ekimenaren azalpenarekin eskuorriak banatuko dituzte oñatiar guztien postontzietan, ekarpenak idazteko papertxoarekin eta gutun-azalarekin batera. Ekarpena egin gura duenak papertxoan jaso eta gutun-azalean ohiko postaz bidali baino ez du.

Ekimen horrekin batera, Miren Elgarresta alkategai jeltzaleak iragarri du herriko askotariko esparruetako eragileekin ari direla biltzen azkenaldian, eta haiengandik ere jasotzen ari direla programarako proposamenak. "Oso positiboak dira gertatzen bilera horiek, baina ez dira nahikoak; oñatiar guztiengana iritsi gura dugu", adierazi du Elgarrestak prentsaurrekoan.

Etxez etxe banatuko dituzten eskuorrien bitartez ez ezik, Facebook eta Twitter sare sozialen bidez ere egin ahal izango dira ekarpenak, baita posta elektronikoz ere, mezua helbide elektroniko honetara bidalita: *eajonati@gmail.com*. Miren Elgarresta alkategai jeltzaleak animatu ditu oñatiarrak nork bere eguneroko bizitzako esperientziatik antzematen dituen beharren berri ematera.

## Konpostaren hobaria, txantxitan

**O.E.** | OÑATI

Konposta %100ean egiten duten herritarrek diru laguntza moduan jasoko dute hobaria aurrerantzean. Txantxitan jasoko dute, eta udaletxetik pasa beharko dute laguntza hori jasotzera.

Edukiontzi marroia esekitokietara atera ordez hondakin organikoekin konposta egiten duten herritarrek izango dute laguntza hori. Konpromiso hori herriko 535 lagun edo familiak dute hartuta Udalarekin, eta hondakinak kudeatzeko egiten duten ahalegin horregatik jasoko dute %25eko hobaria zabor tasan. Txantxien egitasmoari bultzada emate aldera, baina, hobari hori txantxitan ematea erabaki du Udal Gobernuak eta horixe onartu zuen udalbatzak otsaileko osoko bilkuran. Familia horiek, beraz, 25 txantxi jasoko dituzte, eta, horretarako, udaletxetik pasa beharko dute. Datozen egunotan jasoko dute gutuna, txantxiak nola hartu behar dituzten azaltzeko.



Bidebarrieta kaleko konpost-gunea. | GOIENA

### Oñati-Zubillaga errepidea itxita egongo da bihar arratsaldean

Bihar, zapatua, egingo den duatloia dela eta, Oñati eta Zubillaga auzoaren arteko errepide zatia itxita egongo da erabat. 16:00ak eta 17:30ak bitartean, ibilgailuendako itxita egongo da errepidearen zati hori, duatloian parte hartuko duten kirolariak bertatik pasako dira-eta. Ibilbide berria izango du aurten duatloiak.

### Beste proiektu batzuk ikusteko irteera egingo dute Eltziako kideek

Bilboko Zorrozaurre eta Gernikako Astra lokala eta Iparragirre rock elkartea bertatik bertara ezagutzeko irteera antolatu dute Eltzia proiektuan dauden eragileendako. Martxoaren 28an izango da irteera eta joan gura duenak izena eman behar du hilaren 20a aurretik helbide honetan: *ekt.eltzia@gmail.com*. Autobusa doan da eta bazkaria, 15 euro.

### Arrikrutzeko sarrerak erdi prezioan egongo dira domekan

Koben Eguna ospatuko da domekan, hilak 15, Lurpea elkarteak antolatuta. Hala, bisita bereziak, erakustaldiak eta deskontuak izango dira elkarteko kide diren Euskal Herriko kobazuloetan. Arrikrutzeko sarrerak, esaterako, erdia balioko du. Autobus zerbitzua egongo da Oñatitik Arrikrutzeko kobetara.



Otxoa eta Galdos eskiatzaile oñatiarrak Alpeetan martitzenean, dortsalak hartu aurretik. | AITOR OTXOA

# Aitor Otxoa eta Gorka Galdos Pierra Menta lasterketan dira

## Alpeetako proba horretan parte hartzen ari diren debagoiendar bakarrak dira; Altitoy-Ternua proban ere oñatiar batek baino gehiagok hartu zuen parte

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Pierra Menta lasterketa entzutetsuan parte hartzen ari dira eguaztena ezkero Aitor Otxoa eta Gorka Galdos oñatiarrak. "Gorkak bikotekidea behar zuen, eta harekin joango nintzen galdetu zidanean, duela hiru bat aste, baietz erantzun nion", esan du Aitor Otxoak. Hala, hamabigarren aldiz lehiatuko da Otxoa lasterketa horretan.

Astelehenean abiatu zen Otxoa Oñatitik Alpeetara (Galdos Suitzan bizi da). Donostian lagun batzuekin elkartu, gaua bidean egin eta martitzenean jaso zituzten dortsalak bi eskiatzaile oñatiarrak. "XXX. aldiz egingo da aurten Pierra Menta eta aldaketa batzuk daude. Esaterako, eguaztenetik zapatura izango da eta azken egunerako festa dute antolatuta", dio Otxoak. Hala ere, lasterketari berari dagokionez, aurreko urteetako besteko gogorra dela dio: "Oso gogorra da, bai, oso teknikoa. Fisikoki ondo egotea garrantzitsua da, baina mentalki indartsu egotea ezinbestekoa da. Negua da, eta eguraldi ona egiten badu dena da errazagoa. Txarra egiten badu, berriz, gauzak asko oker daitezke eta prest egon behar da horri aurre egiteko. Bestalde, egunak ere bestelakoak dira. Adibidez, 04:30ean gosaltzen dugu lasterketa 07:00etan hasteko".

Lau egunean 10.000 metroko desnibel positiboan egingo dute eskiatzen, 2.500 metro inguru, gutxi gorabehera. "Egunean, batez beste, hogei kilometro inguru egiten ditugu. Lau bat orduan egingo ditugu. Hori da asmoa. Zapatuko proba izango da berezia. Inguru jakin batetik hirutan pasako gara eta 4.000 lagun inguru egongo dira animatzen. Haien laguntzarekin eta aurten etxe ondoan egin ditugun entrenamenduekin, ea lasterketaz disfrutatzen dugun", dio Otxoak.

### Andres de Regil saria

Bestalde, Euskal Mendizale Federazioak urtero ematen duen Andres de Regil saria jaso berri du Otxoak, "oso pozik".

### Mendiola eta Korta, azpi txapeldunak

Joxe Mendiola eta Iñaki Korta, berriz, txapeldunordeak izan ziren joan den asteburuan izan zen Altitoy-Ternua proban. Bi eguneko mendi proba izan zen eta lehen egunean, zapatuan, Euskadiko Txapelketa jokatu zuten. Mendiolak eta Kortak osatu zuten bikotea bigarren sailkatua izan zen beteranoen kategorian. 2.800 metroko desnibela izan zuen mendi zeharkaldiak eta "oso gogorra" izan zen, parte-hartzaileen hitzetan. Abixaran taldeko bi kidek, Marije Zubizarretak eta Lukene Igartuak, ere hartu zuten parte, besteak beste.

Bestalde, nesketan, Amets Maiztegik eta Uxue Frailek osatutako bikoteak irabazi du proba. Bada, Maiztegiren aita oñatiarra da eta Amets bera Larraña institutuan dabil irakasle.

NIRE USTEZ

**MIEL GURIDI**



## Ura bizi-iturri, tarteka itogarri

Azelako urte hasiera izan dugun, garaiari dagokio, baina urtarrilean, lehen hamar egunak kenduta ia guztietan egin du euria; otsailean, bost egunetan izan ezik, gainerako guztietan negarrez izan dugu zerua. Horrelakoetan ura itogarri suertatzen zaigu, baina ura bizi-iturri da, eta hori gogorarazten digu Nazio Batuek izendatutako Uraren Nazioarteko Egunak, martxoaren 22ak.

Ura osasuna da, ezinbestekoa. Asteak eman ditzakegu jan gabe, baina urik gabe egun gutxi batzuk baino ez. Eskuak sarri garbitzea, esaterako, germenak, gaixotasunak eta beste pertsona batzuk kutsatzea ekiditeko biderik egokiena da. Egunero behar dugu ura, edateko, janaria prestatzeko eta gorputza garbitzeko, baita saneamendurako ere.

Ura natura da, eta ekosistemak uraren ziklo osoaren erdian daude, bai basoak, bai hezeguneak, bai zelaiak. Hala ere, eredu ekonomiko gehienek ez dituzte ekosistema horiek kontuan hartzen, eta horrek ekosistemak degradatzera garamatza.

Ura industria da. Kontuan izan auto bat fabrikatzeko igerileku bat betetzeko baino ur gehiago behar dela. Produktu batzuek beste batzuek baino gehiago behar dute: 10 litro paper-orri bat egiteko, 91 litro 500 gramo plastiko egiteko... Hala ere, industria gehienen lehentasuna produktibitatea handitzea da, ez ura era eraginkorrean erabiltzea eta kontserbatzea. Zer egiten dute enpresa aurreratuenek? Ura zertan gastatzen duten aztertu eta kontsumoa murrizteko bideak jorratu.

Ura janaria da. Ur litro bakarra nahikoa da kaloria bat ekoizteko, baina uraren erabilera ez eraginkorrak kaloria hori sortzeko ehun litro ur erabiltzea eragin dezake. Mundu mailan nekazaritza da uraren erabiltzailerik nagusiena eta badu zertan hobetu uraren erabilera eraginkorragoa egiteko: ur-galerak ekidin, ur-kopuru berarekin produktibitatea handitu. Pentsa euria ura dela, eta ura bizi-iturri. Zaindu ura!

**"Pentsatu euria ere ura dela, eta ura bizi-iturri"**

# Autobusak antolatu dituzte 'Nagoretxo'-ren epaiketarako

**O.E.** | OÑATI

Gasteizen duen Txapelarri tabernan presoen argazkiak edukitzeagatik epaituko dute martxoaren 18an Nagore Lazkano *Nagoretxo* oñatiarra. Bi urteko espetxe zigorra eta hamar urteko inhabilitazioa eskatu du fiskaltzak. *Nagoretxo*-ri elkartasuna adierazteko ekintzak antolatu dituzte Gasteizen eta Oñatin. Hain justu, Oñatin, autobusak antolatu dituzte epaiketa egunean Madrilera joateko. Arrano tabernan eman behar du izena joan gura duenak.

Atzoko, eguena, pintxo-potean Oñatin izan zen Lazkano eta herritarren elkartasuna jaso zuen. Datorren eguaztenean kale agerraldia egingo dute, 19:00etan, Foruen plazan.

### Urtebete

Tabernari lanetan jardun zuen Oñatin ere *Nagoretxo*-k, hemen bizi zenean, eta herriko hainbat tabernarik adierazi diote elkartasuna. Duela urtebete, ikasle mugimenduak egin zuen greba egunean, Ertzaintza sartu zen bere tabernara gazte bat identifikatzera eta tabernan zeuden presoen argazkiak eraman zituen. Gertaera horregatik epaituko dute eguaztenean.

OÑATI AZTERGAI
GOIENA TELEBISTA | HARIRA
MARTXOAREN 17AN, 22:00ETAN | MIKEL BIAIN ALKATEAREKIN



25 URTE
HERRI TELEBISTAGINTZAN
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

**Naiara Loy** | Sexu hezitzailea

# "Ikusarazi gura dugu sexua ez dela sexu harremanak izatea bakarrik"

- Gaztelekuko sexu aholkularitza zerbitzuak urtebete egin du
- Urtebetetze festa egingo dute, sexualitatea modu positiboan landuta

LEIRE KORTABARRIA | OÑATI

Urtebete egin du gaztelekuko sexu aholkularitza zerbitzuak. Egubakoitzetan, 17:30etik 19:30era, hezitzaile bat egoten da han gazteei entzuteko gertu. Hiru hezitzaile dabiltza eta Naiara Loy da horietako bat. Gaur, egubakoitza, urtebetetze festa egingo dute. Naiara Loyk herriko gazteak animatzen ditu festa horretara joatera.

**Zer egin behar da gaztelekuko sexu aholkularitza zerbitzua erabiltzeko?**

Ez da aldez aurretiko hitzordua behar; astero, bi orduan, hor egoten gara. Gure zerbitzua gazteendako da baina, batzuetan, beste adin batzuetako jendearendako aholkularitzak ere izaten ditugu. Aukera dago bulegora zuzenean joateko, edo emailez eta sare sozialen bitartez zalantzak azaltzeko. Email helbidea hau da: *txantxikusexuaholkularitza@gmail.com*. Facebooken, Oñatiko Sexu Aholkularitza gara. Twitterren ere bagaude.

**Urtebete egin du zerbitzu horrek. Zelako erabiltzaileak izan dituzue, eta zelako galderak egin dituzte?**

Urte honetako balorazioa ona da. Galdera gehienak 19 urte baino gutxiagokoek egiten dituzte, baina beste adin batzuetakoak ere izan dira. Mota askotako kezkak jasotzen ditugu: adibidez, batzuek jostailu erotikoei buruz jakin nahi dute, zer nolakoak dauden, nola erabili… Zalantza asko haurdunaldia eta gaixotasunak prebenitzearen inguruan dira; eta beste asko, orientazioaren ingurukoak: nola esan etxean norbera homosexuala, lesbiana edo bisexuala dela, edo nola jakin hala den…



Naiara Loy. | GOIENA

**"Jarrera matxistak, rolak... ikusten dira oraindik gazteen artean"**

**"Komunikazioa, adostasuna eta errespetua behar dira harremanetan"**

**Adinaren eta neska edo mutila den arabera, desberdinak izaten dira galderak?**

Nahiko orokorrak izaten dira, baina, askotan, neskek izaten dituzten zalantzak lotuagoak daude prebentzioarekin; eta, sarritan, ez dira berdin adierazten sexualitate kontuetan neskak eta mutilak.

**Ze adinekoak dira erabiltzaile gazteenak?**

12-13 urterekin dagoeneko badaude zalantzak; adin horretan gorputza aldatzen da eta harremanak hasten dira. Saiatu behar dugu eurengana gero eta errazago ailegatzen.

**Oraingo gaztetxoak ondo informatuta daude ala oraindik ezjakintasun handia dago?**

Alde batetik, nabaritzen da ze ikastetxetan lantzen den sexualitatea; familiarekiko zer-nolako harremana dagoen… eta gauzak aldatu dira, baina ezjakintasun handia dago. Neskek ez dute berdin bizi euren sexualitatea, oraindik mito eta tabu asko dago, kuestionatuagoak izaten dira; lan handia dago hor. Landu nahi dugu plazera gorputz osora zabaltzen dela, eta ikusarazi nahi dugu sexualitatea ez dela sexu harremanak bakarrik.

Bestalde, telebistatik jasotzen dituzten ereduak daude, eta alde horretatik atzera goaz: jarrera matxistak, rolak… ikusten dira oraindik.

**Festan zer egingo duzue?**

Nahiko parte-hartzailea egingo dugu. Landuko dugu sexualitatea edo sexu aniztasuna ikuspegi baikor batetik, eta jolas batzuk proposatuko ditugu, balio horiek modu praktikoan lantzeko; hala, karaokea abesten jarriko ditugu, gero lantzeko ea sexismoa dagoen ala ez… Hainbat dinamika erabiliko dugu harreman sexualetan agertu behar duten minimoak lantzeko: komunikazioa, adostasuna eta errespetua.

## Bertso afaria eta kontzertua izango dira gaztetxean

L.K. | OÑATI

Oraingo aste bukaerarako, bertso afaria eta kontzertua antolatu dituzte Antixena gaztetxekoek.

Gaur, egubakoitza, bertso afaria izango da. Aitor Bizkarra, Txaber Ormazabal, Aratz Igartzabal eta Urko Arregi oñatiarrek girotuko dute. 21:30ean da hitzordua.

Aurtengo berezitasuna izango da txotx egiteko aukera egongo dela.

Txartelak Ona, Arrano eta gaztetxean erosi daitezke, 8 eurotan.

**Tania de Sousa bakarlaria**

Bestalde, bihar, zapatua, kontzertua izango da Antixenean: Tania de Sousa (Zestoa) eta Blaster M (Gernika). 22:00etan hasiko da emanaldia.

Irailean kaleratu zuen *Tania Tank* izeneko diskoarekin etorriko da De Sousa, eta ondoan izango ditu honako musikari hauek: Ander del Sol (Kasernarat; bateria), Maitane Alonso (The Dispositives; baxua) eta Fermin Bouza (Correos; gitarra, koruak eta sintetizatzaileak). Musikalki, pop-rock giroetara bideratzen da musika egitasmo berri hori. Maitasuna eta norberaren barrurako begirada dira abestietako gai nagusiak.

Beraiekin batera, Blaster M gernikarrak arituko dira.

## Musika eskolakoek kontzertua egingo dute zapatuan

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek Udaberriko Jaialdia egingo dute. Hain zuzen, haize taldeak eta akordeoi taldeak kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:00etan. Ordu bete inguruko emanaldian, ikasturtean zehar ikasten dihardutena erakutsiko dute ikasleek.

## Odola emateko aukera izango da gaur, egubakoitza

Herriko odol emaileei zein odol emaile izan gura dutenei dei egiten diete hurrengo ateratzerako. Gaur, egubakoitza, izango da, Txantxiku ikastolako aretoan, 17:00etatik 19:30era arte. Ohi bezala, aurretik odola eman dutenek gutxienez lau hilabete itxoin behar dute berriz eman ahal izateko.

## Euskal kantu kalejira egingo dute Txantxikuk eta musika eskolak

K OMUNITATEA GOIENA
TXANTXIKU IKASTOLA | OÑATI

Txantxiku Ikastolak, Jose de Azpiazu musika eskolarekin elkarlanean, antolatuko duen ekimen baten berri ematera gatozkizue. Euskal Herriko hainbat herri eta hiriburutan jadanik aurrera eramaten da ekintza hau eta herriarentzat eta bereziki herritarrentzat aberasgarria dela uste dugu. Gauzak horrela, bi erakundeek Oñatin antolatzea adostu dugu eta ekimen honekin lortu nahi ditugun helburuak hauek dira: herrian, Euskal Kultura zabaltzea euskal kantu eta folklorearen bitartez; Euskal Kantu tradizionalak herritar guztiengana hurbiltzea; euskaltzaletasuna eta euskal nortasuna sustatzea; herriko kaleak alaitu eta girotzea; familiak euskal giroan elkartzea eta herrigintzan aritzea.

Horrenbestez, bi erakundeen arteko elkarlanari esker, hilero-hilero azken larunbatean plazan elkartuko gara eguerdiko 12:30ean. Ondoren, kaleetatik zehar ibiliko gara euskal kantak abestuz herriko giroa alaitzen. Lehenengo saioa martxoaren 28an egingo dugu.

Herritar guztiak animatu nahi ditugu ekimen honetan parte hartzera, zenbat eta haur, guraso, familia eta norbanako gehiago elkartu orduan eta aberatsagoa izango baita ekimena.

## Frantziako gazte batzuk herrian daude, Urgaineko ikasleekin

K OMUNITATEA GOIENA
URGAIN ESKOLA | OÑATI

Ilusio handiz prestatu dugun ekintza baten berri eman nahi dizuegu: Elkartrukea: Oñati - Argenton-sur-Creuse. Frantziako erdialdeko herri horretako ikasleak martxoaren 14 artean izango ditugu gurekin.

Maiatzaren 27tik 31ra gure batxilerreko lehenengo mailako ikasleekin bisitatuko dugu Argenton-sur-Creuse herria.

**Gasteiz bisitatzen**

Gaur, hilak 13, Gasteizko bisita dute. Ikasleek hainbat leku aurkeztuko dituzte frantsesez.



Oñatiko eta Argenton-sur-Creuseko ikasleak. | URGAIN ESKOLA

BIZITZA KALEAN GERTATZEN DELAKO




Euskaltelek **1.400 WiFi puntu** piztu ditu Arrasateko kaleetan, Euskalteleko mugikorrarekin Internetera DOAN konekta zaitezen.

Euskaltelen bezeroentzat bakarrik.

Deskargatu "Euskaltel WiFi" aplikazioa hemen: Google play App Store

edo hemen: euskaltelwifi.com

Eskatu informazioa Euskaltelek Arrasaten **Biteri plazako 4.** zenbakian duen dendan, eta hasi Euskaltel WiFi erabiltzen.

euskaltel

# 250 urteren ostean bueltan da Ilustrazioko umorea

## Oraindik ere, biharko (22:30) eta domekako (16:00) emanaldietarako sarrerak eskura daitezke

### 'Mozkorra parregarri' operako pertsonaia nagusiak


IMANOL SORIANO

**GORKA UNAMUNO**
MOZKORRA

Herriko mozkorra da operako protagonista. Ardoa eta mozkorraldiak utzi eta bide egokira buelta dadin, hiru zaldunek prestatutako txantxa jasan beharko du.


IMANOL SORIANO

**MARIJE UGALDE**
EMAZTEA

Senarraren mozkorraldiekin kokoteraino dagoen emazte fina da hura. Txantxaren parte ez den arren, senarrak eskarmentu bat behar duela uste du.


ARIZONDO ARGAZKI TALDEA

**ARGIÑE AGIRREZABAL**
ERROMESA

Sevillatik diru eske datorren erromesak kantu emanaldi ikusgarria egingo du. Horrez gainera, mozkorrari egiten ari diren txantxan ere parte hartuko du.


ARIZONDO ARGAZKI TALDEA

**KARLOS ETXANIZ, JULEN ALBERDI ETA FRAN MARTINEZ**
ZALDUNAK

Mozkorraren mozkorraldiak ezagutu eta gero, Gipuzkoako hiru noble horiek eskarmentu gisa mozkorrari txantxa bat egiteko ideia izango dute. Hori da euskarazko lehen opera horren argumentu komikoa.

**IMANOL GALLEGO** | BERGARA

Jatorrizko edizioan zioenez, *Opera cómica en castellano y vascuence escrita y puesta en música por un caballero guipuzcoano*; Xabier Maria de Munibe, alegia. Orain, 250 urte geroago, *Mozkorra parregarri* opera lehen aldiz estreinatu zen osoko bilkuren areto berberera bueltatuko da. Bihar eta etzi, Peñafloridako kondeak nahi bezala obra euskara hutsean taularatuko dute, eta garaiko partitura batean oinarritutako musika izango du.

Berrestreinaldi horretan, egungo Peñafloridako kondea egongo da, eta, Xabier Maria de Munibe Gipuzkoako diputatu nagusi izan zela kontuan izanda, Martin Garitano ere egongo da udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Proiektuak ikerketa lan luzea izan du, jatorrizko partitura aurkitu ez duten arren. Kutxa batean azaldu eta, itxuraz, Evaristo Espinosak idatzitako pianorako moldaketa batean oinarrituko da operako musika.

**Jantzi ikusgarriak**

Musika ez da opera horretan zaindu duten arlo bakarra. "XVIII. mendean jendeak ikusi zuen ikuskizuna errespetatu dugu, eta, horretarako, garai hartako elementu ugari erabiliko ditugu", dio operako zuzendari artistiko Valen Moñuxek.

Arriaga antzokiko jantzien arduradun Oscar Armendaritzek izan du operako antzezle eta musikariak janzteko ardura, eta hark irizpide errealista eta historizistak aintzat hartuta sortu ditu parte hartzaileen jantziak.

Ohiko saltokietan, biharko 22:30eko eta domekako 16:00etako saioetarako sarrerak eros daitezke oraindik. Egunean bertan, geldituko diren sarrerak udaletxeko arkupeetan salduko dituzte.

# Jardun elkartearen urteko batzar orokorra bihar

**I.G.** | BERGARA

Bergarako Jardun Euskara Elkarteak 25. urteurreneko batzar orokorra egingo du bihar, martxoak 14, kultura etxean, 10:30ean.

Bilera azken batzarreko aktaren onarpenarekin hasiko dute. Segidan, pasa den urteko egitasmoak errepasatu ondoren, horien balantzea egingo dute. Eta gero, urte honetako asmo eta aurrekontua bozkatuko dute. Horrez gain, zuzendaritzako kide batzuk eta lehendakari berria aukeratuko dituzte.

**Gogoeta prozesua**

Bigarren zatia, berriz, gogoeta prozesuari jarraipena eman, lantaldeen jarraipena egin, 25. urteurreneko ekintzak zehaztu eta aurrera begirako lanketa egiteko izango da.

## Duintasuna elkarteak urteko batzarra egingo du martitzenean

Martxoaren 17an, herriko Duintasuna elkarteak batzar irekia egingo du Irizar jauregian. Taldeak 10:30ean ekingo dio bilerari, eta, bertan batzen diren herritarrekin, batera botiken berrordainketaz, pentsioen balio handitze ezaz eta menpekotasun legeaz hitz egingo dute. Amaieran, nahi duenak galderak egiteko tartea izango da.

## Beart Emakumeak taldeko 23 lan ikusgai Artesan kafetegian

Martxoaren 8aren bueltan, emakumeen lanez osatutako erakusketa jarri dute Beart Emakumeak taldekoek. Domingo Iralan kalean dagoen Artesan kafetegian hormetan 23 emakumek egindako 23 lanez osatuta dagoen erakusketa ikus daiteke. Hil bukaera arte dago ikusgai.

# Bizitza kabaret bat da

**KOMUNITATEA GOIENA** |
BERGARAKO UDAL BANDA | BERGARA

Martxoaren 7an, hilabete luzeetako lan gogorraren ostean Aratuste-egubakoitzean izandako arrakastaz disfrutatzeko eguna izan zen.

Urtean zehar talde bakoitzak bere ibilbide propio izan arren, ikuskizunaren magiak batzen gaitu, herri eta genero ezberdinetakoak izan arren. Eta guztiak batuta, ezin zerbait berria eskaini gabe oheratu. Irala kalea kabaret doinuz bete genuen, ikuskizuna kalera zabaldu eta elkarrekin egindako *flashmob* batez gozatzeko aukera eskaini genien bergararrei.

Eskerrak eman kabaret ikuskizuna posible egin zenuten guztioi. Garrantzitsuena, arrakastaren gainetik, lantalde sendoa eratzea izan da.

**Kontzertua domekan**

Domekako kontzertuan (12:30), duela gutxi hil zen Joxe Gonzalez musikari eta laguna omenduko dugu. Horregatik, Udal Pilotalekuan, hari gehien gustatzen zitzaizkion piezak joko ditugu.


Zapatuan egindako *flashmob*-a. | B.U.B.

# Mikel Urdangarin abeslariak publikoa "sukalderaino" eroango du gaur iluntzean

**JAGOBA DOMINGO** | BERGARA

Mikel Urdangarin Zabalotegi aretoan izango da gaur, 20:00etan. MU2015 biran murgilduta dago musikaria, eta, oraingo honetan, kantutegiari buelta erdi ematea erabaki du. Gitarra eta ahotsa lagun dituela, bakarrik igoko da agertokira.

**Sarrerak bertan**

Emanaldia hasi baino ordubete lehenago irekiko dute Zabalotegiko txarteldegia.


Mikel Urdangarin. | JOSU LIZARRA

## Gazteendako eta gurasoendako haur literatura sustatzeko ekintzek egunotan jarraituko dute

Gaur, egubakoitza, doakoa den irakurketa kluba egingo dute haur liburutegian. Bi txandatan egingo dute: lehena 17:15ean, 3-6 urte bitartekoentzat, eta bigarrena 18:15ean izango da 6-8 urte bitartekoentzat. *Nola kontatu eta aukeratu ipuinak* tailerra, ostera, martxoaren 18an, eguaztena, egingo dute, 18:00etan, Oxirondo azokako aisialdigune berrian. Izen-ematea hamar euro da, eta interesa dutenek haur liburutegian bertan eman behar dute izena. Itziar Zubizarretak gidatuko du ikastaroa.

UREDERRA
ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 943 918

# Ekintzailetasun soziala sustatzeko Udalak hazitegia abiaraziko du

## Goi mailako ikasketak dituztenendako eta azken urtean daudenendako da

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergarako historiari erreparatuz gero, argi ikus daiteke ekintzailetasuna eta formazioa herriaren bi ezaugarri izan direla. Krisiak gizartea kolpatu duen une honetan, etorkizuna eraikitzeko molde berriak behar dira. Udalak ere ekonomia sustatzeko korronte berri honekin bat egiten du; horregatik, kokatuko du Laboratorium museoan ekintzailetasuna sustatzeko programa.

Herriko gazteak edo ikasketadun langabeak maiatzean eta ekainean gune horretan batu eta formazioa, hausnarketa eta proiektugintza uztartzea da egitasmoaren xedea. Betiere, aurrera begira, ekimen eta negozio aukera berriak lantzeko. Parte hartzaileek Lanki ikertegia eta Olatu Koop izango dituzte bidelagun.



Ekintzaile programaren arduradun eta sustatzaileak. | IMANOL BELOKI

### Hazi eta formatu

Ekintzailetasuna sustatzeko proiektua izateaz gain, tokiko garapenaren paradigma barneratzeko tokia izango da. Horretarako, formazioaz gain, programak hazitegia eta bateratze saioak izango ditu.

Bi hilabeteko iraupena izango duen ekintzailetasun programa bukatzean, ikasketaren ziurtagiria jasoko dute ikasleek, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak sinatuta.

### Informazio saio irekia

Ekintzailetasun hazitegi horri buruzko informazioa jaso nahi dutenek 608 71 07 64 telefono zenbakira dei dezakete.

Horrez gain, martxoaren 23an informazio saio irekia egingo dute Errekalde jauregian, 18:30ean.

# Martxan dira Laboratorium gizarte museoa osatzen joateko parte hartze saioak

## Urtetan garatutako proiektua ezagutzera eman eta gonbidatuen ekarpenak jasotzeko fasea da hau

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Laboratorium museoa gizarteratzen dihardu Udalak. Herriko kultura, kirol eta gizarte eta politikako eragileekin eta herritarrekin, oro har, partekatzen dihardute proiektua, parte hartze saioen bidez.

Saioetan, lehenengo, museoko teknikariek proiektuaren nondik norakoak aurkezten dituzte eta, ondoren, ekarpenak jasotzeko tarte bat izaten da.

### Herriko ondarea ikusgai

Udalak Errekalde jauregian kokatuko du Errege Mintegiaren zientzia museoko piezak erakusteko museoa. Seminarioak gordetzen dituen XVIII. eta XIX. mendeetako 3.000 piezetatik, esanguratsuenak, "100 bat" erakutsiko dituzte bertan.

Aste Santutik aurrera zabalik egongo den Turismo Bulegoa ere Errekalden kokatuko dute. Erreferentziazko proiektua izan nahi duen Laboratorium museoak, bisitari ororendako, ekainean irekiko ditu ateak.

**Bideoa ikusteko:** eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Laboratorium museoaren harreragunea. | ENEKO AZKARATE


Seminarioan gordeta dauden fondoetako batzuk. | E.A.

### NIRE USTEZ


KARLOS ETXANIZ

## Ondarearekin bueltaka

Askotan beste herri edo hiri batzuetara joateko ohitura daukagu bertako ondarea eta historia ezagutzera. Jauregiak, elizak, zubiak... herri batek historian duen pisua horrelakoekin neurtzen dugu.

Zorionez, Bergaran ez zaigu halakorik falta, eta astero ikusten ditut turista mordoa gure herriko aberastasun historikoa ezagutzeko prest. Seminarioa, Errekalde jauregia, San Pedro, Santa Marina... zerrenda ia amaigabea da. Baina gure herriaren aztarna adreiluan soilik ikus daiteke? Ez horixe! Bergara hori baino gehiago da, bergararrok egunero idazten baitugu herri honen historiaren hurrengo pasartea.

*Laga*, tostoiak, erreilenoak, musikalak... arkitekturaz haratago gure herriko ezaugarrien parte dira horiek ere, eta lehenago edo geroago, herriko ondare bilakatuko dira.

Aste bukaeran Peñafloridako kondearen opera berreskuratuko dugu. 250 urte ia isilpean egon ostean, ilustrazioak herrian utzitako aztarnaren zatitxo bat berreskuratu, eta herrikide eta bisitariei eskainiko diogu. Ez da lan makala izan eta ikerketa lan sakona eskatu duen obra bat izan da, baina estreinaldirako 24 ordu falta direnean, harro nago ondarea berreskuratzeko egindako lanarekin.

Ez gaitezen azalean geratu, eta ezagut ditzagun herri bakoitzak dituen ñabardura eta ezaugarri propioak. Hori baita historiara pasako den ondare garrantzitsuena.

**"Argi dago herri baten ondarea ez dela adreilura mugatzen"**

Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com
TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK
Amillaga 5, behea - BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

# Errandonea eta Bakaikoa finalean faborito

Soraluze lau t'erdiko finala jokatuko da martitzenean Udal Pilotalekuan, 19:30ean

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Soraluze lau t'erdiko txapelketaren momentu erabakigarria heldu da. Pasa den martitzenean bigarren finalaurrekoak jokatu ostean, Errandoneak nagusietan eta Bakaikoak promesetan badituzte aurkariak finalerako prest.

Martitzenean, martxoaren 17an, 19:30ean, Bergarako Udal Pilotalekuan jokatuko dira promesen eta nagusien mailetako finalak. Promesen mailan, Bakaikoak Zubiriaren aurka jokatuko du eta nagusien mailan, txapela Errandoneak eta Larrañagak lehiatuko dute. Herriko zein ibarreko pilotazaleek gogotik disfrutatuko dituzte bi finalak, Reyes Azkoitiaren esanetan oso parekatuak izatea espero da-eta.

**Ikuskizuna pilotalekuan**

Nagusien mailan Errandonea jotzen dute faborito; hala ere, Larrañagak txapelketa paregabea izan du, eta, finalerdiari buelta eman ostean –9-1 galtzen hasi eta 12-22 irabazi zuen–, indarrez eta konfiantzaz kantxaratuko da. Azkoitiak bi jokalarien gaztetasuna azpimarratu du; izan ere, biak promes mailan lehia zitezkeen adinagatik. Hala ere, nagusien mailan zergatik dauden argi utzi dute txapelketan zehar.

Promesen finalari dagokionez, Bakaikoa da faboritoa, baina Zubiriak merezimenduz lortu du finalerako txartela eta partidu bakarrean edozer gauza gerta daitekeela argi geratu zen aurreko urtean, Ioldi faboritoak finala galdu zuen-eta.



Errandonea pasa den urteko finalaurrekoa jokatzen. | J.D.

# Jeltzaleek herritarren ideiak nahi dituzte

Bergararren proposamenak jaso nahi dituzte programa osatzeko

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Udal hauteskundeetako programa osatzen joateko, eta herriko hainbat eragilerekin batu eta gero, Bergarako EAJk eskuorriak banatuko ditu herriko etxebizitza guztietan, herritarren iritziak eta iradokizunak jasotzeko.

Bergarako alkategai jeltzale Juanje Alberdik martitzenean egin zuen agerraldian azaldu zuen asteak daramatzatela herriko kirol eta arlo sozio-ekonomikoko eragile eta norbanakoekin batzartzen.

**Herritarren proposamenak**

Batzartzen jarraitzeko asmoa duten arren, ahalik eta programa osoena egiteko herritarren iritzi eta proposamenak jaso nahi dituzte. Horretarako, etxez etxe banatu duten eskuorrian, hainbat galdera dituen orria eta gutun-azala gehitu dituzte, bergararrek iradokizunak era anonimo eta doakoan egin ahal izateko. Horrez gain, Internet bidez bidal daitezke proposamenak *eajbergara@gmail.com* helbidera.

# Azokako merkatarien egunerokoa ezagutzen

J.D. | BERGARA

Herriko gaztetxoak azokara gerturatzeko helburuarekin, egun berezia ospatu zuten atzo, eguena, Oxirondon. Udalak, Agenda 21ekin batera, herriko lau ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako zenbait ikaslek goiza azokan eman zuten erosketak egiten.

Ikasleei txartelak banatu zizkieten erosketak egiteko, eta gela bakoitzeko ikasleek otarrea nola bete erabaki behar izan zuten, adi-adi zeuden baserritarren laguntzarekin. Neska-mutikoen erantzuna ikusita, helburuak aise bete zituzten; izan ere, azokara gerturatzeaz gainera, bertako produktuak gertutik ezagutu zituzten eta baserritarren eta azokako merkatarien errealitatea eta egunerokoa ezagutu zuten.



Gazte bergararrak azokan. | J.D.



Olano eta Alberdi, Lazpiur enpresa bisitatzen. | IMANOL GALLEGO

# Markel Olanok Bergara bisitatu zuen atzo, eguena

Industriari dagokionez herriak zortzi urtean "nabarmen atzera" egin duela esan zuen hautagaiak

J.D. | BERGARA

Bergarak Debagoieneko industria izan "duen pisua" berreskuratu beharra daukala esan zuen Markel Olanok, EAJko hautagaiak, eta horretarako "erakundeen laguntza ezinbestekoa" dela gaineratu.

Olano, Juanje Alberdirekin batera, Soraluce enpresan, Lazpiur enpresan, Miguel Altuna institutuan, erretiratuen etxean eta Aroztegi aretoan egon zen atzo, eguena, goizean, Bergarako errealitatea ezagutzeko asmoz.

Ezker abertzalea "enpresatik oso urrun" dagoela esan zuen Olanok, eta azken urteetan Gipuzkoako ekonomia kudeatzeko gai izan ez dela azpimarratu.

Aurreiritzi ideologiko "handiak" izatea leporatu zien ezker abertzalekoei, eta, Olanoren arabera, horren ondorioz enpresekin "ia harremanik" ez dute izan.

**Miguel Altuna eredu**

Miguel Altuna institutua erakunde publiko eta pribatuen arteko "arrakasta" bezala jarri zuen, eta "erreferentziazko zentro" bihurtuko dela gaineratu. Larramendiko industria poligonoaren gainean ere jardun zuen Olanok, eta poligonoa ia hutsik dagoela azpimarratu. Alberdik aprobetxatu zuen EAJren lehentasuna "industria sare sendoa" sortzea izango dela esateko, eta "kalitatezko lanpostuak" sortzeko konpromisoa erakutsi zuen.

Kultura ere izan zuten hizpide Olanok eta Alberdik, eta Aroztegi aretoan Beart margolari elkartea gertutik ezagutu zuen ahaldun nagusi izateko hautagaiak.

## Muniategiren mutilek garaipenaren bideari eutsi nahi diote

Soraluze BKE eskubaloi taldekoek Egia Koxko Taberna taldea izango dute aurrean Labegaraietako kantxan zapatuan, 18:00etan. Muniategiren mutilek taulako azken postuetatik alde egiteko aukera ona dute asteburuan. Azkeneko partidua etxetik kanpo galdu ostean, garaipenaren bidean jartzea izango da bergararren helburua.

## Saskibaloi-zaleen laguntzarekin bosgarrena lortzera

Azken lau partiduak irabazita, bolada onarekin jarraitu nahi dute etxekoek, eta Allerru taldea menderatzen saiatuko dira bergararrak. Sailkapeneko goiko partean daude bi taldeak eta asteburukoa lehia garrantzitsua izango da. Bi taldeak 36 punturekin berdinduta daude eta garaipenak goiko postuetako lehian sartzeko balioko du.

## 'Ehunka' izeneko lehiaketa antolatu du Gure Esku Dagok

Martxoaren 10ean ekin zioten lehiaketari, eta, apirilaren 25era arte, erabakitzeko eskubidearen alde banatzen ari diren oihal zatietan idatzi zein marraztutakoari argazkia atera eta hori bidalita sari ederra lortzeko aukera egongo da. Parte hartzeko, argazkiak *bergarakogureeskudago@gmail.com* helbidera bidali beharko dira.

## Ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea zabalik dago

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren erroldа onartu berri du Udalak. Dagoeneko zabalik dago zerga ordaintzeko borondatezko epea, maiatzaren 16ra arte. Egun horretarako zerga ordaindu ezean, errekargurekin eskatuko direla aurreratu dute Udaletik. Helbideratutako ordainagirietan maiatzaren 16an kargatuko dira.

## 'Oparitu zuhaitz bat' egitasmoak antolatuta, hitzaldiak martitzenean

Martitzenerako, hilak 17, berbaldia antolatu dute kultura etxean, 19:30ean. Berbaldi horretan, lau gairen gainean jardungo dute hizlariek eta euren iritzia plazaratuko dute. Eta gaiak hauexek izango dira: errenta basikoa, Fiareren eta halako banku etikoen jarduera, kooperatiba energetikoak eta *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoa.




*Postaka* antolatu duten eragileak batu ziren gaztelekuan, martitzenean, prentsaurrekoa egiteko. | IMANOL BELOKI

# 'Postaka' egingo dute Eskoriatzako herritarrek

Korrika ofizialak ez duenez herria zeharkatzen, Korrika Txiki bat prestatu dute

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Eskoriatzako Ixotu Euskarak eta gaztelekuko Gazte Taldeak Korrika Txiki bat antolatzea pentsatu dute martxoaren 20rako, Korrika batzordearen baitan. Eskoriatzako euskaran *korrika* esan nahi du *postaka*-k, eta izen horrekin bataiatu dute eguna.

Ekimenaren helburua da kalez kale, herriko eragileen parte-hartzearekin, euskarari bultzada herrikoia ematea. Martxoaren 23an pasatuko da 19. Korrika Eskoriatzatik, eta herritarrei Korrika badatorrela ohartarazteko antolatu dute.

Hasiera batean, Eskoriatzako Intxaurtxueta auzoko biribilgunera soilik iritsi behar zuen Korrika ofizialak, eta, hainbat saiakeraren ondoren, erdiguneko biribilguneraino heltzea lortu dute bi ekimenek. Hori gutxi iruditu zaie Eskoriatzako Ixotu Euskarako eta gaztelekuko Gazte Taldeko antolatzaileei, eta, horregatik, herri osoa zeharkatuko duen Korrika Txikia prestatu dute martxoaren 20rako. Korrika ofiziala imitatzeko asmoz, ibilbidean testigua eramateko prest dauden elkarte eta herritarrei gonbidapena egin diete antolatzaileek, eta herriko elkarte gehienak animatu dira parte hartzera.

*Postaka*-ren ibilbidea Intxaurtxueta auzoan hasiko da, eta goiko kalean buelta eman ondoren, bukaera herriko plazan izango da. Hasi aurretik, 17:00etan, musikaz girotutako umeendako jolasak egongo dira plazan, ekimena girotzeko asmoz.

*Postaka* amaitzean, atxikimendu-mezua irakurriko dute eta musika emanaldia izango da, Hankamotx bertso eskolakoen eskutik bertsoak, txistularien laguntzaz kantu saioa... Hori guztia egiten den bitartean, Axtroki merkatari elkartearen tabernetan pintxo-potea egongo da.

**Pintxo-potea egubakoitzera**

Ekimen hori martxoaren 20an, egubakoitza, izango da. Izan ere, *Postaka*-ko antolatzaileek merkatari elkartearekin hitz egin dute pintxo-pote eguna eguenetik egubakoitzera aldatzeko, giro ederra egon dadin herrian.

**Komunikazio tailerra**

Domekarako, hilak 15, herria apaintzeko komunikazio tailerra antolatu du gaztelekuak, Korrika datorrela eta. Martxoaren 23an egin beharrekoez hitz egingo dute herriko gazteek. Gaztelekuan bertan izango da, 17:00etan.



ZAHARREN EGOITZAKO LANGILEAK

## Realeko jokalari bi eta jokalari ohi bat bisitan

Realeko aurrelari Chory Castro, atezain Mariasun Quiñones eta jokalari ohi Alberto Gorriz izan ziren martitzenean bisitan Eskoriatzako zaharren egoitzan. Izan ere, futbol talde horren jarraitzaile asko dago egoitzan, eta sorpresa moduan etorri ziren hiru jokalariak. Banderak, bufandak... eman zizkieten erretiratuei, eta, sinadura ugari egin ondoren, taldeko argazkia egin zuten.

# Aitor Zubizarreta Eskoriatzako EH Bilduren alkategaia izango da

**I.B.** | ESKORIATZA



Aitor Zubizarreta. | GOIENA

Aitor Zubizarreta izango da Eskoriatzako EH Bildu koalizioak maiatzaren 24ko udal hauteskundeetara aurkeztuko duen zerrendaburua. Hala adierazi du Eskoriatzako EH Bilduren herri-batzarrak oraingo astean.

60 urte ditu Aitor Zubizarretak eta eskoriatzarra da. Edorta Zubizarreta Eskoriatzako alkate ohiaren anaia gazteena, hain justu. Pedagogia eta Irakasle ikasketetan diplomaduna eta Filosofian lizentziaduna da. Gauzak horrela, irakasle izan du ogibide urte askoan: hemeretzi urtez, eta gaur egun ere, Urretxu-Zumarraga ikastolako zuzendaria da.

**Herri programa garatzen**

Alkategaia aukeratuta, Eskoriatzako EH Bildu koalizioak herri programa lantzen dihardu asteotan. Era berean, Zubizarretarekin batera koalizioaren zerrendan aurkeztuko dituzten hautagai guztiak erabaki barik dituzte, baina iragarri dute datozen asteetan jakinaraziko dizkietela herrikideei xehetasun horiek guztiak.

## Emakumeendako autodefentsarako ikastaroa antolatu du Eskoriatzako gaztelekuak

Martxoaren 8an izan zen Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, autodefentsarako ikastaroa antolatu du Eskoriatzako gaztelekuak. Kultura etxean izango da eta Emagin elkarteak eta Bilgune Feministak emango dute ikastaroa. Bi eguneko ikastaroa izango da: bihar 16:00etatik 20:00etara eta datorren zapatuan ordu berean. Emakumeendako bakarrik da, 12 eta 17 urte bitartekoendako, eta gaztelekuan bertan eman behar da izena. Doako ikastaroa da eta herriko emakume guztiei gonbidapena luzatu die antolatzaileek.

**NIRE USTEZ**

**MAIDER OTAMENDI**



## Sexurik gabea al da aurrekontu politika?

Hau izan zen aurreko astean nazioarteko jardunaldi batean erantzuten saiatu ginen galdera. Ikuspuntu feminista aurrekontu publikoen prozesuetan sartzeaz egin genuen gogoeta: politika publikoek nola eragiten duten emakumeen eta gizonezkoen bizitza kalitatean, norengana heltzen diren politikak, nortzuk diren politika horien hartzaileak...

Nazioarteko hainbat esperientzia ezagutzeko aukera izan genuen, eta Gipuzkoan egiten ari garen lana konpartitu eta hobekuntza proposamenak jasotzeko parada izan genuen. Gobernu baten borondate politikoaren adierazlea izaten da aurrekontua, hitzetatik ekintzetara pasatzeko ezinbesteko erreminta. Aurrekontuen prozesuan, berauen diseinuan, exekuzioan eta ebaluazioan, azterketa sakona egiteko baliabideak jarriz gero, posible da aurrera eramaten diren neurri eta ekintzek nori eta nola eragiten dioten jakitea, eta, honela, hasieran finkatutako helburuen betetze maila ezagutu ahal izatea, ondoren hobekuntzak planteatu ahal izateko.

Berdintasunean aurrerapausoak ematen ari garela ukaezina da, baina nahiz eta batzuek garbi ikusi nahi ez izan eta ostrukarena egin, desberdintasunak oraindik ikaragarriak dira. Garbi geratu zen aurrekontuak generoarekin neutroak ez direla!

**"Gobernu baten borondate politikoaren adierazle izaten da aurrekontua"**

# Liburuan jasota Severiano Aiastuik egindakoak

▶ 100 urte bete dira hura jaio zela Aozaratza auzoko Otala Zelai baserrian

▶ Batez ere Argentinan bizi izandakoak eta egindakoak jaso dituzte liburuan


Udal ordezkariak eta idazlea aurkezpen ekitaldian. | MIRARI ALTUBE


Severiano Aiastuiren ilobak, liburuaren zirriborroekin. | M.A.

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

*Begietatik urruti, bihotzetik urruti*, dio esaerak ("ojos que no ven, corazón que no siente") eta Severiano Aiastui marianista aretxabaletarrak buelta ematen ziola esaldi horri diote ikertu dutenek: *bihotzetik urruti, begietatik urruti* ("corazón que no siente, ojos que no ven"). Eta hark esandakoak eta batez ere Argentina aldean egindakoak liburuan jaso dituzte orain: *El cura caminador, un vasco en el Impenetrable argentino*.

**Marianista misiolaria**

Aozaratza auzoko Otala Zelai baserrian jaio zen orain dela 100 urte eta Eskoriatzako marianisten ikastetxean ikasi. Friburgon (Suitza) izendatu zuten abade eta goi mailako karguak izan zituen bai Erroman, bai Madrilen, hainbat urtean. Haren gogoa, baina, misioetara laguntzera joatea zen, eta Afrikan, Togon, egin zituen 12 urte inguru. Hori nahikoa ez, eta ondoren, 72 urte zituela, Argentinara joatea eskatu zuen; 20 urte pasatxo egin zituen han.

Aiastuiren bizipenak eta, batez ere, Argentina aldean egindako lana liburuan jasoko dute orain. Eguaztenean aurkeztu zuten, eta elkartu ziren senideak, udal ordezkariak –Ana Bolinaga alkatea eta Zigor Quintanilla, Kultura zinegotzia– eta Favio Javier Echarri idazle argentinarra. Aitor Antxia Leturia aretxabaletarrak bultzatu du liburu hori, eta Echarrik, Argentina aldean egin du lehenengo ikerketa lana, eta gero idatzi.

**FITXA**



LIBURUA

**'EL CURA CAMINADOR'**

**Egilea:** Fabio Javier Echarri.

**Babesleak:** Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aretxabaletako Udala.

**Orrialdeak:** 150.

**Prezioa:** 10 euro.

*Datozen hilabeteetan jarriko dute salgai Arkupen.

**El Impenetrable lurraldean**

Argentinako iparraldean, Paraguaiko mugatik oso gertu, dagoen El Chaco probintziako El Impenetrable lurraldean jardun zuen lanean 20 urtean: "Zaldi bat hartuta ibiltzen zen, baina lehenengo oinez; horregatik esaten zioten abade ibiltaria. 80 kilometro egiten zituen alde batera eta bestera, eta lo egiten zuen edozein lekutan, nahiz eta gauak oihanaren erdian harrapatu", adierazi du Echarri idazleak. Eta lortu zuen osasun zentro bat egitea, anbulantzia eta medikua sarriago joatea lurralde hartara, elkarte bat sortzea eta jende askoren bizi baldintzak hobetzea, besteak beste. Eta salatu zituen bidegabeko egoera eta injustizia asko eta asko politikoen aurrean. "Lurralde hartako bizilagunek ondo gogoan dute abade euskalduna, eta beti gogoratuko dute".

Ilobek ere maitasunez gogoratzen dute osaba, gizon apala eta maitagarria zelako, eta oso euskalduna: "Madrilen edo Erroman egondakoan baino gertuago sentitu genuen Afrikan eta Argentinan zegoenean. Eta beti Euskal Herriari eta hemengo kontuei jarraipena egiten, egunez eguneko jarraipena", zioen Joserra Aiastui ilobak.

## Lausitta kalean eta Larrin plazan noranzko aldaketa

Udalak jakinarazi du astelehenetik aurrera, hilak 16, Lausitta kaleko eta Larrin plazako errepidearen noranzkoa aldatu egingo dutela; hala, Arrasatetik datozen ibilgailuek Lausittatik sartu eta Larrin plazara jo ahal izango dute. Santa Kurtz kaletik Otalorara doanak –Amets taberna albokoa–, ostera, bi noranzko izango ditu. Eta Errekabarren kaleko autobus geltokia Txarapeara pasatu dute. Bestetik, Durana kaleak ohiko ordutegia izango du: 14:00etan itxi egingo dute.

Mobiliario Arenaza

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Ordaindu plataformako kideak udaletxeko osoko bilkuren aretoan. | M.A.

## Ordaindukoek eskatu duten bitartekaritzari baietza eman diote

M.A. | ARETXABALETA

Fagor Etxetresnen itxierak kaltetutakoek bete egin zuten joan den eguenean udaletxeko aretoa. Mozioa aurkeztu zuten ezohiko osoko bilkuran eta eskatu zieten udal ordezkariei bitartekari lanak egiteko Mondragon Taldearekin. Talde horretako ordezkariei eskatu gura diete mahai baten bueltan eser daitezela kaltetu guztiekin.

Jasandako kalteen berri bertatik bertara emateko aukera izan zuten Ordaindukoek eta Eskuratukoek, eta jendearen etsipenaren eta haserrearen berri jaso zuten udalbatzako kideek. Aho batez onartu zuten mozioa, nahiz eta Aralarrek eta EAJk gaia patxada handiagoarekin aztertzea faltan igarri. Ana Bolinaga alkatea hunkitu egin zen entzundakoekin: "Enpresa bat ixten denean langileek pairatzen dute egoera, eta horiek eskubide osoa dute eskatzeko erakundeei bitartekari lanak egiteko". Eta borrokan jarraitzera animatu zituen.

Beste lau mozio ere onartu zituzten, guztiak aho batez: Hassana Alia sahararraren aldekoa; torturaren aurkako eta giza eskubide guztien aldekoa; Mendebaleko Saharako auziari behin betiko konponbidea topatzeko mozioa; eta baita Emakumeen Nazioarteko Egunari begirako adierazpen instituzionala ere.

## Udalak 776.000 euroko soberakina izan du

Bidegorriaren lehen tartea egingo dutela jakinarazi du Ana Bolinagak 'Harira' saioan

M.A. | ARETXABALETA

Agintaldiari gainbegiratua egin dio Ana Bolinaga alkateak Goiena telebistako *Harira* saioan, eta pozik dago emaitzarekin, Udalaren egoera ekonomikoa "egonkortu" egin delako eta aurtengo aurrekontua %3,15 igo ahal izan dutelako: "Igoera horrekin batera gure zorra %40 jaitsiko da 2015eko abendurako, eta, gainera, soberakina 776.000 euro da. Hortaz, oso pozik gaude austeritate planaren barruan hartutako neurriek emaitza eman dutelako".

**Geltoki plazako lanak aurten**

Ibarra kiroldegiak zeresana eman du azken hilabeteetan. Kalean ibili diren zurrumurruek oinarririk ez dutela izan esan du, eta kudeaketa "primeran" doala Udalak bere gain hartu duenetik. Gainera, kiroldegiaren eta gainerako eragileen arteko harremanak "indartu" egin direla uste du. "Kudeaketa primeran doa, bertako profesionalak lan polita egiten dabiltzalako Udalarekin batera eta, nolabait, herritarrekin batera ekipo bat sortzen gabiltzalako". Bestetik, oinezkoei eman gura diete lehentasuna herrian, eta Basabeazpi ikastetxean hasi eta Kurtzebarri eskola arteko bidegorria konpondu egingo dute. Bi fase izango ditu, eta lehenengoa, Geltoki plazari dagokiona, aurten egingo dute. Irailean hasi eta bi hilabetean bukatuko dituzte lanak.

Kuartel zaharra sormen etxe bihurtzeko gogoa ere agertu du alkateak. Oraingoz, asmoa da eraikinari gutxieneko konponketak egitea: "Partida txiki bat aurreikusita daukagu konponketa batzuk egiteko teilatuan, eta gero, taberna apur bat berritu gura dugu. Udara begira, arratsalde partean ekitaldiak antolatzea da asmoa; baina oraindik ez daukagu egitasmo bat zehaztuta, asmoak dira".

**Berriro aurkeztu ez**

Politika gustuko duela onartu arren, ez da aurkeztuko 2015eko udal hauteskundeetara, eta, lau urte udal lanetan jardun ostean, "mundu hobea egitea" posible den ustearekin doa.

# Presidente jarraituko du beste urtebetez Isasmendik Basotxon

Batzar orokorra egin zuten martitzenean, eta bazkide kuota igotzea onartu

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Basotxo erretiratuen elkarteko bazkideek joan den urteko kontuak itxi eta 2015eko diru kontuak eta egitaraua onartu dituzte; martitzenean egin zuten batzar orokorra. Eta zuzendaritza batzordea berritu dute. Jose Ignacio Isasmendi presidenteak beste urtebetez jarraituko du lanean, eta alboan izango ditu, orain arte legez, Nieves Arana presidenteordea, Asun Isasmendi idazkaria, Kontxi Romano bidaien arduraduna eta Fortunato Lopez. Taldea osatzeko beste lau kide hautatu dituzte: Iñigo Olabe diruzain, Floren Elortondo kultura arduradun, Txaro Villar eta Glori Elortza.



Jose Ignacio Isasmendi presidentea azalpenak ematen bazkideei. | MIRARI ALTUBE

**Kuotaren igoera 10 eurora**

Basotxok 973 bazkide ditu. Iaz, 32 baja izan zituzten eta 44 izen-emate. "Aurten dagoeneko sei bazkide berri dauzkagu; hortaz, laster 1.000ra iritsiko garela uste dugu", jakinarazi zuten zuzendaritza batzordekoek. Diru kontuei dagokienez, 1.000 euro inguruko galerarekin bukatu zuten 2014a. "Aurreikusita ez genituen hainbat inbertsio egin behar izan dugu: megafonia sistema jarri eta ordenagailuak egokitu, esaterako", jakinarazi zuen Isasmendi presidenteak. 2015erako 77.000 euroren bueltan dagoen aurrekontua onartu zuten, eta 1.300 bat euroko defizita izango dela jakinarazi: "Hainbat lantxo egin ditugu egoitzan bertan, eta hortik dator galera hori".

Bestetik, azken bost urteotan zortzi euroko kuota ordaindu dute bazkideek, baina aurten, hamar eurora igotzea proposatu zuen zuzendaritza batzordeak; baita onartu ere.

**Gaur, hitzaldia**

Urterako egitaraua aurkeztu zuten: Portugalera eta Hungariara bidaiak; egun-pasak, adibidez Iparraldera, eta mendi irteerak; karta-joko txapelketak; eta kultura ekitaldiak, abestaldearen saioak, esaterako. Hitzaldiei dagokienez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren gaineko azalpenak emango ditu gaur, 17:30ean, Adolfo Alustizak, Lanbideko zuzendari nagusiak. Bestalde, hauteskundeetan izango diren alderdi politikoekin elkartzeko asmoa dute.

# Gasteizko bikotearendako izan da II. frontenis txapelketa

M.A. | ARETXABALETA

Martxoaren 8arekin batera bukatu zen emakumeen II. frontenis txapelketa, eta Nagore Martin eta Laura Saez gasteiztarrendako izan zen. Etxeko bikoteak, Oihana Matak eta Leire Vallek, ez zuen ezer egiterik izan (25-15). "Oso polita izan da frontoia beteta jokatzea; familiakoak, lagunak… herritar asko gerturatu da", dio Matak, pozik, eta gaineratu du: "Animoak ere ez genituen faltan izan, baina ez zen nahikoa izan. Merezimendu osoz irabazi dute txapelketa eta zoriondu besterik ez dago".

Datorren urtean ere antolatuko dutela jakinarazi dute UDAkoek, eta gaineratu: "Dena den, kirola egin gura duen emakumeak izango du aukerarik aurretik ere".

**Plazaren inauguratzea**

Zapatuan, bestetik, *Lau bankuko plaza, emakumion baza* plaza inauguratu zuten, emakumeen borroka eta lana onartuko dituen plazatxoa. Eta bertako bankuetan borroka horren aldeko esaldiak idatzi zituzten.

Ekitaldian Aretxabaletako bi emakume omendu zituzten, gainera: Jasone Gorroño eta Lourdes Llodio. Emakumeen borrokan egindako lana onartu gura izan zieten, eta, hain zuzen, eurek jarri zuten begi-bistan plazaren izena.



Bi omenduak lagunekin eta udal ordezkariekin. | MIREN ARREGI

# Mihiluze erraldoia eta bertso afaria gaur, Korrika datorrela-eta

M.A. | ARETXABALETA

Korrika badator, martxoaren 23an, hain zuzen ere, eta hori girotzeko ekitaldiak daude gaur, egubakoitza. *Mihiluze erraldoia* egingo dute Herriko Plazan, 17:30etik 19:30era bitartean, 12 eta 17 urte bitarteko neska-mutikoek, gaztelekuko kideek antolatuta –izena aurretik eman behar da gaztelekuan–. Eta iluntzean txikiteo berezia egingo dute Aretxarte merkatarien elkarteko kide diren tabernetan.

Gero, bertso afaria izango da Uratz Alde gastronomia elkartean Loramendiren eskutik. Iñaki Mantzizidor *Mantxi* eta Fredi Paia bertsolariak izango dituzte lagun Uratz Alden elkartutakoek.

**19. Korrika eta Korrika Txikia**

Hilaren 23an, astelehena, iritsiko da 19. Korrika Aretxabaletara, 08:00 inguruan, hain zuzen. Eskoriatzaraino joango da testigua eta gero handik itzuli Untzilla aldera joateko. Pasatutakoan herri gosaria egingo dute Mitarte plazan, eta ondoren, 10:30 aldera, Korrika Txikiak hartuko dio txanda. Pausoka haur eskolatik atera eta herriari buelta emango diote neska-mutikoek.

## Txakurren jabeekin bilera egingo dute martitzenean

Herriko txakurren jabeekin elkartu gura dute Udal ordezkariek eta hainbat konturen gainean jardun, beste batzuen artean zakarrontzi berrien gainean. Bilera martitzenean da, martxoak 17, 18:00etan, Ibarra kiroldegian, eta izena eman behar da deituta: 943-08 10 01 (Anabel), edo idatzita: *anabel@aretxabaleta.eus.*

## Papilarik eta purerik gabeko elikaduraren gaineko hitzaldia

Hilabetetako haurren elikaduraren inguruko hitzaldia emango du Meitai Maitie elkarteko Maitane Arrondok, Kuku Mikun. Martitzenean izango da 18:00etan. *Baby led weaning*-az hitz egingo du, sei hilabetetik aurrerako haurrei zuzenean elikagai solidoak emateko metodoaz (pure eta papiletatik pasatu gabe).



Etxaniz, Alegre eta Altzola. | M.A.

**Maider Etxaniz, Maitane Alegre eta Iñigo Altzola** | Antolatzaileak

# "Taldeak bost lagunekoak izango dira eta eurek antolatuko dituzte probak"

Udaberriko Gaztekonkis lehiaketa antolatu dute herriko gaztetxoendako hilaren 30erako eta 31rako

M.A. | ARETXABALETA

Herriko 12 eta 16 urte arteko gazteendako antolatu dute Udaberriko Gaztekonkis lehiaketa Udalak, gaztelekuak, Arizmendi kirol elkarteak eta UDAk. Martxoaren 30ean eta 31n jokatuko dute, eta Gazteria teknikari Maider Etxanizek eta gaztelekuko begirale Iñigo Altzolak eta Maitane Alegrek gaztetxoak animatu gura dituzte.

**Lehenengoz antolatu duzue lehiaketa; zein helbururekin?**

Kirola egiteari uzten diote askok nerabezaroan, eta pentsatu dugu kirola eskaintzea aisialdiari begira, ondo pasatzea izanda helburua.

**Eta zelakoak izango dira probak?**

Bi egun izango dira, eguraldiaren arabera antolatzekoak. Batean, herrian bertan egingo dituzte kirol proba motzak: punteria proba; hiruko saskibaloia; eskalatu; igerian; errugbian… Beti jolas giroan. Eta arratsaldean egingo dute korrikan taldeka eta herri kirolak. Hurrengo egunean izango da mendi buelta; ETBko *Conquis* saioan egiten dituzten antzeko probak egingo ditugu orduan. Eta azken egunean daude *zumba* eta ezusteko bat.

**Guztiak dira puntuagarriak?**

Bai, eta hiru irizpide erabiliko ditugu: probak ondo egitea; talde mistoa izatea; eta proba guztietan parte hartzea. Bi onenek jasoko dituzte sariak, baita talde eredugarriak ere. Hori baloratuko dugu hauek kontuan hartuta: euskararen erabilera; joko garbia; errespetua gainerako kideekiko eta naturarekiko…

**Zelan antolatuko zarete?**

Taldea bost lagunek osatuko dute eta erabat autonomoa izango da herriko probetan, inork ez die esango zer egin eta noiz. Batzuk igerilekuan dauden bitartean beste batzuek rokodromora joan beharko dute, eta beste batzuek futbol-zelaira, adibidez.

**Eta sariak, gazteendako aproposak.**

Bai, Laboral Kutxa Baskonia taldearen partidu bat ikusteko sarrerak eta afaria –herriko taberna batean– lehenengoarendako; izotz pistara joateko sarrerak eta afaria bigarrenarendako; eta afaria talde eredugarriarendako.

**Gazteak hasi dira animatzen?**

Bai, ideia polita iruditu zaie. Izena emateko epea martxoaren 23an bukatuko da eta Internet bidez –telefonoz sartuta ere bai– egin daiteke bi webgunetan sartuta: *Arizmendi.eus* eta *Aretxabaleta.eus.* Oporretan egongo dira, eta plan bikaina da egun horietarako; ondo pasatuko dute, seguru!

# Hiri hondakinen %84,18 sailkatu dituzte urtarrilean elgetarrek

Herritarrak zoriondu ditu Udalak, eta bide beretik jarraitzeko eskatu die

**LARRAITZ ZEBERIO** | ELGETA

Abenduaren 9an jarri zuten hiri hondakinak biltzeko sistema berria Elgetan, eta, Debagoieneko Mankomunitateak emandako datuen arabera, urtarrilean %84,18ko sailkatze mailara iritsi dira elgetarrak —perdoia: %5—. "Herritarrak zoriondu gura ditugu hondakinak ondo kudeatzen dihardutelako. Sistema berria emaitza onak ematen ari da herritarrei esker", adierazi du Elgetako alkate Oxel Erostarbek. "Bide beretik jarraitzera animatzen ditugu elgetarrak", gehitu du.

Udal arduradunek aipamen berezia izan dute auzokonpostarekin eta autokonpostarekin dihardutenherritarrendako: "A mailako konposta egiten duzuela erakutsi dute analisiek. Oso kalitate onekoa da, ortu ekologikoan erabiltzeko balio du", esan du alkateak.

**Hobetzeko daudenak**

"Badira, oraindik ere, hondakinak sailkatzen ez dituzten herritar gutxi batzuk. Ohiturak aldatzera animatu gura ditugu", esan du Erostarbek. Bestalde, edukiontzi grisetan egon beharko ez luketen hainbat hondakin agertzen direla esan du; batez ere, ontzi arinak. "Laster, edukiontzi grisetan dauden hondakinak aztertuko ditugu, bertan egon beharko ez luketen hondakinak zenbat eta zeintzuk diren zehazteko".

## Zenbait arazo edukiontzi berriekin

Txartelarekin zabaltzekoak diren edukiontzi berriek —grisa eta marroia— arazoak eman dituzte. Edukiontziak zabaltzeko eta ixteko sistemak eman du arazoa. Udalak jakinarazi du Mankomunitatearekin elkarlanean diharduela lehenbailehen konponbidea emateko. "Espero dugu bi asteko epean arazo horiek guztiak konponduta egotea", esan du Oxel Erostarbe alkateak.

Bestalde, Mankomunitateak berriki aldatu ditu ontzi arinak sailkatzeko edukiontzi horiak, eta papera eta kartoia sailkatzeko edukiontzi urdinak. Handiagoak eta berriagoak ipini dituzte, aurrekoak "oso zaharrak" zirelako.



ELGETAKO EH BILDU

## Herri programa herritarrekin

Elgetako EH Bilduk lanketa saio irekia egin zuen domekan kafe antzokian. "Pozgarria izan zen ekimenak jaso zuen babesa", adierazi dute. "Ekarpen zein ideia interesgarri pila bat entzun eta batzeko aukera izan genuen". Gaurko, barikua, herri programaren lehentasunak zehazteko batzar irekia deitu dute. Udaletxean egingo dute, 19:00etan.

## EAJ ez da udal hauteskundeetara aurkeztuko

**L.Z.** | ELGETA

Jeltzaleek astelehenko herri batzarrean berretsi zuten erabakia. "Udal hauteskundeei begira positiboki baloratzen dugu ideia guztietako herritarren iritziak jasoko dituen zerrenda osatzea", esan dute. "Zerrenda berriaren independentzia errespetatuta saiatuko gara bertan proposamenak egiten". EAJk, bestalde, ontzat jo du lau urteotan Udal Gobernuarekin batera egindako lana, eta garrantzitsua deritzo lan-ildo horri jarraipena emateari.

## Txapela, Astuan Villa, Jaitxo eta La Kokotxa dira finalerdietako lau taldeak

**L.Z.** | ELGETA

Areto futbol txapelketako ligaxka amaituta, finalerdiak jokatzeko data adosten ari dira sailkatutako lau taldeak. Asmoa da bi norgehiagokak datorren aste bukaeran jokatzea.

Txapela taldeak La Kokotxa taldearen aurka jokatuko du finalerako txartela. Iazko txapeldun Astuan Villa taldeak, berriz, Jaitxo taldearen aurka.

Aste bukaera honetan ez da partidurik jokatuko.

### ARETO FUTBOL TXAPELKETA

**AZKEN EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Intxortas Crew - Tzibaz United | 3-18 |
| Astuan Villa - La Kokotxa | 4-4 |
| Txapela-Tzibaz United | 9-5 |
| Nahaste Borraste-Jaitxo | 3-9 |

**BI FINALERDIAK (DATA ZEHAZTEKE)**

Txapela - La Kokotxa

Astuan Villa - Jaitxo

**SAILKAPENA LIGAXKA AMAIERAN**

| TALDEA | P | GOLAK ALDE | GOLAK KONTRA |
|---|---|---|---|
| Txapela | 16 | 50 | 16 |
| Astuan Villa | 13 | 49 | 22 |
| Jaitxo | 10 | 43 | 21 |
| La Kokotxa | 8 | 44 | 27 |
| Tzibaz United | 7 | 43 | 37 |
| Nahaste Borraste | 6 | 31 | 41 |
| Intxortas Crew | 0 | 10 | 88 |

## Virginia Imazen gidaritzapean ipuin kontaketan trebatzeko bost orduko tailerra Udal Liburutegian

Ikastaroa doan da, eta helduendako. Bi ordu eta erdiko bi saio izango dira: martxoaren 24an eta apirilaren 15ean, 18:00etatik 20:30era. Ipuin kontaketaren gaineko ikastaro praktikoa izango dela aurreratu dute liburutegitik. Ezinbestekoa da aurrez liburutegian izena ematea. Azken eguna martxoaren 18a da.

## OHARRAK

**ERRETIRATUEN BATZARRA**
Xalbadorpeko erretiratuek urteko batzar orokorra egingo dute gaur, barikua, Ozkarbi elkartean, 17:30ean.

**GU GEU PLATAFORMA**
Udal hauteskundeei begira sortzeko saiakeran dagoen herri plataformak bilera ireki egingo du gaur, barikua, 19:30ean, liburutegian.

**GAZTETXEKO KONTZERTUA**
Baghdad eta Pixontxis taldeak gaur, barikua, gaztetxean, 22:00etan. Sarrera: hiru euro.

**TXIRLO TXAPELKETA**
Zapatuan abiatuko da Gipuzkoako hiru txirlo txapelketa, Azpeitian. Elgetako jardunaldia apirilaren 18rako iragarri dute.

**IBILTARIEN JAIA DOMEKAN**
Mendi Federazioak irteera, bazkaria eta diploma banaketa egingo ditu etzi Elgetan. Irteera 08:00etan hasiko da. Parte hartzea irekia da.

**SORMEN TAILERRA**
Domekan familiendako tailerra egingo dute Espaloian, 18:00etan. Prezioa da bost euro familiako.



# Azken agurra egin diote Gervasio Legorbururi

## Herriko txistularien eta dantza taldearen alde egindako lana ez du ahaztuko inoiz Antzuolako herriak

**MIREN ARREGI / MAIDER A.** | ANTZUOLA

Ezin zuen bestela izan. Gervasio Legorburu txistulari antzuolarraren hilotzak hain maitea zuen txistuaren doinuz lagunduta egin zuen pasa den barikuan elizarako bidea. Oso une hunkigarriak izan ziren. Txistulariek ez ezik, arkulariek ere egin zioten elizarako bidea. Elizkizuna bukatuta, *Agurra* dantzatu zioten Herriko Plazan.


Legorburu, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak egindako omenaldian. | UDALA


Egubakoitzean azken agurra egin zioten Herriko Plazan. | IMANOL SORIANO

**Hutsune handia**

Legorbururen borondatea eta edozer musu-truk egiteko prestutasuna nabarmendu dute Txistulari Elkarteko kideek: "Hutsune handia utzi du; bihotzetik irteten zitzaion egiten zuen guztia. Beti prest zegoen laguntzeko". Txikitxoenen artean txistuarekiko eta dantzarekiko zaletasuna hari esker sustatu dela herrian ekarri dute elkartekoek gogora: "Hari esker dantza eta txistu zaletasuna Antzuolan mantendu egin da. Herri txikia da, baina txistulari asko dauzkagu; pentsa, beste herri batzuetatik deitzen digute, han ez dutelako txistularirik".

**Txistua eta dantza bihotzean**

Martxoaren 5ean, eguena, hil zen Gervasio Legorburu (1930) Antzuolan. Txistularia zen Legorburu eta makina bat lan egin zuen txistuaren alde. Ez hori bakarrik, dantzarien bultzatzaile nagusia ere izan zen. 2003an, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak zilarrezko domina eman zion; eta urte berean Herriko Bandera eman zion Antzuolako Udalak. 2008an, herriko Oinarin dantza-taldearen omenaldia jaso zuen, Karmele San Sebastianekin batera. Antzuolako Oinarin dantza taldea gidatu eta Antzuolako dantza tradizionalak berreskuratu eta indartzeko lan ugari egiteagatik, hain zuzen ere. San Sebastianekin batera, sorgin-dantza berpiztu zuen Legorburuk. Antzuolako kantu eta jolasak biltzeko lanean ere oso lagungarriak izan ziren hark emandako azalpenak, eta *Ahotsak.eus* webgunean badaude haren pasarte batzuk jasota.

# Miren Gallastegi abokatua izango da sozialisten alkategaia

**J.B. / M.A.** | ANTZUOLA


Miren Gallastegi. | IÑIGO SIERRA GOMEZ

Eibarren zinegotzi da Miren Gallastegi eta 53 urte ditu. Antzuolako sozialisten zerrendako buru izango da, "Antzuolan politika progresista eta plurala" ezartzeko asmoarekin. "Bertako ekonomiaren sustapenean oinarritua" eta "babesgabetuenen defentsan" lan egingo duela dio. Eredu moduan jarri dute Donostiako, Irungo, Errenteriako eta Eibarko udaletan sozialistek egindako kudeaketa "on, zorrotz, garbi eta hutsik gabea".

Abokatua da eta, hain zuzen, arlo horietan izandako esperientziak "Antzuolari proiektu sinesgarria eta lanean eta elkarrizketan oinarritua" eskaini ahal izateko balio diola diote. Hala dio PSE-EE PSOEk zabaldutako oharrean, hain zuzen, "Antzuolan PSE-EEk ordezkatzen duen topalekuari bidea eman" behar zaiola, "Bilduren eta Aralarren ereduarekin pairatutakoaren aurrean". Donostian, Irunen, Eibarren, Errenterian, Pasaian, Andoainen eta Zumarragan bezala, sozialisten kudeaketaren eredua ekarri gura du Antzuolara alkategaiak.

# Antzuolarrekin osatutako zerrenda egin gura du EAJk

**M.A.** | ANTZUOLA

Antzuolako Uri Buru Batzarreko kide Basilio Ormazabalek azaldu du herritarrekin elkarrizketak egiten dihardutela zerrenda osatzeko. Helburua da EAJren zerrenda herritarrekin osatzea. "Orain dela lau urte zailtasunak izan genituen eta orain ere ez da erraza. Lanean gabiltza, zerrenda herritarrekin osatu gura dugulako", argitu du Basilio Ormazabalek.

Orain dela lau urteko egoera ez dela askorik aldatu azpimarratu du Ormazabalek, baina ahaleginak egingo dituela Antzuolako EAJk: "Aukera badago eta zerrenda antzuolarrekin osatu gura dugu, esperantza daukagu. Gauzak askorik aldatu ez diren arren, espero dugu zerrenda ateratzea".

Martxoan ez, baina apirilerako prest izango du Antzuolako Uri Buru Batzarrak aukeratutako alkategaia eta zerrenda.



IMANOL SORIANO

## Martxoaren 8a aldarrikatuz

**KOMUNITATEA GOIENA** | GAZTE TXOKOA | ANTZUOLA

Martxoaren 8a aldarrikatzeko asmoz, domekan elkarretaratzea egin genuen Herriko Plazan. 30 lagun inguru batu ginen. Gazte txokoan ere, Aste Morearen baitan, genero tailerra egin dugu eta gaia landu dugu. Parte hartu duten gaztetxoak gustura aritu dira. Gainera, elkarretaratzean izan ginen eta egindako pankarta erakutsi genuen.

### Independentzia Eguna jai giroan ospatuko dute

Gaur, barikua, bertso musikatuak izango dira gaztetxekoek gertatuta, 23:00etan hasita. Bihar, zapatua, tortilla lehiaketa egongo da goizean. Triki-poteoa, bazkaria eta jolasak ere izango dira. Iluntzean luntxa eta gauean kontzertuak, Sukarra 37 eta Akerbeltz taldeen eskutik.

### Landatxopeko erretiratuek Errioxara irteera egingo dute

Martxoaren 25ean Landatxopeko erretiratuak Errioxara joango dira. Goizean Briñas herriko erretiratuen elkartean hamarretakoa egingo dute. Ondoren, Haro bisitatuko dute eta bazkaltzera Guardiara joango dira. Izena martxoaren 16an eta 17an eman daiteke elkartean bertan, 16:00etatik 18:00etara.

### Gaztetxoendako antzerkia eta bertsoak Torresoroan

*Hora libre* Ipintzako batxilergoko bigarren mailako ikasleek egindako antzezlana gaur 21:00etan ikusgai. Tartean da Olatz Abasolo antzuolarra. Eta domekan, *Bertsolharitza* ipuin kontaketa saioa, 5 eta 11 urte artekoendako, 18:00etan. Biak Torresoroa aretoan izango dira.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

# Aramaio burujabearen bidean "apustu sendoa" egiten du Udalak

Martxoaren 7an egindako jardunaldi bereziarekin pozik daude antolatzaileak

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Jardunaldi berezia egin zuten martxoaren 7an Aramaion. Jardunaldi bat baino gehiago, herri burujabe bat posible dela erakusteko eguna izan zen: biomasa proiektuaren sentsibilizazio kanpainaren zein erakusketaren aurkezpena Arteman komunikazio enpresako Rosa Mondragonen eskutik, Aramaioko bailaran burujabetza energetikoa lortzeko aukeraren gaineko azalpenak Aitor Larrañagaren ahotik, elikadura burujabearen gaineko ekonomatuaren eredua Iker Elexpururen eskutik eta Amillena taldeko Jone Arriolabengoaren aurkezpena bertako aisia zein turismoa sustatzeko. Horrez gain, Kerexera gaztandegiko Felix Ajuriak elikagaien soberakinak erabiliz autokontsumorako baliabide energetikoa lortzeko aukeraren gainean ere jardun zuen.


Azoka, bertako produktuen salmenta zuzenaren adibide. | AITZIBER ARANBURUZABALA


Bertako egurra ezpaletan zatitu zuten, Bizente Goikoetxea plazan bertan. | A.A.

Aurretik, Sastiñan bertan, zenbait bideo eta dokumental ikusteko aukera egon zen; elikadura burujabearen gaineko *Bide Berriak* eta baso kudeaketa jasangarri bat aldarrikatzen duen *Baso Ahaztuak*, besteak beste.

**Biomasa, era dinamiko baten**

Horrez gain, hainbat ekintza antolatu zituzten Bizente Goikoetxea plazan: bertako produktuen salmenta zuzena, Aramaioko produktuekin egindako pintxo dastatzea, Amillena Turismo taldearen eta Gure Esku Dago ekimenaren informazio guneak eta biomasa proiektuaren gaineko erakusketa dinamikoa.

Erakusketa horretan, bertako basoetatik ateratako egurra erregai nola bihurtzen den –egurra ezpala bihurtzeko eraldaketa prozesua, hain justu– ikusteko aukera izan zuten herritarrek bertatik bertara: "Jardunaldiak aurrera egin ahala, jende gehiago hurbildu zen, baita inguruko herrietatik ere; interes handia piztu zuen. Horrez gain, proiektuari beste bultzada bat eman zitzaion, atxikimendu kopurua handituz. Egindako bidea behar bezala aztertu ondoren, proiektua aurrera ateratzeko apustu sendoa mantentzen dugu. Gainera, datuak Eusko Jaurlaritzarekin kontrastatu ostean, ondorio positiboak atera dira. Beraz, atxikimenduak sinatzeko epea zabalik mantentzea erabaki dugu", adierazi dute Udaletik.

### Martxoaren 20a baino lehen eman beharko da izena apirileko Gorbeialdeko bertso barnetegian

Zuiako Koadrilako euskara zerbitzuak eta Arabako Bertsozale Elkarteak bertso barnetegia antolatu dute aurten ere apirilaren 8tik 10era. Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailetako ikasleendako da eta martxoaren 20a baino lehen eman beharko da izena. Parte hartu gura duten aramaioarrek udaletxera jo beharko dute (945 44 50 16). Argibide gehiagorako: 945 43 01 67.

### Alaiak elkarteak irteera antolatu du Zuiara hilaren 16rako eta gaur da izena emateko azken eguna

Alaiak erretiratu elkarteak irteera antolatu du Zuiako Koadrilan barrena martxoaren 16rako. 09:30ean irtengo dira eta Baias garagardotegia eta Basterra anaien gaztandegia ezagutuko dituzte. Era berean, janaria prestatzeko tailer bat egingo dute, eta ondoren, hango jatetxe baten bazkalduko dute. Gaur da izena emateko azken eguna; Alaiak elkartearen Laboral Kutxako kontu korronte zenbakian 25 euroko ordainketa egin beharko da.

### Denboraldiko azken txanpan sartuko da Aramaixo taldea; 18. jardunaldia bihar, San Andresen (18:30)

Amaitzera doa denboraldia Aramaixo areto futbol taldearendako. Ez da amestutako denboraldia izan, jaitsiera postuetan egin dute ia denboraldi osoa. Bar Onopko taldearen aurkako azken partidua adibide garbia izan zen; ondo hasi eta irabazten joan, baina amaieran 2-5 galdu. 18. jardunaldiko partidua bihar jokatuko dute San Andresko kantxan (18:30), Cafeteria Manai taldearen aurka. Azken bigarren sailkatuak dira aramaioarrak, sei punturekin.

# Korrikarako kilometroak bete ditugu, biba zuek!

**KOMUNITATEA GOIENA**
KORRIKA BATZORDEA | ARAMAIO

Urtarrilaren 20an egin genuen lehen batzordea. Kultura etxean gutxi batzuk elkartu arren, ilusio handiarekin ekin genion Korrika antolatzeari. Ideia zaparradaren ostean, guztion artean martxoaren 13an jaialdi bat egitea erabaki genuen, herriko kultura talde eta eragile guztion artean egindako jaialdia, herritik eta herriarentzat. Aramaioarren laguntzarekin bederatzi kilometroak bete ditugu! Biba zuek! Eskerrik asko Udalari, San Martin eskolari eta guraso elkarteari, Txirritola euskara elkarteari, Papargorri eta Bizente Goikoetxea abesbatzei, Alaiak erretiratu elkarteari, Lagun Artean dantza taldeari, musika eskolari, trikiti eskolari, Gazte Asanbladari, Gure Esku Dago ekimenari eta batzordean parte hartu duzuen guztioi! Zuek zarete Korrika, eta zuek zarete *euskahaldunak!* Bihar kiroldegian ikusi nahi zaituztegu, Korrikarako motorrak berotzen hasteko.

**Egitarau zabala gaurko**

Egitarau zabala antolatu dugu gaurko (18:30): alkatearen agurra, bertsolariak, trikitilariak, abesbatzak, dantzariak, Manex eta Mariaren kontzertua... Sarrerak salgai daude Anboto, Eki eta Añai tabernetan eta kiroldegian, bi eurotan. Martxoaren 23an, 09:20an, helduko da Korrika; Untzillatik eta Zabolatik jaitsiko da, Ibarratik igaro eta Arrasaterantz joateko.



ARAMAIOKO PILOTA ELKARTEA

## Herrarte eta Bideburu txapeldun

**Jon Herrarte eta Oihan Bideburu aramaioarrak Arabako binakako trinketeko txapeldun berriak dira gazte eta kadete mailetan, hurrenez hurren. Joan den zapatuan Gasteizen jokatutako finaletan, Herrartek eta Duandikoetxeak osatutako bikoteak Romanek eta Aiestak osatutakoa menderatu zuen, 30–25. Bideburuk eta Fernandezek, berriz, Altuberi eta Yerairi irabazi zieten, 30–19. Zorionak biei!**

LEINTZ GATZAGA

# Andreen topaketa eta bertsoak, asteburu oparoan

Bihar, zapatua, egingo dute ospakizuna 'sorginek', eta domekan izango da Korrika Kulturala

**UBANE MADERA** | LEINTZ GATZAGA

Emakumeen Nazioarteko Eguneko –Martxoak 8– ospakizuna da bihar egingo dutena Sorginak Emakume Elkartekoek. 25 andrek eman dute topaketarako izena. Eta hitzordu bikoitza egin dute, biak ala biak bihar, zapatua, eta Soran etxean.

Batetik, 13:00etan, Ander Larrañaga herrikideak Mondragon Unibertsitateko ikaskideekin egindako *Anonymous* film-laburraren emanaldia izango dute. Bi istorio uztartzen dituen labura da *Anonymous*: ama baten eta alaba baten arteko kontraesanak, batetik, eta krisiaren eragina, bestetik. Bi sari eskuratu zituen 2014an lan horrek.

Eta emanaldiaren ondoren, bazkarirako hitzordua dute. Sasoi honetako jakia den antxumea izango dute, gainera, bazkariko plater nagusi gatzagar emakumeek, bestelako gutizia batzuekin lagunduta, jakina.

**Bertsoak eta musika**

Bestalde, Leintz Gatzagako Korrika Kulturalaren batzordeak antolatutako azkeneko ekimena oraingo asteburuan izango da; domekan, kasu horretan, eta San Martin parrokian: bertso musikatuak.

Hain justu, Amaia Agirrek (Villabona, 1977), Oihana Bartrak (Bilbo, 1984), Aitzol Barandiaranek (Ataun, 1986) eta Alaia Martinek (Oiartzun, 1987) jardungo dute bertsotan. Musika jartzen, berriz, Eneko Sierrak eta Ixak Arrutik jardungo dute, saxoarekin lehenengoak eta gitarrarekin bigarrenak.

Eta bertsolariek Miren Amuritzak (Berriz, 1990) emango dizkien gaietan oinarritu beharko dute saioa.

18:00etan hasiko da bertso musikatuen emanaldia eta bertaratutakoei borondatea eskatuko diete sarreren prezio modura. Antolatzaileek herritar guztiak eta interesa duten inguruko guztiak gonbidatu gura dituzte ekimenera.

DUATLOIA

# Iban Perez: "Lasterketa ikusgarriagoa izango dela aurreikusten dugu"

▶ Bihar, zapatua, 16:00etan hasiko dute lasterketa

▶ Ordu eta erdiz itxita egongo da zirkulazioa

XABIER URZELAI | ARRASATE

Oñatiko 24. duatloia nobedade handiekin dator: batetik, biharkoa esprint distantziako duatloia izango da –5,2 kilometro korrika, 22,7 kilometro bizikletan eta 2,6 kilometro korrika–; eta bestetik, ibilbidea erabat ezberdina izango da –batez ere, bizikletako sektorekoa–. Hala, aste barruan Oñati Triatloi Taldeko hainbat ordezkarirekin zirkuitua bertatik bertara errepasatu ahal izan du GOIENAk, eta bai, lasterketa ikusgarria izango da zapatuan.

**Ordubeteko proba**

Azkarrenek ez dute denbora askoz gehiago beharko helmugara iristeko: emakumezkoak 16:00etan hasiko dira lanean eta gizonezkoak, 16:15ean. Oñatiko kaleetan 5,2 kilometro korrika egin ostean, bizikletak hartu eta Zubillagarantz joango dira, eta handik bueltan San Pedroko bidegurutzean –Etxe-Aundi jatetxe parean– Zañartuko bidea hartuko dute –Usakorantz–; ondoren, Lamiategiko malda gogorra igo eta kanposantutik Oñatira jaitsiko dira. Eta ibilbide horri bi itzuli egingo dizkiote: "Polita izango da; bizikletako sektorean ere herri erditik pasatuko dira-eta ziklistak".

Hala, bizikletak boxetan utzi eta azken sektore azkarrarekin amaituko dute lasterketa, 2,6 kilometroko korrikaldiarekin.

**Errepidea moztuta**

Lasterkarien segurtasuna garantizatuta egon dadin, ordu eta erdiz Oñatitik Zubillagarako irteera moztuta egongo da, eta baita sarrera ere: "Herritarrei barkamena eskatu nahi diegu aurretik, baina ez dago beste aukerarik, trafikoko araudi berria dela-eta zirkulazioa eten egin behar dugu ordu eta erdiz. Hala, zapatu arratsaldean, esaterako, Gasteizera joan gura duenak lehenago irten beharko du, edo lasterketa ondoren [17:30]. Dena den, egun horretan herrian geratzeko proposamena egin gura dugu, giro polita egongo delako".



Antolatzaileak, aste barruan, bizikletako sektorean. | JAGOBA DOMINGO

ESANAK

**"Bizikletako sektorea herri erditik pasako da, eta lehen ez zen halakorik"**

**"Giro polita egongo da herrian, jendea animatu gura dugu zapatuan Oñatin geratzeko"**

IBAN PEREZ | OÑATI TRIATLOI TALDEKO ORDEZKARIA

TXIRRINDULARITZA

**Eneko Lizarralde** | Murias taldeko txirrindularia

# "Esperientzia faltagatik ditugun hutsuneak ilusioarekin estaltzen ditugu"

▶ Bergarakoak lehenengo urtea du profesionaletan

▶ Kontinental mailan daude, hazteko asmoarekin




Eneko Lizarralde, Murias taldeko ziklista. | MURIAS

XABI URZELAI | ARRASATE

Kostata, baina, azkenean, Jon Odriozolak errealitate bihurtu du aspaldi buruan zuen proiektua, Murias taldea errepidean jarrita. Proiektu sendoago baten lehenengo pausoa izan da kontinental mailako taldea ateratzea, eta bertan dago Eneko Lizarralde bergararra, amateur mailatik profesionaletara salto eginda.

**Ametsa egia bilakatu da, profesional zara, eta dagoeneko hilabete pasa daramazue errepidean.**

Bai, ametsa egia bilakatu da, eta oso pozik nago. Hona iritsi garenok badakigu atzean zelako lana dagoen, urtetako lana, eta izugarri baloratzen dugu iritsi izana, asko kosta zelako proiektua abian jartzea. Orain, hau guztia defendatzea tokatzen da, eta kategoria honetara lehenbailehen moldatzea. Horretan gabiltza.

**Mallorcan egin zenuen debuta. Zer moduz?**

Arraroa egiten da gaztetatik jarraitu dituzun ziklisten ondoan egotea irteera puntuan: Valverde, Cancellara, Greipel... Eta, aldi berean, oso polita izan zen. Gero, amateur mailatik profesionaletara salto handia dago, eta ikusi dugu tropelean joateko gauza garela, baina oraindik asko dugula ikasteko. Hasiberriak gara, eta hori igarri egiten da.

**Non igarri duzu alderik handiena?**

Lasterketen erritmoan. Orain arte, aldapa gora ez dut horrenbesteko alderik igarri; akaso, jendeak gehiago neurtzen ditu indarrak hor. Baina jaisten aldea dago, eta lautadan ere tropela apurtzeko egiten diren ahaleginak oso bortitzak izaten dira: zartakoa datorrela ikusi eta, hala ere, sekulako tirakada jaso. Bestalde, hemen 200 kilometrotik gorako lasterketak dira, eta gorputza ohitu egin behar da horietara.

**Hazteko asmoz sortu den proiektua da Murias.**

Bai, eta Jon [Odriozola] eta taldeko ordezkariak horretan dabiltza lanean. Hurrengo pausoa kontinental profesional mailako taldea izatea izango da, eta horri esker lasterketa handiagoetan parte hartu ahal izango genuke: Euskal Herriko Itzulian, Vueltan....

**Orain arte, World Tourreko talde askorekin lehiatu behar izan duzue.**

Mallorcan izan gara, Almerian, Murtzian, Portugalen... Eta gu kontinentalak izanda, kategoria horretara moldatzeko ahaleginean gabiltza. Ondoren etorriko dira gure mailakoekin lehiatzeko lasterketak, baina asko ikasten ari gara.

**Esaterako?**

Anekdota bat, oso ondo neurtu behar dela txiza noiz egitera geratu [Barre]. Normalean, ziklista ezagunak geratzen direnean geratzen naiz, tropelak haiei itxaron egiten dielako. Bada, aurrekoan Beñat Intsaustik eta biok berotu ederra hartu genuen tropela harrapatzeko; haren zain geratuko zirela uste nuen, aurrean ibiltzen delako, eta ez zen halaxe izan. Ez badira 30 lagun batera geratzen, edo geratzen dena Cancellara ez bada, kontuz.

**Zelako taldea zarete?**

Esango nuke talde euskaldunen nortasuna dugula, ihesaldietan sartzekoa, aldapa gora txukun ibiltzen den jendea dago taldean, eta lautadan ere moldatzen gara. Esprinterako jende azkarrik ez dugu, eta esperientzia ere falta zaigu, baina ilusioarekin estaltzen ditugu hutsune horiek.

**Kontinentalak izateko, oso egutegi betea duzue.**

Bai, ez dugu kexatzerik. Lasterketa askotan egongo gara, Errioxan, Madrilen, Burgosen... Taldea bi zatitan banatuko dugu: hala, pisu handiagoa dugunok, edo lautadan hobeto moldatzen garenok [barre], Frantziako klasikoetan parte hartuko dugu. Talde gutxi daude maila kontinentalean halako egutegiarekin. Horregatik diot ezin garela kexatu, itxura polita hartzen diot taldeari.

**"Kontinental profesionalera pasatzea izango da hurrengo pausoa"**

**"Berezia da jarraitu dituzun ziklista horien ondoan zaudela ikustea"**


Iazko proban, ziklista bat edariak dauden postutik pasatzen. | GOIENA

MENDIKO BIZIKLETA

# Euskadiko Openeko lehenengo proba domekan jokatuko dute

Aramaion izango den lasterketarako 160 bat ziklista espero dituzte; 11:00etan izango da irteera Azkoaga auzoan, eta helmuga Barajuenen

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Euskadiko Openak zazpi proba izango ditu; bada, lehenengoa domekan jokatuko dute, Aramaion. 11:00etan hasiko da lasterketa. Martin Arriolabengoa antolatzaileak azaldu duenez, 160 bat ziklista espero dituzte.

"Azkoagan izango da irteera puntua, pilaketarik egon ez dadin eta tropela luza dadin; ondorengo ibilbide osoa eta helmuga Barajuenen egingo dute", dio Arriolabengoak. 5,5 kilometroko ibilbidea prestatu dute antolatzaileek. Ibilbidea ohikoa izango den arren, azkeneko partean aldaketa txiki bat izango du: "Azkeneko metroetan pinudi batetik pasa beharko dute, eta aldapan gora iritsiko dira helmugara ziklistak", azaldu du. Modu horretan lasterketa "ikusgarriagoa" izango dela uste dute antolatzaileek. Hala ere, eguraldiak eragina izango du ikusgarritasunean.

### Hainbat itzuli egingo dituzte

5,5 kilometroko ibilbideari hainbat itzuli egin beharko dizkiote. Elite, master 30 eta 23 urtez azpikoek bost itzuli egin beharko dituzte; master 40, 50 eta 60, emakumeek eta gazteek, hiru itzuli; eta kadete neska eta mutilek, berriz, bi itzuli.

Probak 179 metroko desnibela izango du, guztira. Arriolabengoak adierazi du ibilbidean zehar hainbat postu egongo direla edatekoarekin; lasterketaren amaieran, aldiz, edana eta jana izango dute parte-hartzaileek. Aste bukaera berean beste lasterketa batzuk ere egongo direnez, antolatzaileek ezin dute ziurtatu zenbat parte-hartzaile egongo diren Aramaion.

### Egunean bertan izena eman

Izena aurrez ematea komeni da, federazioaren web atarian. Hala ere, egunean bertan, 10:30ak arte izena emateko aukera egongo da, doan. Lasterketan parte hartzeko, beharrezkoa da lehiaketetan federatuta egotea.

Hainbat aramaioarrek parte hartuko dute lasterketan: master 30 sailean, maila bikaina erakusten dabilen Ander Bengoa lehiatuko da; Bengoaz gain, Zigor Urainek, Iker Beitiak eta Julen Axpek ere parte hartuko dute proban. Proba nagusiaren aurretik, infantilendako probak egingo dituzte –ez dira ofizialak–. Infantil maila horretan herriko gaztetxoak ere egongo dira.

'MUSHING'-A

# Fernando Cobos eta 'Gari', Espainiako hirugarrenak

Itoitz Armendaritz, aldiz, podiumetik kanpo

A.E. | BERGARA

Martxoaren 7an eta 8an Baqueira Bereten jokatutako Espainiako txapelketan, Pol-Pol elkarteko Fernando Cobos eta haren txakur *Gari* Espainiako hirugarren sailkatu ziren. Elurretako *mushing* sailean lehiatu zen Cobos, txakur bakarrarekin.

Eskoriatzako Itoitz Armendaritzek, aldiz, ez zuen zorterik izan.


Fernando Cobo. | LEIRE ZEARRETA

### 10 minutuko zigorra

Armendaritz sei txakurrekin lehiatu zen, distantzia erdian. Zapatuan eta domekan izan zituen lasterketak –40 kilometroko ibilbidea–. "Zapatuan ondo ibili nintzen eta lehenengo postua eskuratu nuen", azaldu du. "Domekan, aldiz, zigortu egin ninduten, 10 minuturekin", dio. "Txakurren bat utzi behar bada, kontrolak dauden tokian utzi behar da; baina, kontrola autotik urrun zegoenez, kontroletik kanpo utzi nuen txakurra, autoaren ondoan". Horregatik zigortu zuten, eta podiumetik kanpo geratu zen.

### Euskal Herriko txapelketa

Martxoaren 28an eta 29an Euskal Herriko txapelketa jokatuko dute Linzan (Huesca). Armendaritz eta Cobos han izango dira.

ESKUBALOIA

# Ford Mugarrik zaleen babesa eskatu du biharko partidurako

A.E. | ARRASATE

Arrasate eskubaloi taldeak zaleen babesa eskatu du bihar, 18:30ean, jokatuko duen ligako partiduari begira. Izan ere, etxekoek Santoña hartuko dute Iturripen. Santoña ligako hirugarren postuan dago 36 punturekin eta Ford Mugarri laugarrenean 35 punturekin.


Jokalaria jaurtiketa egiten. | GOIENA

### Sailkapenean aurrera egin

Hortaz, zaleen laguntza ezinbestekoa izango dute partidua irabazi eta Santoñari aurre hartzeko sailkapenean. Eskubaloi elkarteak hau esan du, ohar bitartez: "Jokalariei animoak eman eta denboraldian zehar egiten dabiltzan esfortzua eskertzeko modua izango da zaleen babesa". Hala, zaleei *Oi, oi, oi, Arrasate eskubaloia!* oihukatzeko dei egin diete.



XAKEA

# Arrasate-Arlutz xake taldeak txiripaz eutsi dio Euskal Ligari

## Bina berdindu zuen azken jardunaldian, Sestaon

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Euskal Ligan dihardues Arrasate-Arlutz xake taldeak mailari eutsi dio. "Azken jardunaldian beti egoten da karanbolaren bat, eta oraingoan ere bai. Zorionez, gure aldekoa izan da, eta maila mantentzea lortu dugu", esan du Aitor Alcaidek.

Azken jardunaldian Batalla taldearen kontra lehiatu ziren, Sestaon, eta, bina berdindu ostean, sailkapenaren zortzigarren lekuan bukatzeko beharreko puntua lortu zuten. "Datorren urtean berriro egongo gara maila zorrotz horretan. Sufritu egingo dugu, baina ikasi ere bai. Maila handiko xakelariak daude Euskal Ligan", azpimarratu du Alcaidek.

Fran Miguel, Andoni Miguel, Juan Manuel Ruiz eta Aitor Alcaide bera izan dira Arrasate-Arlutz taldeko xake jokalariak Euskal Ligan.

**Gainerako taldeak**

Aste bukaera honetan hil edo biziko lehiak izango dituzte Gipuzkoako Preferente Mailan eta Lehen Mailan lehiatzen diren taldeak.

Preferenteko taldeari partida bakarra geratzen zaio eta mailari eusteko emaitza ona lortu beharko du. "Lehen euskal mailatik Gipuzkoako bi talde jaitsi direnez, Errenteria eta Anaitasuna, beste maila guztietan bina talde jaitsiko dira", esan dute taldeko kideek.

Lehen mailako taldearendako zailagoa izango da maila mantentzea. Partida bakarraren faltan, sailkapeneko hamargarrena hiru puntura daukate. "Gure partida irabazi eta zain geratu beharko dugu", diote.

Azkenik, Bigarren Mailarako igoera fasean dagoen taldeak gogor dihardu lanean helburua lortzeko.

IGERIKETA



NEREA ANDUAGA

# Lau domina eskola artekoetan

Aloña Mendiko eta Bergarako igerilariek lau domina lortu zituzten eskola arteko 50 metroko Gipuzkoako igeriketa txapelketan. 2005koen artean Enaitz Sagastak (Aloña) urrezkoa lortu zuen bizkarreko proban. 2003koen artean Kepa Aldekoak (Aloña) eta Sara Isasmendik (Aloña) brontzezkoa bizkar modalitatean. Eta Uxue Azkarate bergararrak urrezkoa jantzi zuen 50 metroko tximeleta proban, 2004an jaiotakoen artean.

FUTBOLA

# Antzuolak bakarrik jokatuko du etxean

M.B. | ARRASATE

Ohorezko Erregional Mailako 25. jardunaldian Antzuolak bakarrik jokatuko du etxean. Beste *final* bat izango du, Touringen kontra. Maila mantentzeko aukerak agortzen hasi zaizkie antzuolarrei eta guztia irabazi beharko dute kontuak egiten hasteko.

Aurreko aste bukaeran Agorrosinen eta Azkoagainen galdu ostean, puntu beharrean daude Bergara eta Aloña. Partidu zailak izango dituzte biek ala biek, baina, era berean, irabazteko beharra dute. Bost talde daude bi puntuko aldearekin, lehia estuan.

Azkenik, Aretxabaletak Real Unionen kontra jokatuko du. Aurreko asteko derbiarekin bolada txarra bukatu zuten, eta orain, bigarren lekuari eutsi gura diote.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Antzuola-Touring
Zapatua. 16:30. Estala.
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Altamira.
Hernani-Bergara
Zapatua. 17:00. Zubieta.
Real Union-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Gal.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Zestoa-Mondra
Zapatua. 16:00. Zestoa.
Aretxabaleta B-Beasain
Domeka. 16:30. Ibarra.

**LEHEN ERREGIONALA**
Sto Tomas Lizeoa-Bergara
Domeka. 17:15. Donostia.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Mondra-Tolosa
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Aurrera-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Ondarroa.
Aloña Mendi-Billabona
Domeka. 16:30. Azkoagain.

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**
Antzuola-Zumaiako
Domeka. 16:30. Estala.

**OHOREZKO KADETEAK**
Zumaiako-Bergara
Zapatua. 13:00. Aita Mari.
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Altamira.
Zarautz-Mondra
Domeka. 12:30. Asti Txiki.

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**
Aloña Mendi-Urki
Domeka. 11:00. Azkoagain
Martutene-Altamira
Zapatua. 11:00. Donostia.

**OHOREZKO INFANTILAK**
S.A.N.S.E-UDA
Zapatua. 12:00. Felix Garin.
Aloña Mendi-Astigarraga
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

**INFANTIL TXIKI**
Bergara-Tolosa
Zapatua. 15:45. Ipintza

**EMAKUMEEN ERREGIONALA**
Zumaiako-Mondra
Zapatua. 15:30. Aita Mari.
Arizmendi-Mariño
Zapatua. 15:30. Ibarra.

**EMAKUMEEN ERREG. KOPA**
Bergara-Antigua Luberri
Domeka. 17:30. Ipintza.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKAL LIGA**
Eskoriatza-Scalibur
Zapatua. 18:00. Manuel Muñoz.

**LEHEN MAILA**
Aretxabaleta-Euskalduna
Egubakoitza. 21:00. Ibarra.

**BIGARREN MAILA**
Anoeta-Mondrate
Zapatua. Zehaztu barik. Anoeta.

**SENIOR NESKAK**
Legorreta-Eskoriatza
Zapatua. 16:30. Harripila.

**GAZTE MUTILAK**
Aloña Mendi-Laskorain
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

**ESKUBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Ford Mugarri-Santoña
Zapatua. 18:30. Iturripe.

**EUSKADIKO TXAP. GIZON.**
Bergara-Egia
Zapatua. 18:00. Labegaraieta.

**LEHENENGO TERRITORIALA**
Usurbil-Izarraitz Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Usurbil.

**BIGARREN TERRITORIALA**
Bergara-Leizaran
Zapatua. 13:00. Labegaraieta.

**SASKIBALOIA**

**EBA MAILA**
Santurtzi-MU
Zapatua. 18:45. Santurtzi.

**LEHEN MAILA**
Cafes Aitona-Natra Oñati
Zapatua. 20:00. Donostia.

**GIZONEZKO SENIORRAK**
Soraluze BKE-Allerru
Zapatua. 16:00. Lagebaraieta.
Cafes Aitona-MU
Zapatua. 20:00. Altza.

**EMAKUMEZKO SENIORRAK**
Summa Aldapeta-Eskoriatza
Zapatua. 20:00. Chaminade.

**ERRUGBIA**

**BIGARREN MAILA**
Kanpazar ART-Uribealdea
Zapatua. 16:00. Mojategi.

**DUATLOIA**

**OÑATIKO 24. DUATLOIA**
Esprint distantziakoa
Zapatua. 16:00. Oñati.

**PILOTA**

**UDABERRI TXAPELKETA**
Arrasaten:
Gaur, 20:15ean:
Arrasate-Euskal Jolas (infantilak, 2. maila)



# KULTURA

# Bi aramaioar Arabako txapelaren bila

- Manex Agirre eta Xabi Igoa izango dira Perea, Enbeita, Viñaspre eta Sanchezekin batera
- Martxoaren 21ean da bertsolari txapelketako finala 17:30ean, Gasteizko Printzipal antzokian

**MIRARI ALTUBE** | ARAMAIO

Arabako 2015eko txapela sei bertsolariren artean dago eta sei horietako bi aramaioarrak dira: Manex Agirre eta Xabi Igoa. Lehenengoa eskarmentu handikoa, 18 urte zituenetik Arabako txapelketan jardundakoa, final askotan izan dena eta txapela janztea zer den badakiena –2011ko txapelduna–. Bigarrena, aurrekoaren ikaslea, txapelketetan jardundakoa, baina lehenengoz iritsi dena finalera. Eta taula gainean beste lau lagun izango dituzte nor baino nor gehiago: Oihane Perea (Gasteiz, 1977), Zigor Enbeita (Abornikano, 1971), Iñaki Viñaspre (Abetxuko, 1984) eta Ruben Sanchez (Zaragoza, 1975).



Xabi Igoa joan den zapatuan, Langraiz Okako saioan. | ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

### Prestatze lanak taldean

Berriz ere bi aramaioar oholtza gainean –orain urte batzuk Andere Arriolabengoarekin izan zen Agirre–. Eta beste hiru finalerako atean geratu dira: Paula Amilburu (629 puntu), Iker Agirre (602,5) eta Peru Abarrategi (583). Txapelketa gertatzeko gogor jardun dutela lanean erakutsi dute, eta lanak fruitua eman du: "Taldean landu dugu, eta, gainera, denboraz hasita, iaz urrian. Txapelketan jardun dugun aramaioar guztiok ibili gara batera, baita Arrasaten bizi den Zigor Enbeita ere. Talde horretatik hiru egoteak zerbait esan gura du", argitu du Agirrek, eta gaineratu: "Gero eta ziurrago nago txapelketa lantzeko modurik egokiena taldean dela, elkarri laguntzen, elkarri animoak eta konfiantza ematen; eta aurten asmatu egin dugu bide horretan". Enbeita azken urteotan bizi da Arrasaten, eta Aramaioko bertso eskolako kideekin batera jardun du lanean. Joan den astean Langraiz Okako finalaurrekoa irabazita sailkatu zen; Igoa izan zen bigarrena han. "Talde oso polita da finalean izango dena, seiok gara lagunak eta oso giro ona sortuko da; horrek indarra emango dio saioari. Nik uste dut azken urteotako finalik onena izango dela, maila oso ona dagoelako", jakinarazi du Enbeitak.

### Finaleko lanak

Martxoaren 21ean, zapatua, 17:30ean, elkartuko dira sei finalistak Gasteizko Printzipal antzokian. Aintzane Irazustak eta Marta Ugartek jardungo dute gai-jartzaile lanetan, eta bertsolariek haien gidaritzapean egin beharreko lanak honako hauek izango dira: binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko nagusian; hiruna bertso hamarreko txikian; eta hiruna bertso seiko motzean. Bakarka, hasierako puntua emanda, bina bertso zortziko txikian eta beste bina bertso gaiari, doinu eta neurri librean. Eta gero, buruz burukoan: binaka, gaia emanda, hiruna bertso; eta kartzelako lanean, bakarka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinuan eta neurrian. Eta egindako lan horiek guztiak epaitzen jardungo dutenen artean izango dira Iker Elexpuru aramaioarra eta Mikel Arroiabe aretxabaletarra.

### Sarrerak erosteko

Sarrerak erosi ahal izango dira Printzipal antzokiaren bitartez bakarrik: antzokiko leihatilan, martitzenetik zapatura (18:30-20:30) eta ikuskizuna hasi baino bi ordu lehenago; telefonoz deituta (945-16 10 45); eta antzokiko Internet zerbitzuaren bidez. Prezioa da: bazkideendako 8 euro; 16 urtetik beherakoendako 5 euro; eta gainerakoendako 12 euro.

## FINALERAKO SAILKAPENA

| BERTSOLARIAK | PUNTUAK |
|---|---|
| Manex Agirre | 695 |
| Oihane Perea | 674 |
| Zigor Enbeita | 663 |
| Iñaki Viñaspre | 645,5 |
| Xabi Igoa | 644 |
| Ruben Sanchez | 636 |

## Hasi daila azken funtziua!

**KOMUNITATEA GOIENA** | MIKEL ARROIABE | ARETXABALETA

Azken urte honeittan Korrikakin batera etorri jaku Arabako bertsolaritzan jaixa. Hau be bi urtetik behin izeten da eta hau be euskeria bultzatzen dauen ekintza bat izeten da. Izen be, azkenaldixen Araban bertsuak indarra hartu dau eta gazte jente ugeri erakarri dau euskerian jolas honetara.

Irailien 29 bertsolarik hasi zauien bidia. Handik hamahiru sailkatu zien aurreko bost finalistekin batera finalaurrekuak jokaketako. Aurten formatua aldatu da eta bertsolari bakoitzak bi saio egin dittu. Sei asteburu izen die danera eta euskal komunikabidiek astero honen barri emun daue. Eta saiuetan igerri da. Jentez lepo egon die aretuak. Legution zutik be bai batzuk, politte izen zan.

Debagoiendarrei dagokixenez, aramaixoarrak ondo ibili die, ikusten da entrenau egitten dauiela, eta Manex eta Xabi finalien sartu die. Paula be hortxe egon da. Maila ona egongo da finalien eta txapela jantzi gure dauenak gogotik egin biherko dau lan. Printzipal antzokixa eszenarixo bikaina da eta jai politta biziko dou martxuen 21ien. Hasi daila azkenengo funtziua!

**MANEX AGIRRE** | BERTSOLARIA

## "Pozik handiena da Xabi sailkatu izana finalerako eta pena Paula atean geratzea"


GOIENA

Eskarmentu handia du Agirrek (Aramaio, 1982), eta txapela janztea zer den ere badaki.

**Zelan ikusi duzu zeure burua txapelketan?**
Konfiantzarekin hasi nintzen, baina gero jaitsi egin naiz, neure lekura. Akats batzuk egin ditut eta horrek ziurtasunik eza ekarri dit. Balorazio ona da, finalerako sailkatu naiz–eta, baina kezka puntuarekin nago.

**Sailkapen buruan zeu zaude, ba...**
Bai, baina horrek bertigo apur bat ematen du, konfiantza faltsua eman dezakeelako. Finalean berriro hasiko gara hutsetik, lan handia dago egiteko.

**Bi aramaioar finalean...**
Pozik handiena horixe izan da, Igoa sailkatzea. Eta pena dut Paula Amilburu ez sailkatu izana, ate–atean geratu da...

**Ikasleak aurre hartuko dizun beldurrik?**
Batere ez, benetan asko poztuko nintzateke. Hau Igoaren txapelketa da, oso gogotsu zegoen, eta finalean da. Lehenengo finala du, ez dauka ezer galtzeko, eta ondo pasatuko du; eta horren arriskua da gauzak oso ondo egitea.

**Zeinen buruan ikusten duzu txapela?**
Bai dela zaila hori esatea! Porrak ikusleek egin ditzatela, ez bertsolariok.

**XABI IGOA** | BERTSOLARIA

## "Irakasle izan ditudan hiru lagunekin egongo naiz finalean eta ilusio handia dut"


GOIENA

Lehenengo finala du Igoak (Aramaio, 1992), eta helburua bete duela dio.

**Zelako txapelketa egin duzu?**
Gustura jardun dut eta igarri da aspalditik gabiltzala lanean bertso eskolan.

**Zein saiorekin geratu zara gustura?**
Joan den astekoarekin gustura geratu naiz, finalerako sailkatzeko balio izan didalako, batez ere. Baina Legutioko giroa beroagoa izan zen, eta horrekin ere gustura.

**Txapelketarako helbururik jarri duzu?**
Finala zen helburua, eta bete dut hori; hortaz, orain gozatzera eta ondo pasatzera noa, ez dago besterik.

**Eta finalean zer?**
Ez noa postu baten bila, ez dut horren beharrik, niretako finalean egotea saria delako, eta hori aprobetxatu gura dut.

**Eskarmentu handikoak daude finalean; horiek harrapatzeko gertu?**
Harrapatu, ez. Irakasle izan ditudan hiru lagun egongo dira nirekin batera: Agirre, Viñaspre eta Perea. Hortaz, ilusio bereziarekin nago.

**Zeinen buruan ikusten duzu txapela?**
Manexenean, ez dakit espero edo gura dudan, baina bai, Manexen buruan.

# Musika Hamabostaldiko kartelaren sustraiak

## Abuztuaren 1etik 30era Donostian izango den jaialdiaren irudiarekin "pozik" dago Lazkano bergararra

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Donostiako Musika Hamabostaldirako kartela egiteko enkargua jaso zuen momentutik, "ohorea eta ardura" zati beretan izan zituela esan du Jesus Mari Lazkano artista bergararrak.

Hasieratik ilusioz jardun zuen obran; izan ere, bizitza osoan musika klasikoa bidelagun izan du, eta, horrez gain, Musika Hamabostaldiko kartelak artista ezagunek egiten dituzte. Musikarekiko lotura etxetik datorkio Lazkanori; aita Bergarako bandan eta orfeoian ibilitakoa da, eta, ordutik hona, musikarekin loturiko hainbat lan egin ditu: Ziortzako Kontzertuen kartela eta Itoiz taldearen *Itoiz Suite* ikus-entzunezkoaren obra grafikoa, esaterako.

### Zirriborro baten eboluzioa

Koadro eta obra guztiak bezala, ideia batetik, zirriborro batetik edo koaderno bateko apunte batzuetatik jaiotzen den artelana sortu zuen Lazkanok. Donostiak agertu behar zuela "argi eta garbi" zuen bergararrak; hala ere, gaur egungo hiriari elementu arkitektonikoak kentzea erabaki zuen, "topografiari indarra" emate aldera. Beheko bozetoetan ikusten den moduan, itsasotik Donostiaren ikuspegia islatu nahi izan du Lazkanok, "betiko postaletik" urruntzeko asmoz.

Hiriak itsasoarekin duen harreman "sakon eta gogorra" irudikatzen saiatu da; eta, nolabait, gogortasun hori orekatzeko, kartelean, biolina eta hari-instrumentuak jotzeko erabiltzen den arkua gehitu du. Musika klasikoak berezko duen oreka ere transmititzen du kartelak, pasarte gogor eta intentsuak pasarte fin eta lasaiekin batzen ditu-eta.

### Prozesuaren garrantzia

Emaitza bezain garrantzitsua prozesua edo bidea dela azpimarratu du margolariak; izan ere, askotan, hasierako ideia goitik behera alda daiteke eta lanean egon bitartean "lehen ez zeuden elementu eta ideiak" sortzen dira. Musika Hamabostaldiko kartelaren kasuan, hasieran, itsaso harrotuaren gainean tuba margotu zuen. Hori nabarmenegia iruditzen zitzaion, eta atrilarekin probatzea erabaki zuen. Horrek ere ez zuen bilatutako efektua lortzen, baina arkuarekin, ostera, oreka lortu zuen.

Kartelek, gainera, "bi fase" dituztela esan du Lazkanok: lehena inpaktua da, irudia ikusi eta "momentuko emozio hori"; ostean, gogortasun horren atzean, arkuaren oreka eta goxotasuna dator. Itsasoaren horizontaltasuna arkuaren bertikaltasunak apurtzen du, "jolas" bat egin nahi izan du. Emaitzarekin "pozik" dagoela esan du artista bergararrak.

### Hurrengo obrak prestatzen

Dagoeneko hurrengo lanean buru-belarri dabil Lazkano: Londresen erakusteko koadro-serie bat. Bada, serie berriak itsasoa izango duela ardatz aurreratu du.



Donostiako Musika Hamabostaldiko kartelaren bozetoak. | JESUS MARI LAZKANO




Behin betiko kartela. | J.M. LAZKANO



Arkuaren bozetoa. | J.M. LAZKANO

KORRIKA | Goiena Klubeko bazkideendako

Korrikako arropa sorta

Goiena Klubeko bazkide bazara, martxoan zozketatuko ditugun Korrikaren arropa sortetako bat zurea izan daiteke.
Sei sorta ditugu. Izan zu ere euskahaldun!




PARTE HARTZEKO:
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eust
WhatsApp: KLUBA [Korrika] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
SMS: KLUBA [Korrika] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

19.korrika
Urepeletik Bilbora
IZAN ZAITEZTE EUSKAHALDUN!

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Jokin Labaien | Bertsolaria

# "Ez ziren ongi ikusiak eta egoera gogorrak bizi behar izan zituzten"

- 'Bertsolaritzaren sekretuak' ikuskizuna Zaldibar antzokian bihar (22:30)
- Sarrerak 4 eurotan leihatilan, eta aurrez, kiroldegian eta 'Bibe.me' atarian

A. ARANBURUZABALA | ESKORIATZA

XIX. mendeko emakume bertsolariei ahotsa eman nahi dien ikuskizuna da *Bertsolaritzaren sekretuak*. Eskoriatzako Zaldibar antzokian erakutsiko dute bihar, zapatua, 22:30ean. Jokin Labaien arrasatearrak jardungo du narratzaile lanetan.

**Nerea Elustondorekin batera egin duzu gidoia. Zer dela eta?**

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak egin zigun proposamena. Errenteriako Udalak Joxepa Antoni Aranberri Petrirena *Xenpelar*-i buruz egindako lanketa bat dauka abiapuntu. Egindako lana erakusteko, herrirako ikuskizuna egin zuten gero. Balorazio ona eginda, Euskal Herri osorako halako zerbait egitea eskatu ziguten. Orduan hasi ginen lanean Elustondo eta biok Gipuzkoako Bertsozale Elkartearekin.

**Nolakoa izan da ikuskizuna gauzatzeko prozesua?**

Eskaera jasotakoan, Joxepa Antoniz gain, beste emakume bertsolari batzuen erreferentziak jaso beharra sentitu genuen eta bila hasi ginen. Auspoa Sailean hasi ginen bila, bertan bertsolaritzari buruzko informazio ugari biltzen delako. Han ohartu ginen XIX. mendean bazirela emakume bertsolari gehiago, bat-batean zein idatziz, hainbat lekutan eta maila onean aritzen zirenak. Batzuei buruz aurkitu genuen nahiko informazio. Beste batzuen gainean, berriz, ez hainbeste. Dena den, ez dugu ezer deskubritu. Lehen zegoena bildu dugu, aurretik beste batzuek egin izan duten moduan.

**Taularen gainean lau lagun zarete.**

Bai, horrela da: Idoia Noble akordeoilaria; Hodei Untzueta eta Oskar Estanga –Eskoriatzan Jokin Murua izango da azken horren ordez– aktoreak; eta neu. Narrazioen eta musikaren bidez, XIX. mendera itzuliko gara.

**Zeinen historiak kontatzen dituzue?**

Dozena bat emakume izango ditugu hizpide, ordubete inguruan. Gehienak gipuzkoarrak dira, baina debagoiendarrik ez dugu aurkitu. Aurkitu ditugunak baino gehiago izango zirela uste dut.



Jokin Labaien. | G. B. E.

**"Kontatutakoaz hausnartuta, pauso bat emango genuke historia berridazten"**

Horrek ere eman digu zer pentsatua, zergatik ezagutzen ditugun bakarrik garai hartako gizonezko bertsolariak; zergatik gorde eta zabaldu diren batzuk soilik...

**Zeri kantatzen zioten eta non?**

Ez ziren hain desberdinak garaiko gizonekin edo gaur egungo bertsolariekin alderatuta. Egunerokoari kantatzen zioten, gaur egun bezala. Aurkitu dugunaren arabera, fedeari abesten zioten, garaiko gertakariei, inguruan gertatzen zitzaizkien gauzei. Dakigunagatik, etxean eta etxetik kanpo kantatzen zuten, gehiago edo gutxiago, eta txapelketetan ere aritzen ziren zenbaitzuk. Batzuk, gainera, oso ezagunak ziren. Ez ziren ongi ikusiak eta egoera gogorrak bizi behar izan zituzten. Horiek guztiak kontatuko ditugu.

**Historia berridatzi beharra dago, beraz. Nola egin daiteke hori?**

Ez dakit hori nola egin daitekeen. Lehenik eta behin, sekretupeko historia zati hori kontatu egin behar da. Eta hausnartu. Hori lortuz gero, emango dugu pausotxo bat, eta joango gara gauzak aldatzen, eta historiari desberdin begiratzen. Baita etorkizunari ere. Eta jendeak begirada aldatzen badu, eskura izan beharko ditu eredu, tresna eta baliabideak bere inguruan eragiteko. Gustatuko litzaiguke ikuskizuna eskaintzen dugun herrietan bilatzeko gogo hori piztu eta jendea bere inguruan halako gaiak ikertzen hastea. Baliabideak lortu eta ikertzen hastea, alegia.

# Azkaiterren ibilbide musikalaren dokumentala

KOMUNITATEA GOIENA | UNAI AZKARATE | BERGARA

Azkaiter Peloxen hamaika urteak ordu erdian laburbildu ditugu Markel Castelok eta biok. Bihar, jaioterrian, Laino skate parkean, 19:30ean aurkeztuko dugu ikus-entzunezko hori.

Lan horretan, kolaboratzaile eta lagunekin elkarrizketak, zuzenekoak eta hainbat biratako irudiak eta bideoklipak daude jasota. Julen Narbaitzak, Ibaiak berbena taldeko gitarra-joleak, esaterako, gitarra jotzen ikasteko beharrezkoak diren afinazio eta teknikak nola erakutsi zizkidan azaltzen du. Birei dagokienez ere askotariko bizipenak erakutsiko ditugu: Fly Shit taldekoekin Katalunian barrena, 2007an Mahaster Riverrekin Eskoziara egindako bidaia, 2010ean Irlandan...

Herriko aurkezpena ere mimo handiz prestatu dugu: iluntzean dokumentala erakusteaz gainera, 22:30ean, askotariko lagun eta kolaboratzaileekin batera kontzertua eta *jam* saioa egingo dugu. Gonbidatuta zaudete!

# 'Verdi que te quiero verdi' antzeztuko du Oroimenak taldeak eguaztenean Oñatin

ONCEren baitako antzerki taldean antzezle gehienek dute ikusmen mugatua

MIREN ARREGI | OÑATI

*Verdi que te quiero verdi* antzezlana taularatuko du Donostiako Oroimenak taldeak datorren eguaztenean, martxoak 18, 17:00etan, Santa Ana antzokian. Emanaldia Pake Lekuren Udaberriari Ongietorria ekimenaren baitan egingo dute.

Ez da ohiko emanaldia izango, aktore gehienek ikusmen mugatua baitute: "Hamahiru lagun gara taldean eta euretatik zortzik dute ikusmen mugatua", dio antzerki taldeko zuzendari Josema Langarak. ONCEren baitan sortu zen taldea, 1992an. Hasieran inprobisazioak egiten hasi ziren, "oroimenak lantzen", eta 2004an hasi ziren antzezlanak aurkezten. Ordutik hona, urtero estreinatu izan dute lan bat. "Helburua da agertoki gainean antzezlea ahalik eta autonomoena izatea. Gure eszenaratzea oso soila da: sofa bat, bi aulki eta mahai bat. Bestelako erreferentziak ere ipintzen ditugu, ikusmen urritasuna dutenak euren kabuz mugi daitezen", dio Langarak.



Antzezlanaren une bat. | GOIENA

**'Verdi que te quiero verdi'**

Iaz estreinatu zuten *Verdi que te quiero verdi*, eta, esandako moduan, eguaztenean egongo da ikusteko aukera, 17:00etan, Santa Ana antzokian. Sarrera doanekoa da.



GOIENA

## 'Porrota, arrakastaren ernamuina'

Huhezik antolatutako Komunikaldiek porrota izan dute aurten oinarri: *Porrota arrakastaren ernamuina*. Eguaztenen batu ziren Garaia Berrikuntza Gunean, ikus–entzunezkoen alorrean diharduten adituen bizipen eta esperientziak entzuteko. Egun osoko jardunaldia izan zen. Porrotetik atera daitezkeen irakaspenen gainean aritu ziren bertan hainbat aurpegi ezagun; besteak beste, Iban Garate aktorea eta Pablo Malo eta Asier Altuna zine zuzendariak. Berbaldiek jende asko batu zuten Garaia Berrikuntza Gunean.



Ane Gartzia, Karlos Zubikoa, Iñigo Mugurutza eta Iban Larreburu. | GOIENA

# Lurra taldea etzi Eskoriatzako Inkernu tabernan, 18:30ean

Iñigo Mugurutzaren azken proiektua da Lurra

M.A | ESKORIATZA

Kontzertua eskainiko du Lurra taldeak etzi, domeka, Eskoriatzako Inkernu tabernan, 18:30ean. Iñigo Mugurutzaren azken proiektua da Lurra; gitarra akustikoaz, baxuaz, perkusioaz eta ahotsaz osatuta dagoena. "Sistema suntsitzaile eta ero honekin" kritiko azaltzen da taldea, eta, Iñigo Mugurutzaren talde guztietan bezala, lurrarekiko eta inguruarekiko hitz konprometituz osatzen dira abestiak. 2014n argitaratu berri du taldeak bere lehen lan luzea; *Akatsa sisteman* deiturikoa. Soinu akustikoaren arrastoan, indiefolk, world, blues, reggae... doinuak aurkituko ditu entzuleak bertan. Ane Gartzia (ahotsa), Iñigo Mugurutza (gitarra akustikoa), Karlos Zubikoa (baxua) eta Iban Larreburu (perkusioa) dira Lurra.



Amagoia Elizagoien bertso irakaslea Eskoriatzako plazan.

IMANOL BELOKI

**Amaia Elizagoien** | Bertsolaria eta bertso irakaslea

# "Bertsolaritzak hainbat alor ditu, ez da txapelketarekin bakarrik amaitzen"

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA

Amaia Elizagoien (1994) Oronozkoa (Nafarroa) bertsolaria da, eta Eskoriatzan bizi da gaur egun. Goi mailako Haur Hezkuntza heziketa zikloko ikasketak ari da egiten Bergarako Mariaren Lagundia ikastolan. Ikasketak egiteaz gain, Eskoriatzako Hankamotx bertso eskolako irakaslea da, eta, nagusiei eskolak ematen ibili ondoren, gaztetxoei ematen hasi berri da orain dela bi aste.

**Nondik datorkizu bertsoetarako zaletasuna?**

Aita bertsolaria da eta 32 urte daramatza Nafarroako txapelketan parte hartzen. Haren saioak ikustera joaten nintzen, eta, bertsoak asko gustatzen zaizkidanez, 5 urte nituela-edo bertso eskolan hasi nintzen eskolak hartzen.

**Bertsolari jaio ala egin egiten da?**

Betiko galdera da... bertsolari egin egiten da. Denok ditugu gure beldurrak... baina saiatuz eta ilusioa izanez disfrutatzen hasi eta bertsoak bakarrik sortzen dira. Bertsolaritza taula gainarekin lotzen dugu, baina bertsolaritzak hainbat alor ditu, ez da txapelketarekin amaitzen. Batzuk idazten oso onak dira eta bat-batekoan ez dira nabarmentzen. Lagun arteko saioak ere izaten dira, bertso afariak... hori sustatu behar da.

**Nola hasi zinen Hankamotxen eskolak ematen?**

Eskoriatzara bizi izatera etorri nintzenean, bertsoak egiteko talde bila ibili nintzen, eta, hori beharrean, eskolak emateko aukera eman zidaten. Oso pozik eta gustura nago nagusien eta haurren taldeekin. Ea jende gehiago animatzen den...

**Zenbat lagunek osatzen dute taldea? Nagusiak eta gazteak?**

Nagusien taldeak denbora luzeagoa darama eta hamabi lagunek osatzen dute, baina guztiok ez gara beti elkartzen. Normalean, sei edo zazpi egoten gara. Gazteekin, berriz, duela bi aste hasi ginen, eta, oraingoz, hiru mutiko bakarrik daude. 9 eta 10 urtekoak dira, eta, gutxi izan arren, oso pozik nago.

**Nola prestatzen dituzu eskolak?**

Gazteekin joko bezala prestatu behar dira eskolak, bortxatu gabe. Hala, denbora aurrera joan ahala, jokoa bertso bilakatzen da eta haurrak disfrutatzen hasten dira. Nagusiekin, aldiz, beste modu baten prestatzen ditut eskolak. Beste kultura bat dute bertsoekiko; bertsoak entzun dituzte, gehiago dakite, hobeto ulertzen dute... Lana teorikoagoa da, oinarri batzuk finkatuz bertsolaritzaren eskeletoa nola egiten den ikasten dugu, eta, pixkanaka, bertsoak egiten ikastea, arauak kontrolatzea... soltura hartzen hastea... da egin behar dutena.

**Eta Eskoriatzan badago bertsozaletasunik?**

Bai, nik uste dut badagoela bertsozaletasuna, eta ez bertso eskolan bakarrik. Azken batean, ez da futbola bezala, bertsolaritza ez dago hain zabalduta zentzu horretan. Nire ustez, bertsoak egiteko aukerak badaude, baina sustatu egin behar da, euskal kultura da-eta.

**Etorkizunean irtengo da bertsolaririk Hankamotxetik?**

Bai, irtengo dira, duda barik. Lan egiteko gogoz daudenak irtengo dira; izan ere, bertsolaritza ez da egun bateko karrera, karrera luzea da. Hau da, gogoz hartzen badute, bertsolari onak irtengo dira.

**Oronoztarra izanda, Eskoriatzako euskararekin arazorik bai?**

[Barre] Eskoriatzako gaztetxoak oso argiak dira eta zirikatu egiten naute. "Hori ez da hemengo hitza", esaten didate, baina ulertzen didate. Oso polita da euskalkiak nahastea.

**Eskoriatzan zer moduz bizi zara?**

Herri txikitik nator, eta oso gustura nago. Kalean ibili eta jendearekin hitz egitea, agurtzea... hori dute herriek.

**Nafarroako Bertsolari Txapelketan ibili zara orain arte; zelan joan da?**

Domekan izan nuen azkeneko saioa, eta kanpoan geratu nintzen. Edozelan ere, pozik nago finalerdietara iritsi naizelako; galtzen eta irabazten jakin behar da, bizitzan bezalaxe.

### PERTSONALA

**Eskoriatzako txoko gustukoena:** Atxorrotx.

**Telefono dei pozgarriena:** Lagun onenak egiten didanekoa.

**Bertso gustukoena:** Aitak aitonari 1994an bota ziona; *negarra* zen hitza.

**Doinu gustukoena:** Martxa baten lehen notak.

**Bertsoetan egiteko leku bat:** Nafarroako finalean.

**Bertsolari bat:** Xabier Terreros.

**Kanta bat:** Gozategiren edozein.

## ZORION AGURRAK



ARETXABALETA
**Sara Garcia Borrego**
Martxoaren 17an, 2 urte. Zorinak, txiki! Aitaitaren, amamaren eta ahizpa Haizearen partetik, patxo handi bat!



ANTZUOLA
**Jone Garitano Ruiz**
Martxoaren 17an, 11 urte. Zorionak, *guapa*! Ondo pasatu zure eguna. Etxekoen partetik muxu handi bat.



ANTZUOLA
**June Soto Axpe**
Martxoaren 15ean, 8 urte. Zorionak, *printzesi*! Primeran pasatu zure urtebetetze egunean! Muxuak amatxoren, aitatxoren eta Iratiren partetik!



ARRASATE
**Markel Bereziartua Zabala**
Martxoaren 15ean, 2 urte. Zorionak, polit hori! Bi urte, egunez egun, gure bihotzak alaitzen! Brum-brum, plisti-plasta edo salto eta salto, segi bizitzaz gozatzen, Markeltxo!



ARETXABALETA
**Eider Aranegi**
Martxoaren 14an, 11 urte. Zorionak, Eider! Muxu eta besarkada handi bat denon partetik. Bereziki Oierren eta zure lehengusu-lehengusina guztien partetik. Horrela jarraitu, neska alai-alaia izaten.



ARRASATE
**Maider Olabarria Iturbe**
Martxoaren 14an, 9 urte. Zorionak, *prexioxa*. Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
**Beñat Irizar Aramburu**
Martxoaren 14an, 2 urte. Aittaita Xanti eta Jesus Mariren, amama Marijeren eta yaya Piliren bihurritxoak bi urte egiten ditu. Zorionak!



ANTZUOLA
**Jare Azkarate Otxoa de Eribe**
Martxoaren 11n, urtebete. Zorionak, sorgintxo! Oihanen, amatxoren eta aitatxoren partetik.



ARETXABALETA
**Peru Iturricastillo Elkoro**
Martxoaren 11n, 6 urte. Jada 6 urte! Zorionak, txapeldun! Muxu erraldoi bat eta ondo pasatu zure urtebetetze egunean.



OÑATI
**Peio Iciar Garcia**
Martxoaren 11n, urtebete. Zorionak, Peio! Belarriko lehen tirakada! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo handi bat etxeko guztion partetik.



OSINTXU
**Urko Gainza Urzelai**
Martxoaren 10ean, 8 urte. Zorionak etxeko danon partetik, txapeldun!



BERGARA
**Izadi Salegi Martinez**
Martxoaren 10ean, 3 urte. Zorionak, Izadi! Ondo pasatu eguna eta patxo handi bat familia danaren partetik!



ARRASATE
**Gartxot Elortondo Moraza**
Martxoaren 10ean, 2 urte. Zorionak! Dagoeneko bi urte egin dituzu. Ondo pasatu, etxekoen partetik. Muxu asko, polit hori!



BERGARA
**Irati Aperribai Mujika**
Martxoaren 10ean, 4 urte. Zorionak, sorgintxo! Ondo-ondo ospatu eguna. Patxo potolo asko danon partetik.



ARETXABALETA
**Unai Urrutia Vazquez**
Martxoaren 10ean, 13 urte. Zorionak, Unaitxo! Apurka-apurka handi itxen zoiaz baina beti moduko guapo. Txokolatezko muxu asko Eiderren, Maiderren eta Itxasoren partetik.



ANTZUOLA
**Maddi Acosta**
Martxoaren 9an, urtebete. Zorionak, printzesa, zure lehen urtebetetzian! Muxu potolo asko amatxoren, aitatxoren, Rokoren eta familiako guztien partetik.



ESKORIATZA
**Ekaitz Arrese Otamendi**
Martxoaren 9an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunien eta preparatu merixenda goxo -goxo bat Leixarrapen elkarrekin ospatzeko. Aupa Reala!



BERGARA
**Maddi Alberdi**
Martxoaren 8an, 18 urte. Zorionak, trikitilari! Behar dan moduan ospatu! Oin jada gaiztokerixak laga biharko ditxuzu. Kar, kar, kar... 18 patxo handi, zure lagunen partetik!



ESKORIATZA
**Aner Orobengoa**
Martxoaren 8an, 4 urte. Zorionak, txapeldun, etxeko guztien partetik. Batez ere, anaia Xabik eta lehengusina Malenek muxu handi bat bidaltzen dizute. Jarraitu hain alai eta txintxoa izaten!



OÑATI
**Garazi Diaz de Gereñu Larrañaga**
Martxoaren 7an, urtebete. Zorionak, poxpolin! Oso ondo pasatu zure lehen urtebetetzean! Patxo bana etxeko danon eta, bereziki, Danelen partetik.

# Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**
Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *http://goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Erguin auzoan, Udalpe kalean, etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzia. Egoera oso onean. Berokuntzarekin. Nahiago bikote batentzat. Deitu 17:00etatik aurrera mesedez. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 620 15 15 08 edo 943 78 70 07

**Bergara.** Erdigunean bi logelako etxebizitza berria ematen da errentan. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 667 31 37 45

### 104. ERRENTAN HARTU

**Baserri bila Debagoienean.** Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

**Debagoiena.** Bergaran edo inguruan etxebizitza bila nabil. Neska arduratsua naiz eta bi logela edo gehiagoko etxebizitza beharko nuke. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 631 68 12 18

**Oñati.** Bikote batek etxebizitza edo estudioa hartuko luke errentan, prezio onean, herrian bertan edo Zubillagan. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 666 20 06 03

**Oñati.** Oñatiko bi gazte errentan hartzeko etxebizitza bila gabiltza. 617 51 33 92 edo 670 56 62 51

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Erdigunean, logela ematen da errentan, etxeko gune komunak erabiltzeko aukerarekin. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 678 82 69 77

## 3. LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**ESKORIATZA**
160m²-koa, 380m²-ko lursailarekin. Jatetxe, pizzeria edo elkartea egiteko gertatuta. Salgai ere bai.
626 21 22 09
943 71 49 61

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Elgoibar.** Baserri baten pertsona nagusi bat zaintzeko pertsona bat behar da, etxean bertan bizi izateko. Euskalduna eta autoarekin. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 655 71 55 44 (Ana)

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 28 urteko neska arduratsua, euskalduna, umeak zaintzeko eta etxerako lanetan laguntzeko gertu. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 688 63 86 31

**Arrasate.** Atariak garbitzen edo ume eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 603 85 29 79

**Arrasate.** Egunez nagusiak zaintzeko edo orduka garbiketa eta lisatze lanak egiteko gertu nago. 632 23 46 19

**Arrasate.** Garbiketa lanak egingo nituzke orduka, arratsaldetan. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 622 05 30 57

**Arrasate.** Neska gertu astean zehar lan egiteko. Eskarmentua dut tabernan, barran zein jangelan. Garbiketak ere egingo nituzke. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 616 09 37 90

**Bergara edo Arrasate.** Haur Hezkuntza ikasi eta lan eskarmentua duen neska gazte euskalduna, umeak zaintzeko eskaintzen da. Zerbitzari eta garbitzaile moduan ere esperientzia luzea duenez, lan egiteko gertu dago. Lan egiteko gogoz. Mesedez interesatuok deitu zenbaki honetara. Mila esker. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 681 14 95 54

**Bergara edo inguruak.** 25 urteko neska arduratsua, erizaintza ikasketak amaitzen ari dena, umeak zein pertsona nagusiak zaintzeko gertu arratsaldetan edo goizetan. Baita astebukaeratan ere. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 618 92 40 53 edo 943 76 25 85

**Bergara, Antzuola edo Arrasate.** Emakumea etxeko garbitasun lanak egiteko gertu. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 632 77 35 38

**Bergara.** Neska euskalduna arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono honetara: Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 618 43 60 35

**Debagoiena eta Debabarrena.** Lantegien garbiketan edo bestelako edozein lanetan arituko nintzateke. Autoa daukat. Edozein egun eta ordutegitarako gertu. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** 32 urteko neska nagusiak zaindu, etxeko lanak eta garbiketak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Arduratsua eta maitagarria naiz. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 633 74 49 54

**Debagoiena.** Denetariko garbiketak egiten, ume zein nagusiak zaintzen edo sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 691 28 53 25

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu egunez, etxean bertan bizi izanda edota orduka lan egiteko. Nagusiak zaindu, etxeko lanak egin eta garbiketa lanak egingo nituzke. Lege dokumentuak eguneratuta dauzkat. 662 06 18 09

**Debagoiena.** Eskarmentudun mutila jatetxeko sukaldean edo tabernatan lan egiteko gertu. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 676 04 93 26 edo 631 36 17 62

**Debagoiena.** Estetika arloan lan egingo nuke. Ikasketak eta eskarmentua ditut. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 663 58 78 64

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 610 99 42 03

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 697 86 49 00

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko gertu nago. Geriatria eta erizaintza ikasketak ditut. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 678 84 37 86

**Debagoiena.** Garbiketan eta ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo egun osoz. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 663 58 78 64

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.**
Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Errentan eman
604. Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

Korosti INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
- Madura 57 m², 2 logela. Oso egoera onean. 120.000€.
- Bolun 135 m²ko Elkartea salgai. Ekipatua. 123.600€.
- Angiozarren Erretegia alokagai. Erretegi bezala erabiltzeko dena ekipatua eta martxan.
- San Antón Abad 71 m², 3 logela. 2 aparkaleku eta txokoarekin. 85.000€.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela, garaje aeta trastelekuarekin. 150.000€.
- Espoloia 95 m², 3 logela. Garajea eta trastelekuarekin.
- Irizar pasealekua. 3 logela, igogailuarekin. 200.000€.
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600€.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100€.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000€.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Ortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000€.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000€.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000€.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000€.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 150.000 €.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850€.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000€.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000€.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000€.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000€.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000€.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850€.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 85.000€ PREZIO JEITSIERAREKIN
- Matxiategi, 115m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

**ANTZUOLA:**
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €.
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000€.
- Buztin Zuri. Oso aukera ona.

**SORALUZE:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak..

**ELGETA:**
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

**OSINTXU:**
- Osintxu 85m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000€. AUKERA BIKAINA.

**Debagoiena.** Harategiko ofiziala naiz eta astean zehar arratsaldez edo asteburuetan lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 674 72 06 44

**Debagoiena.** Mutil eskarmentuduna gertu garbiketa lanak egiteko. Erreferentzia onak ditut eta gauez ere lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 679 60 08 48

**Debagoiena.** Mutila arduratsua eskaintzen da garbitasun lanetarako eta baita nagusiak zaintzeko ere. Esperientzia handikoa nagusien zainketan. Dokumentuak eguneratuta ditut. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 658 74 94 63

**Debagoiena.** Mutila gertu lantegian jarduteko. Eskarmentua dut. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 602 46 01 57

**Debagoiena.** Mutila gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo obratan peoi aritzeko. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 691 72 67 38

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Eraikuntzan, gidari, sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen eta abar. Autoan garraio lanak ere bai. Interesatuak deitu ezazue telefono honetara: 636 60 48 51

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Garbiketan eta hoteletan lan egindakoa naiz eta soldatze zein jaso-makinak gidatzeko ikasketak ditut. Biltegian ere aritutakoa naiz. Autoa daukat. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 662 26 07 09

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketak egingo nituzke. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 686 44 70 38

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaindu edo denetariko garbiketak egingo nituzke. Tabernako sukaldari laguntzaile ere aritutakoa naiz pintxo, ogitarteko eta platerak prestatzen. Gidabaimena eta autoa dauzkat eta berehala hasteko gertu nengoke. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 677 73 79 59

**Debagoiena.** Nagusi eta umeak zaintzen, garbiketak egiten edota sukalde laguntzaile jardungo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefon hauetara: 691 03 25 02 edo 943 54 09 41

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago Etxean bertan bizi izaten, egun osoz edo orduka. Eraikuntzan ere lan egingo nuke. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 602 07 12 06

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzeko gertu nago, baita etxean bertan bizi izaten ere. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 631 59 67 91

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota baserriko lanak egiten lan egingo nuke. Sukaldean ondo moldatzen naiz eta dietista moduan lan egindakoa naiz. Zaintza ikasketak ere baditut. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 693 72 41 66

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke egun osoz, orduka edo etxean bertan bizi izaten. Gomendiozko gutuna daukat. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 664 12 43 25

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke, nahiago etxean bertan bizi izaten bada. Elektrikari, iturgintzan edota sukaldean badakit. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 632 08 57 69

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia dut. Orduka edo etxean bertan bizi izaten ere bai. Lege paperak ditut. 603 63 31 55

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, sukalde laguntzaile, garbiketan egiten eta okindegian lan egindako neska lan bila. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 634 03 91 58

**Debagoiena.** Neska arduratsu eta esperientziaduna lanerako gertu. Umeak zaindu, orduka garbiketak egin edota nagusiekin egon eta paseoan ateratzeko laguntzen. 695 73 87 95

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak zaintzeko edo atari, taberna eta abarren garbiketa egiteko. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 632 33 20 46

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. 631 43 61 71

**Debagoiena.** Neska arduratsua lanerako gertu. Orduka, egun osoz zein etxean bertan bizi izanda. 609 18 87 32

**Debagoiena.** Neska arduratsua sukaldaritza eta geriatria ikasketak dituena, lan bila dabil. Nagusiak zaindu, zerbitzari lanak egin eta abar. 615 06 28 04

**Debagoiena.** Neska lanerako gertu, etxeetan gaixoak zaintzeko edo ospitalean. Geriatriako tituluduna. Autoa daukat. Eskarmentu handia. 600 00 51 60

**Debagoiena.** Neska langile eta arduratsua nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko gertu. 603 34 58 20

**Debagoiena.** Orduka edo asteburuetan nagusiak eta umeak zainduko nituzke. Baita garbiketa lanak egin ere. 610 99 70 46

**Debagoiena.** Orduka, egun osoz edo gauez lan egingo nuke, nagusiak zaintzen eta garbitasunean. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Sukaldari laguntzaile, garbitasun lanetan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ostalaritza eta hoteletan lan egindakoa naiz bai garbiketan eta baita sukaldean laguntzen ere. Autoa daukat. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 636 11 23 40

**Gidari.** C +E eta gai arriskutsuak eramateko gidabaimenak dauzkat. Jaso-makina baimena eta elektro-mekanika LH1 prestakuntza. Eskarmentua dut gidatzen, mekanikari, banaketan eta ostalaritzan. 676 57 44 18

**Lan bila.** Emakume arduratsu eta eskarmentuduna, etxean bertan bizi izaten, egun osoz, lan egiteko gertu. Edozein herritan lan egingo nuke. Margarita Claros Salazar. 632 85 03 84

**Sukaldaria.** Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten urtetan aritutakoa. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 666 83 21 95

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Oñati.** Ingeleseko eskola partikularrak hartuko lituzke Batxilergoko lehenengo mailako ikasle batek. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 627 91 23 21

## 6. MOTORRA

### 602. EROSI

**Autokarabana.** Bigarren eskuko autokarabana erosiko nuke. 655 73 74 94

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Taxi lizentzia Antzuolan.** Erretiroa hartzeagatik, taxi lizentzia osoa, auto eta guzti, eskualdatzen da Antzuolan. Interesatuak deitu ezazue telefon honetara: 669 15 65 40 edo 636 01 91 01

### 805. TRUKATU

**Frantses-Gaztelera trukea.** Kaixo, Ophelie naiz, 20 urteko neska frantsesa, eta Bergaran dihardut umezain. Gaztelera hobetu eta lagunak egin gura nituzke. Nik frantsesa erakutsiko nizuke eta zuk niri gaztelera. Ingelesez ere badakit. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 00 337 88 06 71 08

### 806. GALDU

**Betaurrekoak Udalatxen.** Udalatx inguruan eguzkitako betaurrekoak galdu nituen. Norbaitek aurkitu baditu deitu mesedez. 619 08 84 65

### 808. BESTELAKOAK

**Arrasate.** Entrenatzaile pertsonal titulua eta eskarmentua daukan entrenatzaile baten bila nabil, astean ordu batzuk entrenatzeko. Interesatuok, mesedez, mezua bat bidali laguntzen@gmail.com helbidera.

**Sagardotegira irteera.** 10 pertsonaz osatutako neska kuadrila, martxoaren 14an sagardotegira autobusez joateko jende bila dabil. Irteera Arrasatetik izango litzateke. Interesatuok deitu edo bidali whatsappa telefono honetara: 648 60 09 57

**LAN POLTSA**

Jardun Euskara Elkarteak, ludotekako begiraleen artean genero berdintasuna bermatzeko, mutilen lan poltsa zabaltzen du.

Begirale titulua ezinbestekoa da.

Curriculuma aurkezteko azken eguna, martxoak 23.

**Jardun euskara elkartea**
Errotalde jauregia
(Kultur Etxea) z/g. Bergara
Tel.: 943 76 36 61
gaztejardun@topagunea.com

Jardun

# ASTEA GOIENAN


GOIENA

## Korrikaren aurreko urteetako edizioak

Aurtengo Korrika hilaren 23an iritsiko da Debagoienera. Bitartean, motorrak berotzen joateko, aurreko urteetako Korrikek bailaran eman zutena ikusi ahal izango da astelehenetik aurrera. Beheko programazioko taulan daude emisio orduak zehaztuta.
**'Artxibotik tiraka'**
Astelehena, 17:30


GOIENA

## Oñatiko duatloiaren errepasoa ikusgai

Bihar, zapatua, jokatuko da Oñatiko duatloia eta bertan jasotakoak ikusi ahal izango dira astelehenko *Harmailatik* saioan. Lasterketa, helmugaratzea, protagonisten adierazpenak... Horiek eta gehiago erakutsiko ditu Xabi Urzelai aurkezleak.
**'Harmailatik'**
Astelehena, 22:00

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA, 13**
- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Galdegazte
- **13:00** Berbetan
- **13:45** Ikusmira
- **13:55** Zorion Agurrak
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Amaia DJ
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Aizank!
- **17:45** Ikusmira
- **18:00** Ur eta lur
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Galdegazte
- **19:30** Amaia DJ
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Erreportajea: Korrika 19
- **22:45** Debagoiena zuzenean
- **23:15** Berriak
- **23:45** Ahotsenea

**ZAPATUA, 14**
- **10:00** Amaia DJ
- **10:30** Sasoi betean
- **11:00** Debagoiena zuzenean
- **11:55** Astea iruditan
- **12:00** Harira
- **12:30** Galdegazte
- **13:00** Onein
- **13:30** Ertzak
- **14:15** Ikusmira
- **14:30** Harira
- **15:00** Debagoiena zuzenean
- **16:00** Astea iruditan
- **16:00** Ahotsenea
- **16:20** Erreportajea: Korrika 19
- **17:00** Aizank!
- **17:55** Zorion Agurrak
- **18:00** Galdegazte
- **18:30** Ahotsenea
- **19:00** Debagoiena zuzenean
- **19:55** Astea iruditan
- **20:00** Harira
- **20:30** Amaia DJ
- **21:00** Erreportajea: Korrika 19
- **21:45** Galdegazte
- **22:15** Debagoiena zuzenean
- **23:10** Astea iruditan
- **23:15** Harira
- **23:45** Ahotsenea
- **00:15** Debagoiena zuzenean
- **00:45** Berriak

**DOMEKA, 15**
- **10:00** Debagoiena zuzenean
- **10:55** Astea iruditan
- **11:00** Ahotsenea
- **11:30** Amaia DJ
- **12:00** Sasoi betean
- **12:30** Sagarrondotik
- **13:30** Debagoiena zuzenean
- **14:25** Astea iruditan
- **14:30** Harira
- **15:00** Zorion Agurrak
- **15:05** Berbetan
- **15:50** Ikusmira
- **16:00** Amaia DJ
- **16:30** Debagoiena zuzenean
- **17:25** Astea iruditan
- **17:30** Galdegazte
- **18:00** Sagarrondotik
- **19:00** Harira
- **19:30** Ertzak
- **19:45** Galdegazte
- **20:30** Debagoiena zuzenean
- **21:25** Astea iruditan
- **00:15** Amaia DJ

**ASTELEHENA, 16**
- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **13:00** Onein
- **13:30** Debagoiena zuzenean
- **13:30** Zorion Agurrak
- **14:30** Berriak
- **15:00** Ahotsenea
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Sasoi betean
- **17:30** Artxibotik tiraka
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Harira
- **19:30** Amaia DJ
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **21:30** Ahotsenea
- **22:00** Harira
- **22:00** Harmailatik
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Galdegazte
- **23:30** Artxibotik tiraka
- **01:00** Amaia DJ

**MARTITZENA, 17**
- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Harmailatik
- **13:00** Artxibotik tiraka
- **13:55** Zorion Agurrak
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Harmailatik
- **15:30** Onein
- **15:55** Zorion Agurrak
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Berbetan
- **17:40** Artxibotik tiraka
- **18:25** Zorion Agurrak
- **18:30** Berriak
- **19:00** Galdegazte
- **19:30** Harmailatik
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Harira
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Artxibotik tiraka
- **00:30** Debagoiena zuzenean
- **01:00** Berriak

**EGUAZTENA, 18**
- **12:00** Debagoiena zuzenean
- **12:30** Harira
- **13:00** Artxibotik tiraka
- **13:55** Zorion Agurrak
- **14:00** Debagoiena zuzenean
- **14:30** Berriak
- **15:00** Harira
- **15:30** Onein
- **16:00** Debagoiena zuzenean
- **16:30** Berriak
- **17:00** Ertzak
- **17:45** Artxibotik tiraka
- **18:30** Berriak
- **18:55** Zorion Agurrak
- **19:00** Amaia DJ
- **19:30** Harira
- **19:55** Zorion Agurrak
- **20:00** Debagoiena zuzenean
- **20:30** Berriak
- **21:00** Debagoiena zuzenean
- **21:30** Berriak
- **22:00** Galdegazte
- **22:30** Debagoiena zuzenean
- **23:00** Berriak
- **23:30** Artxibotik tiraka
- **00:30** Debagoiena zuzenean
- **01:00** Berriak

**EGUENA, 19**
- **10:00** Amaia DJ
- **10:30** Sasoi betean
- **11:00** Debagoiena zuzenean
- **11:55** Astea iruditan
- **12:00** Harira
- **12:30** Galdegazte
- **13:00** Onein
- **13:30** Sagarrondotik
- **14:30** Harira
- **15:00** Debagoiena zuzenean
- **16:00** Artxibotik tiraka
- **16:00** Astea iruditan
- **19:00** Debagoiena zuzenean
- **20:00** Harira
- **20:00** Astea iruditan
- **20:30** Amaia DJ
- **21:00** Galdegazte
- **21:30** Artxibotik tiraka
- **00:30** Debagoiena zuzenean
- **01:30** Ahotsenea
- **01:30** Astea iruditan
- **02:00** Amaia DJ

## ARRASATE IRRATIA

### Hartu parte Korrikako kamisetaren zozketan, 107.7an

Datorren asteko egubakoitzeko zozketan Korrikako kamiseta zozketatuko dute Arrasate Irratian. Egingo den zozketan parte hartzeko, deitu 943 25 05 05 telefonora edo, bestela, idatzi *irratia@goiena.eus* helbidera. Animatu eta parte hartu zozketan, saria lortzeko aukera dago-eta.

### Mondrako nesken entrenatzailea astelehenean irratian

Andoni Ezkurra da Mondrako nesken entrenatzailea eta asteleheneko *Igo autobusera!* irratsaioan hari egindako elkarrizketa entzuteko aukera izango da, 11:00etan. Igoera fasea jokatzen ari dira eta asteburuan Zumaian izango dute partidua. Horren berri emango du irratsaioan.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| **Egubakoitza, 13** | FERNANDEZ | Maisu Aranbarri kalea 1 | 943 79 22 26 |
| **Zapatua, 14** | IRIZAR | Erguin 11 | 943 79 12 39 |
| **Domeka, 15** | AMEZUA | Sta. Marina 32 | 943 79 09 74 |
| **Astelehena, 16** | ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| **Martitzena, 17** | RUIZ | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguaztena, 18** | ETXEBERRIA | Zarugalde kalea, 38 | 943 77 16 30 |
| **Eguena, 19** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias kalea, 1 | 943 79 15 15 |
| **BERGARA** | | | |
| **Egubakoitza, 13** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **Zapatua, 14** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Domeka, 15** | URRUTIKOETXEA | Orixondo plaza 4 | 943 76 11 74 |
| **Astelehena, 16** | ZABALA | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| **Martitzena, 17** | GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguaztena, 18** | ESTELLA | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| **Eguena, 19** | MOZOS | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| **OÑATI** | | | |
| **Egubakoitza, 13** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Zapatua, 14** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Domeka, 15** | ANDUAGA | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| **Astelehena, 16** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Martitzena, 17** | IGARTUA | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguaztena, 18** | GARATE | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| **Eguena, 19** | GARATE | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |

**Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, (www.cofgipuzkoa.com).

## EGURALDIA ASTEBURUAN

### DEBAGOIENA


Max. 9º
Min. 2º

**ZAPATUA, 14**
Zaparradak botako ditu, euria egingo du eta tenperatura jaitsi egingo da zapatuan. Zerua lainotuta egongo da.


Max. 9º
Min. 2º

**DOMEKA, 15**
Tenperatura mantendu egingo da domekan. Euria egiten jarraituko du, baina, tarteka, eguzkia ikusi ahal izango da.

### EUSKAL HERRIA




## GAZTE INFORMAZIOA

### AUZOLANDEGIAK

**Eusko Jaurlaritza.** 18 eta 30 urte arteko gazteei, udako hilabeteetan auzolandegietan parte hartzeko aukera eskaintzen diete. Zozketan izen emateko epea apirilaren 8tik 14ra bitartean izango da.

### UDALEKUAK

**Foru Aldundia.** 7 eta 13 urte arteko gazteei zuzendutako udalekuak. Zozketan izena emateko epea martxoaren 18tik 30era bitartean izango da. Izena emateko, bailarako gazte bulegoetan, gazteria sailetan edo Internet bidez: *www.gipuzkoangazte.eus/udalekuak*.

**Euskal Udalekuak.** Abaigarren, Bernedon eta Goñin antolatutako egonaldiak, 7 eta 17 urte arteko gazteentzat, 9-14 eguneko txandak. Epea: martxoaren 10etik aurrera, plazak bete arte: *www.udalekuak.eus*.

**Bertso udalekuak.** 9 eta 18 urte arteko bertsozaleentzat antolatutako egonaldiak dira. Izena emateko azken eguna apirilaren 13a izango da. *http://www.bertsozale.eus/eu/bertso-udalekuak*.

### LANA

**Begiraleak, zuzendariak, sukaldariak, begirale praktikak.** Bertsozale Elkartea. Udako hilabeteetan Bertsozale Elkarteak antolatutako udalekuetan lan egiteko. Epea: martxoak 16.

**Aisialdiko begiraleak eta zuzendaria.** Zumaiako Udala. Udako udaleku irekietan begirale eta koordinatzaile lanetan jarduteko deialdia. Epea: martxoak 23.

**INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO:**
**Arrasateko Gazte bulegoa:** Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
**Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea:** Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net

URTEURRENA

## Carmen Uribarri Iraeta



2014ko martxoaren 30ean hil zen, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2015eko martxoaren 13an.**

URTEURRENA

## Miguel Castillejo Blasco

'Naparra'



Bergaran hil zen 2014ko martxoaren 14an, 78 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, martxoaren 15ean,
12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Sekula ahaztuko ez dugun arrastoa utzi duzu gugan.*
*Zure oroimena beti izango da gurekin.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2015eko martxoaren 13an.**

URTEURRENA

## Jesus Igartua Arrese



Bergaran hil zen 2014ko martxoaren 24an, 95 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2015eko martxoaren 13an.**

URTEURRENA

## Carmen Garay Ercilla

Bonifazio Azkarateren alarguna



Bergaran hil zen 2014ko martxoaren 10ean, 94 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, seme-alaben,**
**biloben eta gainerako senideen izenean.**
**Bergaran, 2015eko martxoaren 13an.**

URTEURRENA

## Ramon Maiztegi Garate



Bergaran hil zen 2014ko martxoaren 20an, 68 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2015eko martxoaren 13an.**

URTEURRENA

## Teresa Gabilondo Garitano



Bergaran hil zen 2014ko martxoaren 26an, 77 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
martxoaren 15ean, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

—

*Beti izango zara gure oroimen eta bihotzetan.*

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Bergaran, 2015eko martxoaren 13an.**

URTEURRENA

## Eloisa Egaña Jaureguialzo

Pablo Aiastuiren alarguna



Oñatin hil zen 2014ko martxoaren 15ean, 82 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 14an,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

—

*Urtebete pasa da joan zinela hemendik,*
*baina sekula ez zara joango gure bihotzetatik.*
Zure familia.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2015eko martxoaren 13an.**

URTEURRENA

## Javier Arregui Aramburu



Oñatin hil zen 2014ko martxoaren 11n, 88 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
martxoaren 14an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

**Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.**
**Oñatin, 2015eko martxoaren 13an.**

ESKER ONA

## Jesus Echave Fernandez de Arroyabe

Teresa Gabilondoren alarguna



Bergaran hil zen 2015eko martxoaren 7an, 83 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

—

Haren aldeko meza domekan izango da, martxoaren 15ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokian.
Bertaratuko zaretenoi aldez aurretik eskerrik asko.

—

*Beti egongo zara gure bihotzetan.*

**Bergaran, 2015eko martxoaren 13an.**

ESKER ONA

## Felisa Zurutuza Aperribai

Jesus Eguren Irazabalbeitiaren alarguna



Lehen urteurreneko mezara joandakoei eta urte honetan gure ondoan egon
zareten guztioi eskerrik asko, sendikoen izenean.

—

*Beti izango zaitugu gogoan.*

**Bergaran, 2015eko martxoaren 13an.**

ESKER ONA

## Gervasio Legorburu Gabilondo



Antzuolan hil zen 2015eko martxoaren 5ean, 84 urte zituela.

Gervasioren familiaren izenean, eskerrik beroenak, azken egunotan,
ondoan izan zaituztegun guzti-guztiei, adierazi diguzuen babes eta
gertutasunagatik, hiletara etorri izanagatik
eta gure samina zuena egin izanagatik.
Mila esker.

**Antzuolan, 2015eko martxoaren 13an.**

**OROILORE**

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu: NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua AUKERA DEZAKEZULA BETI.*



*maribi 617 44 21 55*
*BERGARA*

## HILDAKOAK

**Martin Etxezarreta Muñoa.** Oñatin, martxoaren 4an. 87 urte.

**Eugenio Arana Isasmendi.** Aramaion, martxoaren 5ean. 82 urte.

**Maria Luisa Zabaleta Santa Cruz.** Oñatin, martxoaren 6an. 88 urte.

**Joaquina Gartzia San Martin.** Arrasaten, martxoaren 7an. 82 urte.

**Jesus Etxabe Fernandez de Arroiabe.** Bergaran, martxoaren 7an. 83 urte.

**Tomas Osoro Elkoro.** Bergaran, martxoaren 8an. 86 urte.

**Carmen Oruna Balantzategi.** Arrasaten, martxoaren 10ean. 86 urte.

## EZKONTZAK



### Jabi eta Marijo

Jabi eta Marijo zapatuan, martxoaren 14an, ezkonduko dira Eibarren. "Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunean eta jarraitu zoriontsu izaten. Eteoko ikastunak. Muuuuu...".



### Antonio eta Arantxa

"Zorionak, aita eta ama! Egun ona pasa dezazuela, eta gero ospatuko dugu afari goxo-goxo batekin! Musu handi bat etxeko guztion partetik".

## ZINEMA

### ARRASATE

**AMAIA ANTZOKIA**

**Siempre Alice**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Bob esponja: un heroe fuera del agua**
Zapatua: 17:00.

### OÑATI

**KULTURA ETXEA**

**Kingsman**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 20:30.

**El libro de la vida**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

**ARKUPE**

**La teoria del todo**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Alexander**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### EIBAR

**COLISEO**

**El libro de la vida**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Samba**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Dixie y la rebelion zombi**
Zapatua: 17:00.

**Negociador**
Zapatua: 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

**ANTZOKIA**

**Chappie**
Zapatua:19:45, 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

**Dixie y la rebelion zombi**
Domeka: 17:00.

### GASTEIZ

**FLORIDA**

**Ida**
Egubakoitza: 17:00.

**Perdiendo el norte**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:00, 19:00.
Eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30.

**Bob esponja: un heroe fuera del agua**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**Stand by me Doraemon (euskaraz)**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**El mapa de las estrellas**
Egubakoitzetik domekara: 17:15.
Astelehena eta martitzena: 21:00.
Eguaztena: 22:30.

**Samba**
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:30.
Astelehenetik eguaztenera: 17:15, 20:00.

**Big hero 6**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**Chappie**
Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:00.

**Negociador**
Egubakoitza: 17:00, 20:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 18:55, 20:30, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:00, 18:45, 20:30.
Eguaztena: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Kingsman**
Zapatua eta domeka: 12:00, 16:30.

**Selma**
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00.

**El francotirador**
Egubakoitzetik domekara, eta eguaztena: 19:30, 22:00.
Astelehena eta martitzena: 19:30.

**El libro de la vida**
Zapatua eta domeka: 12:00.

**En tercera persona**
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 22:00.
Astelehenetik eguaztenera: 17:15.

**Calvary**
Egunbakoitzetik dpmekara: 16:30, 19:45.
Astelehena eta martitzena: 19:45.
Eguaztena: 19:45, 22:30.

**Mis hijos**
Egubakoitzetik domekara: 18:30, 20:30, 22:30.
Astelehena eta martitzena: 17:30, 20:00.
Eguaztena: 17:30, 20:00, 22:30.

**BOULEVARD**

**Chappie**
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:45, 20:00, 22:20.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Negociador**
Egubakoitza eta zapatua: 00:45.
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:45, 20:45, 22:45.
Zapatua eta domeka: 16:45.

**La conspiracion de noviembre**
Egubakoitza eta zapatua: 00:35.
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:05, 20:15, 22:25.
Zapatua eta domeka: 15:55.

**Desterrado**
Egubakoitza eta zapatua: 00:10.
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:10, 20:10, 22:10.
Zapatua eta domeka: 16:10.

**El francotirador**
Egubakoitza eta domeka: 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.
Zapatua: 16:00, 18:45.
Astelehenetik eguaztenera: 18:45, 21:30.

**Perdiendo el norte**
Egubakoitza eta zapatua: 00:40.
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:10, 20:20, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:00.

**50 sombras de Grey**
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:35, 20:05, 22:35.

**Samba**
Egubakoitza eta zapatua: 00:30.
Egubakoitzetik domekara: 19:30, 22:00.
Astelehenetik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**Kingsman**
Egubakoitza eta zapatua: 23:40.
Egubakoitzetik eguaztenera: 18:25, 21:00.
Zapatua eta domeka: 15:50.

**Ex-machina**
Egubakoitza eta domeka: 20:00, 22:15, 00:30.
Zapatua: 22:15, 00:30.
Astelehenetik eguaztenera: 20:00, 22:15.

**El libro de la vida**
Egubakoitzetik domekara: 17:30.
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Bob esponja: un heroe fuera del agua**
Egubakoitzetik domekara: 18:20.
Zapatua eta domeka: 16:20.

**La mujer de negro: el angel de la muerte**
Egunbakoitzetik eguaztenera: 20:15.

**En tercera persona**
Egubakoitzetik eguaztenera: 22:20.

**Paddington**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**Annie**
Egubakoitza eta domeka: 17:30.

**Big hero 6**
Zapatua eta domeka: 15:30.

**La teoria del todo**
Astelehenetik eguaztenera: 17:30.

**Birdman**
Astelehenetik eguaztenera: 17:30.

## KRITIKA

# Iraganaren pisua

**MAPS TO THE STARS** ★★★★★
**Zuzendaria:** David Cronenberg.
**Herrialdea:** AEB.
**Aktoreak:** Julianne Morre, Mi Wasikowska, Olivia Williams.

Behin baino gehiagotan, zinemari egiten diogun tarte honetan, David Cronenbergen filmak agertu izan dira. Zuzendari kanadarrak urte askotxo darama zinema egiten, eta kontatzen dituen istorioengatik, sortzen dituen pertsonaiengatik eta filmatzeko era hotz eta kezkagarriarengatik, berezko mundu bat islatzea lortu duela esan genezake. Bere istorioak ikaragarriak eta latzak izaten dira. Pertsonaiek sufritu egiten dute: gizakiak oso konplexuak gara eta kanpotik erakusten dugunarekin batera, askotan, barrutik irrikak, desirak eta iraganean konpondu gabeko arazoen efektuak azaltzen dira. Eta, horren ondorioz, sufrimendu fisikoak eta psikikoak protagonista bihurtzen dira.

*Maps to the stars*–en halako egoerak eta pertsonaiak agertzen dira Hollywooden. Pertsonaietan garrantzi handia dute iraganean gertatutako eta oraindik gainditu gabeko ekintza batzuek. Lana lortzeko arazoak dituen aktore heldua; telebistan arrakasta handia izan duen eta drogekin arazoak dituen mutikoa; eroetxean egon ondoren Hollywoodera bueltatzen den neska; horien gurasoak; aktore eta gidoilari izan nahi duen eta bitartean txofer lana egiten duen mutila... Horien ziurtasunik eza, handinahia eta traumak dirua, arrakasta eta luxua miresten dituen Hollywooden elkartuko dira.

*Maps to the stars* lan erakargarria da. Cronenberg gustura aritzen da ezagunak egiten zaizkion egoerekin eta pertsonaiekin. Eta ikusleak haren proposamena nondik nora joango den ezagutu nahiko du. Istorio desberdinak dirudite, baina denak elkartuz joango dira bukaera aztoragarri batera heltzeko. Agian, zuzendariaren beste film batzuetan osagai guztiak lotuagoak egon izan dira, eta bukaera dramatikoki onargarriagoa edo logikoagoa gertatu izan zaigu. Hala eta guztiz ere, dudarik gabe, pelikulak zuzendariaren zigilua eta izaera ditu.

ANTONIO ZABALA



IMANOL SORIANO

**BERGARA 'Mozkorra parregarri' opera**
Duela 250 urte Bergarako udaletxean estreinatu zen *El borracho burlado*-ren gaur egungo moldaketa egingo dute udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Jantziak Oscar Armendaritz Lucarinik egin ditu. Arriaga antzokiko jostunen arduraduna da.
Gaur, zapatua 19:00etan eta 22:30ean, eta bihar, domeka, 16:30ean eta 19:30ean.

**ESKORIATZA Emakume bertsolarien aitortza**
*Bertsolaritzaren sekretuak. Isilduriko emakumeen historia* ikuskizunean, narrazioak, bertsoak eta musika batu dituzte. Xenpelarren iloba Joxepa Anttoni Aranberri bertsolaria ikur izango dute. Jokin Labaien, Jokin Murua eta Hodei Untzueta ohotza gainean.
Bihar, zapatua, Zaldibarren, 22:30ean.



# NON-ZER

MARTXOA 13
MARTXOA 18

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## MUSIKA

**BERGARA Berriketan**
Txapa Irratiaren 30. urteurreneko kontzertuetako bat. Perkusioa, gitarra eta harrizko zein egurrezko txalapartak erabiliko dituzte zuzeneko indartsua egiteko. Sarrerak, bost euro.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:30ean.

**ELGETA Baghdad eta Pixontxis**
Bi taldeek kontzertua egingo dute.
Gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

**ARRASATE Arrasate Musikal**
Igor Egidonen zuzendaritzapean kontzertua egingo dute biolontxelo ikasleek.
Bihar, zapatua, Kulturaten, 12:00etan.

**BERGARA Azkaiter Pelox**
Hamaika urteko ibilbidearen errepasoa egin du dokumental baten bergararrak. Hori erakutsiko du (19:30), eta ostean, kontzertua egingo du (22:30). Doako emanaldia.
Bihar, zapatua, Laino Skate parkean, 19:30ean.

**OÑATI Udaberriko jaialdia**
Jose de Azpiazu musika eskolako haize eta akordeoi taldeekok emanaldia egingo dute.
Bihar, zapatua, Santa Anan, 19:00etan.

**OÑATI Tania de Sousa eta Blaster M**
Blaster M gernikarrekin hasiko dute jaialdia, eta ostean, Tania de Souza igoko da oholtzara.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

**BERGARA Udal Musika Bandaren kontzertua**
Alfredo Gonzalez Chirlaqueren agindutara egingo dute emanaldia. Sarrera, doan.
Etzi, domeka, pilotalekuan, 12:30ean.

**OÑATI Napoka Iria**
*Arnasten ikasteko berriz* diskoaren aurkezpen birari amaiera ematear dago Napoka Iria bikotea. Sarrera, bost euro.
Etzi, domeka, gaztelekuan, 19:00etan.

**ESKORIATZA Lurra**
*Akatsa sisteman* diskoa aurkeztuko dute. Doako emanaldia.
Etzi, domeka, Inkernun, 21:00etan.

**OÑATI Aloña abesbatzaren kontzertua**
Pake Lekun udaberriari ongietorria emateko ekintzak egiten dihardute. Aloña abesbatzak emanaldia egingo du.
Martxoaren 16an, Santa Anan, 18:00etan.

## ANTZERKIA

**OÑATI 'Pankreas' antzezlana**
Tartean Teatroa taldekoek hiru gizon ipiniko dituzte agertokian: lehenak pankreas transplante baten premia larria dauka; bigarrenak suizidatzeko asmoa dauka eta hirugarrenak proposamen bat egingo dio bigarrenari: suizidioaren epea aurreratzea, lehenengoari bere pankreasa emateko. Patxo Telleria, Joseba Apaolatza eta Mikel Martinez oholtza gainean.
Gaur, egubakoitza, Santa Anan, 22:30ean.

**ARRASATE 'Erdibana'**
Urteetan aurrera doan ama bat, gripearekin eta enbolia batekin, baina hiltzeko gogo handi barik. Seme bat du, 45 urtekoa eta hondoratzen ari den enpresa bateko jabea. Amak 38 urteko beste seme bat zaintzen du, egunero bainatzen du. Iker Galartza eta Jose Ramon Soroiz taula gainean.
Etzi, domeka, Kulturaten, 19:30ean.

## GAZTELEKUAK

**ARRASATE Autodefentsa feminista**
Lau orduko bi saio jarraitu izango dira: zapatuan eta domekan. Emakumeen ahalduntzerako oso lagungarriak eta hausnarketarako paregabeak.
Aipatutako egunetan, erdi guneko, gazte gunean, 16:30ean.

**BERGARA Pintxo lehiaketa**
Taldeka banatu eta pintxo hotza eta beroa egin beharko dituzte. Janaria gaztelekuko arduradunek ipiniko dute.
Bihar, zapatua, Xabaloten, 18:00etan.

**BERGARA Txorimaloak egiten**
Erramu Zapatuko azokan egingo den lehiaketara aurkezteko txorimaloak egiten hasteko aukera izango dute gazteek.
Egunero, Xabaloten.

## DANTZA

**ARETXABALETA 'Martxoa'**
Jaiki elkarteak dantza ikuskizuna egingo du, Arantza Arbizuren zuzendaritzapean.
Gaur, egubakoitza, Arkupen, 19:00etan.

## OSPAKIZUNAK

**OÑATI Urtebetetze festa**
Oñatiko sexu aholkularitzaren urtebetetze festa.
Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 17:00etan.

**ARRASATE Korrika Kulturala**
*Mondrahaldun* olinpiadak (Biterin, 12:00etan) eta bazkaria (Jai Zalen) egingo dituzte Korrika Kulturalaren barruan. Olinpiadetan askotariko joko eta jolasak egingo dituzte.
Bihar, zapatua, aipatutako lekuetan eta orduetan.

**ARRASATE Sagardotegia gaztetxean**
Sagardotegia *eroango* dute gaztetxera. Sagardotegietan ohikoa den menua eskainiko dute.
Bihar, zapatua, gaztetxean, 13:30ean.

**OÑATI Koben Eguna**
Arrikrutzera sartzeko sarrerak erdi prezioan egongo dira.
Etzi, domeka, Arrikrutzen, 10:00etan.

**ANTZUOLA Independentzia Eguna**
Gaztetxeko kideek egindako bertso musikatuak izango dira egu-



GOIENA



IMANOL SORIANO

**BERGARA Mikel Urdangarin**
MU2015 birarekin helduko da Urdangarin Bergarara. Gitarra eskuetan duela eta ahotsaren laguntza bakarrarekin, betiko klasikoak sukaldean sortu ziren moduan entzuteko aukera izango dute. Sarrerak, hamar euro.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegin, 20:00etan.

bakoitzean (22:30). Zapatuan, aldiz, tortilla lehiaketa, triki-poteoa, bazkaria eta jolasak egongo dira. Ostean, luntxa, eta gauean kontzertua: Sukarra 37 eta Akerbeltz taldeak.
Aipatutako egunetan eta orduetan, gaztetxean.

## BERTSOLARITZA

**OÑATI Bertso afaria Antixenan**
Urko Arregi, Aratz Igartzabal, Txaber Ormazabal eta Aitor Bizkarra izango dira bertsolariak.
Gaur, egubakoitza, Antixenan, 21:00etan.

**ARETXABALETA Bertso afaria**
Korrika Kulturalaren barruan bertso afaria egingo dute. Iñigo Mantzizidor *Mantxi* eta Fredi Paya egongo dira oholtza gainean. Txartelak Loramendi elkartean eta Gurea tabernan.
Gaur, egubakoitza, Uratz Alden, 21:00etan.

**ARRASATE Bertso-korrika**
Korrikaren aitzakian bertsotan ibiliko dira Ane Zuazubiskar, Martin Berrizbeitia, Xabi Igoa eta Maddi Sarasua.
Bihar, zapatua, Jai Zale tabernan, 19:30ean.

**ANTZUOLA 'Bertsolharitza' ipuin kontaketa**
5-11 urtekoendako saioa.
Etzi, domeka, Torresoroan, 18:00etan.

## HITZALDIAK

**ARETXABALETA Adolfo Alustiza**
Aretxabaletako EAJ-PNVk gonbidatuta, Adolfo Alustiza Lanbideko zuzendariak diru sarrerak bermatzeko errentaren gainean egingo du berba.
Gaur, egubakoitza, Basotxon, 17:30ean.

**BERGARA Feminismoa eta bertsoak**
Feminismotik begiratuko dio Ainhoa Agirreazaldegik bertsolaritzari.
Gaur, egubakoitza, Irizarren, 18:00etan.

**ARETXABALETA Elikadura**
Meitai Maitieko Maite Arrondok sei hilabetetik aurrerako haurrei zuzenean elikagai solidoak ematearen metodoaz egingo du berba.
Martxoaren 17an, Kuku Mikun, 18:00etan.

**ESKORIATZA Pentsioen gainean**
Eskoriatzako EAJk gonbidatuta, pentsioez eta horien etorkizunaz egingo du berba Emilio Olabarriak batzokian.
Martxoaren 17an, batzokian, 19:00etan.

## UMEAK

**ELGETA Sormen tailerra**
Gurasoek zein haurrek saioa egingo dute, sorkuntzaren gainean.
Etzi, domeka, Espaloian, 18:00etan.

## IRTEERA

**OÑATI Txokolateari buruzko bisita**
*Kakaotik txokolatera* delako bisita gidatu berezia egingo dute, kakaoa nola sortu zen eta gerora Oñatin izan zuen garapena ezagutzera emateko: zapatuan euskaraz egingo dute eta domekan, gazteleraz.
Turismo bulegoan, 12:00etan.

**OÑATI Zuhaitz landaketa**
Aloñako Lagunak taldeko kideekin lizarrak, pagoak, elorriak eta beste landatuko dituzte Aloña inguruan. Dei irekia egin diete herritarrei.
Etzi, domeka, Duru inguruan, 09:30ean.

## DEIA

**ARRASATE Osasun arreta euskaraz**
Osasun arloan hizkuntza eskubideak errespeta daitezela eskatu eta osasun arreta euskaraz lortu ahal izateko, kexa-poteoa egingo dute Aitor Montes medikuarekin.
Gaur, egubakoitza, Jai Zalen, 14:00etan.

**BERGARA 'Zabaldu zure etxea'**
Etxebizitza hutsak eskuratzeko Eusko Jaurlaritzaren kanpaina egongo da udaletxeko arkupetan, zapatuan eta domekan.
Aipatutako egunetan, 10:00etan.

**OÑATI Odol-ateratzea**
Ikastolan egingo dute.
Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

**ELGETA 'Gu Geu plataforma'**
Udal hauteskundeetara begira sortzeko saiakeran dagoen herri plataformak bilera ireki batera deitu ditu herritarrak.
Gaur, egubakoitza, liburutegian, 19:30ean.

**OÑATI Korrikako materiala saltzen**
Korrikako materiala saltzen egongo dira Korrikako herri batzordeko kideak.
Bihar, zapatua, Foruen plazan, 10:00etan.

**OÑATI Ludoteka ibiltaria**
Jolas erraldoiak 3-10 urte arteko umeendako, Txalokaren eskutik.
Bihar, zapatua, Errementari plazan, 11:00etan.

**OÑATI Sukalderako robota**
Robota nola dabilen eta zertarako balio duen erakutsiko dute.
Bihar, zapatua, Lagun Lekun, 16:30ean.

## BESTELAKOAK

**ELGETA Erretiratuen batzarra**
Urteko batzar orokorra. Gaiak: diru kontuak, ekintzen azalpenak, proposamenak...
Gaur, egubakoitza, elkartean, 17:30ean.

**ARRASATE Erretiratuen batzarra**
Urteko batzar orokorra. Gaiak: diru kontuak, ekintzen azalpenak, proposamenak...
Martxoaren 20an, Abaroa, 17:00etan.

**BERGARA Musika eskola**
Urteko batzar orokorra egingo dute. Diru kontuak eta datu akademikoak azalduko dituzte.
Martxoaren 24an, musika eskolan, 19:00etan.

## LEHIAKETA

**DEBAGOIENA 'NiNeu Bideo CV' lehiaketa**
Martxoaren 20ra arte zabalik dago lanak aurkezteko epea. Bi kategoria daude: ikasleak eta gainontzekoak. Lehiaketaren oinarriak, gida eta material gehigarria *www.debagoeina.eus* webgunean daude.
Martxoaren 20ra arte.

## IKASTAROA

**ARRASATE Txalaparta ikastaroa**
Bergarako musika eskolak txalaparta ikastaroa egingo du apirilean eta maiatzean. Zazpi saio egingo dituzte, eguenetan, 19:00etatik 20:00etan, apirilaren 16tik maiatzaren 23ra arte. Interesatuek musika eskolan bertan, 943-76 57 80 telefonoan edo *www.bergarakomusikaeskola.com* atarian eman dezakete izena.
Izen-ematea, aipatutako lekuetan.




Arrasateko Udalari esker
Deabru Beltzaktaldearen `Opera abeslaria´ haur antzezlana ikusteko sarrerak ditugu.
Amaia Antzokia. Arrasate
Martxoaren 21ean, 17:00etan

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA [Opera abeslaria] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA Opera abeslaria [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea.
Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba



Debagoieneko Lanbide Heziketako esperientziak ezagutuz

GOIAZ! Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka

GOIAZ! 2015
*Lanbide Heziketaren Azoka*
Apirilaren 15ean eta 16an;
Kulturaten, Arrasaten.

Prestakuntza arloko eskaintza
Enplegu zerbitzuak
Ekintzaileentzat zerbitzuak
Tailerrak eta hitzaldiak
Aparatuak eta esperimentuak



www.facebook.com/goiazdebagoiena
www.twitter.com/goiazdebagoiena

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Gipuzkoako Foru Aldundia
Gipuzkoa ekintzailea


Oihane Lameirinhas nafarrak goi mailako Sareko Informatika Sistemen Administrazioa ikasi du Arrasateko Goi Eskola Politeknikoan. Egun, Elorrioko enpresa batean dihardu, informatikari.

**Zerk bultzatu zintuen Lanbide Heziketa ikastera?**
Batxilergoa utzi, eta erdi mailako ziklo bat egiten hasi nintzen. Eta ondoren, goi mailako beste ziklo batekin jarraitu nuen; biak administrazio arloan.

**Nola ezagutu zenuen Lanbide Heziketa?**
Institutuko irakasle batek animatu ninduen. Eskolako emaitzak nahiko txarrak ziren eta zikloak ikasten hasi nintzenean, berriz, notak asko hobetu ziren. Dena den, administrazioak ez ninduen guztiz betetzen, eta informatika arloan probatzea erabaki nuen.

**Ze aurreiritzi zenuen Lanbide Heziketaz?**
Nik neuk ere pentsatzen nuen Lanbide Heziketa aukeratzen zutela ikasketetan hain ondo ez zebiltzanak, eta unibertsitatera joaten zirela ikasle perfektuak, baina ez da horrela.

**Zer eman dizu Lanbide Heziketak?**
Oso ikasketa praktikoak dira. Unibertsitatean ez naiz inoiz egon, baina, entzun dudanez, oso teorikoa da dena, eta heziketa zikloetan gehiena praktikoa da, eta orduan izugarri ikasten da. Taldeak txikiak dira, irakasleak oso gertukoak eta laguntzeko prest daude; ohiko ikasgaiez gain, beste eduki batzuk emateko gertu agertu dira irakasleak.



**"Ikasketak bukatu eta hiru hilabetetara lortu dut lana."**

**Gainera, ikasten eta lanean ibili zara, ezta?**
Bai. Zikloa ikasten egon naizen bi urteetan Eskola Politeknikoan bertan lanean ibili naiz. Eta horrek ere aukera eman dit ikasitakoa praktikan jartzeko. Hori izan da gogorrena, lana eta ikasketak bateratzea.

**Lana bilatzea erraza izan da?**
Ikasketak bukatu eta hiru hilabetera lortu dut lana. Enpresa hau eskolara joan zen curriculum bila, eta bertako lan-poltsatik lortu dut lana. Dena primeran.

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!



Lasa jatetxean gertatutako bildots-tako errea antzinako erara.

puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:
*943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 17*

goienakluba

goiena

2015-03-13

BUKATZEKO

# Jakion, Leintz Gatzagatik Oñatira

▶ Datorren urtean Berezaoko industrialdean dagoen lokal batera eroango dute kontserben ekoizpena

▶ Aurten hemezortzi urte beteko ditu bazkideen artean Debagoieneko 37 baserritar dituen enpresak

**TXOMIN MADINA** | LEINTZ GATZAGA

Sorreratik Leintz Gatzagan egon den Jakion enpresa lekuz aldatuko dute. "Osasun arauek behartutako erabakia da: egungo lokala txikiegia geratu zaigu ondo eta eroso egiteko. Ekoizpena txikitzea edo etetea edo lokalez aldatzea ziren gure aukerak", dio Susana Aiastuik, Jakioneko gerenteak.

Hainbat aukera aztertu ostean, Oñatiko Berezaoko industrialdean dagoen lokal batera joango dira. Arrazoia? Jakionek behar dituen azpiegitura asko dagoeneko badituela. "Ez dugu zerotik hasi behar, eta gastu batzuk aurrezten ditugu", dio Aiastuik. Toki aldaketak ez du data zehatzik, baina aurreikusten dute 2016an izango dela.



Jakioneko langileak, ekoizten dituzten hainbat produkturekin. | TXOMIN MADINA



Oñatin dagoen Berezaoko industrialdean izango du lokal berria Jakionek. | T.M.

**Adinez nagusi**

Fruten eta barazkien kontserbak egin eta komertzializatzen dituen enpresak 1997ko uztailean merkaturatu zituen lehen produktuak. Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak sortu zuen, egungo gerenteak gogoratzen duenez, helburu zehatzekin: "Bi ziren, eta dira, helburu nagusiak: merkaturatu gabe geratzen ziren ibarreko baserritarren produktuei irteera ematea, eta baita osasun-erregistroa lortzeko arazoak zituzten baserritarrei laguntzea ere. Bada hirugarren helburu bat, baserritarrak gehiago ekoiztera animatzea, baina ez dugu guztiz lortu". Ibarreko zortzi udalez gain, 37 ekoizle ere badira enpresaren bazkide. Azken horiek dira, hain zuzen ere, Jakionez baliatzeko orduan lehentasuna dutenak.

Merkatuaren erantzunaren arabera joan dira eskaintza moldatzen. Klaudia-okaranarekin egindako marmelada, sagarrarekin eta ahabiarekin egindakoa, albertxiko-marmelada eta tomatea dira salduenak, baita zortzi motatako marmelada ekologikoak ere. Denda txikietan eta Eroskin eta halako merkataritza-etxeetan saltzen dituzte, baina badira bezero bereziendako egiten dituzten produktuak: "Frutak almibarretan hasi ginen saltzen, baina konturatu ginen Gabonetan bakarrik kontsumitzen zirela. Orain, bi litrokoak egiten ditugu, azukre barik eta zaharren egoitzetarako bakarrik".

Jakionek beste hemezortzi urte beteko dituen galdetuta, hala espero duela dio Susana Aiastuik: "Adieraziko luke gure hasierako helburuak betetzen segitzen dugula". Lokal berriak, gainera, aukera emango die esparru berriak probatu eta hazten jarraitzeko.

AZKEN BERBA

**IDOIA ETXEBERRIA**



## Kateak

Umetako oroitzapen bat. Etorkizuna asmatzeko egiten genuen jolasa. Urrezko kate batekin. Umetan askok genuen dominaren bat. Jesus haurtxoa edo ama birjina. Bataioko oparia edo Jaunartzekoa. Eta hura zen gure bola magikoa.

Neskatilen jolasa zen. Zenbat ume izango genituen iragartzen zuen kateak. Esku bat gora begira jartzen zenuen, zabalik. Esku ahurrean, urrezko katea. Beste batek kateari heltzen zion, eta zintzilik jarri. Zure eskuaren gainean. Domina, penduluarena egiten. Lehenengo geldi zegoen. Eta gero pendulua mugitzen hasten zen. Mugimendua borobilean baldin bazen, neska izango zenuen. Zeharka mugitzen baldin bazen, mutila. Kasualitatea, baina inor ez zen umerik gabe gelditzen!

Katerik gabe ere posible zen. Ume kopurua jakitea. Eskumuturrari begiratuta. Edo esku ahurreko marrei. Edo behatz txikiaren azpiko zimurrak kontatuta, ukabila itxi ostean. Zotina kentzeko bezainbeste trikimailu zeuden. Auskalo zeinek asmatuak. Eta "ama, aita, zenbat urtekin ezkonduko naiz?". Sokasaltoan trebeak ez ginenoi argi geratu zitzaigun ez ginela sekula ezkonduko...

Zein baldintzatuta geunden. Eta gauden? Ez dakit, ba, kateak asko lasaitu diren.



ADITUAK IGOGAILUAK INSTALATZEN ETA ZERO KOTARA JAISTEN

ERAIKUNTZAK ETA BIRGAITZE-LANAK
PROIEKTUAK. BARNE DISEINUA.
ITE, CEE...
LOKAL ETA ETXEBIZITZEN ZAHARBERRITZEA
FATXADAK ETA ESTALKIAK
ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO SOLUZIOAK
GILTZA ESKURA ERAKO PROIEKTUAK
AURRETIAZKO AZTERKETAK KOSTURIK GABE

IGO ERAIKIN PROJECTS

www.igosl.com
943798864
696159959

ELKANO kalea, 3 20500 ARRASATE